



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2022ko uztailaren 5a

86. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Legea, zeinaren bidez neurriak hartzen baitira Nafarroako Administrazio Publikoetan egonkortze prozesuak gauzatzeko, Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen ondorioz. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Legea, babestutako etxebizitza ordainerrazen parke bat Nafarroako Foru Komunitatean sustatzekoa. Osoko Bilkurak onetsia (17. or.).

—Foru Legea, zeinaren bidez aldatzen baita 16/2006 Foru Legea, abenduaren 14koa, Jokoari buruzkoa. Osoko Bilkurak onetsia (37. or.).

—Foru Legea, zeinaren bidez aldatzen baita 16/2019 Foru Legea, martxoaren 26koa, Eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimen errekonozimenduari eta erreparazioari buruzkoa. Osoko Bilkurak onetsia (44. or.).

—Foru Legea, Nafarroako errepideetarako erabilera-kanona arautzekoa. Osoko Bilkurak onetsia (48. or.).

D SAILA:

Hitzarmenak:

—Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren aldaketa. Osoko Bilkurak onetsia (52. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da aurikula-fibrilazio ez balbularra duten pazienteei berma diezaien eragin zuzeneko ahotiko antikoagulatzaileak eskuratzea, Europako eta Espainiako praktika klinikoko gidetan gomendatzen denari jarraikiz. Osasun Batzordeak onetsia (53. or.).

- Erabakia. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da preserbatiboa eta barrerako beste metodo batzuk erabiltzearen gaineko sentsibilizazio kanpainak egin ditzan, sexu-transmisiozko gaixotasunak murrizte aldera. Osasun Batzordeak onetsia (54. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da modu argi eta irmoan adieraz dezan Nafarroako Pirinioak xede alderdikarietarako erabiltzearen aurka dagoela. Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Batzordeak ezetsi du (54. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Deialdia, Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko auditoreen bi lanpostu huts oposizio-lehiaketa bidez betetzeko. Gainditu dutenen behin betiko zerrenda eta izendapen proposamena (55. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Legea, zeinaren bidez neurriak hartzen baitira Nafarroako Administrazio Publikoetan egonkortze prozesuak gauzatzeko, Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen ondorioz.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2022ko ekainaren 23an egindako Osoko Bilkuran, honako foru lege hau onetsi zuen: "Foru Legea, zeinaren bidez neurriak hartzen baitira Nafarroako Administrazio Publikoetan egonkortze prozesuak gauzatzeko, Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen ondorioz".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2022ko ekainaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru Legea, zeinaren bidez neurriak hartzen baitira Nafarroako Administrazio Publikoetan egonkortze prozesuak gauzatzeko, Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen ondorioz

HITZAURREA

2021eko abenduaren 29an, Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legea argitaratu zen Estatuko Aldizkari Ofizialean. Legearen hitzaurrean adierazten denez, enplegu publikoan dagoen behin-behinekotasun handia murrizteko beharrezkoak diren egiturazko erreformei aurre egiteko beharri erantzun nahi zaio, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planarekin bat. Europako Batzordeak Plan horren aldeko ebaluazioa egin du.

Ildo horretan, 20/2021 Legearen xedea da bitarteko langileen aldi baterako izaera indartzea,

izaera hori eskuratzeko prozedurak argitzea, haien kargu-uzteen arrazoiak finkatzea, bitarteko langileen izendapena lanpostu hutsak betetzeko denean izendapenaren gehieneko iraupena mugatzea abusu-prebentziorako neurri gisa, eta gehieneko iraunaldiak ez errespetatzearen ondorioak zehaztea.

Bestalde, lege honek, egungo egoera arintzeko berehalako neurri gisa, administrazio publikoetako aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesu bat egitea aurreikusten du, ekainaren 27ko 3/2017 Legean eta uztailaren 3ko 6/2018 Legean araututakoez gain (3/2017 Legea 2017rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoa da, eta 6/2018 Legea, berriz, 2018rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoa), helburua baita enplegu publikoan dagoen behin-behinekotasuna murriztea eta gehienez ere %8ko egiturazko behin-behinekotasuna lortzea administrazio publiko guztietan.

Aipatutako abenduaren 28ko 20/2021 Legeak, hamargarren xedapen gehigarrian, xedatzen du hura Nafarroako Foru Komunitatean aplikatuko dela Konstituzioaren 149.1.18 artikuluan eta lehenengo xedapen gehigarrian eta Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoan ezarritako moduan.

Izan ere, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 49.1 artikulua araberak, Nafarroak, bere foru araubidearengatik, eskumen osoa du Foru Komunitateko funtzionario publikoen estatutu-araubidearen gainean, Estatuko oinarrizko legediak funtzionario publikoei aitortzen dizkien funtsezko eskubideak eta betebeharrak errespetatuz.

Hori horrela, beharrezkoa izan da Nafarroako Foru Komunitateak bere administrazio publikoen zerbitzuko langileei buruz zeukan foru araudi berekia egokitzea, foru ordenamendu juridikoan jasoz aipaturiko oinarritzko estatu-araudiko eskubide eta betebeharrak funtsezkoak behin-behineko langileei dagokienez –langile horiek administrazio-kontrataziopean daude hemen–, bai eta egonkortze-prozesu honetan izapidetu beharrekoak diren langile-hautaproseduren antolaera egokirako beharrezkoak diren gainerako aurreikuspenak ere, kontuan harturik behar larria dagoela abenduaren 28ko 20/2021 Legetik eratorritako egonkortze-prozesuak abian jartzeko, eta horietako enplegu publikoko eskaintzek 2022ko ekainaren 1a baino lehenago onetsita eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuta behar dutela egon. Bestalde, enplegu publikoaren eskaintzan sartutako lanpostuak betetzeko hautapen prozesuetarako deialdiak 2022ko abenduaren 31 baino lehen argitaratu beharko dira, eta 2024ko abenduaren 31 baino lehen amaitu beharko da prozesu horien ebazpena.

Aparteko eta presazko beharrezko zerbitzuetarako horiek eragin zuten maiatzaren 23ko 2/2022 Foru Lege-dekretua onestea, zeinaren bidez neurriak hartzen baitira Nafarroako Administrazio Publikoetan egonkortze prozesuak gauzatzeko, Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premia neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen ondorioz. Foru Lege-dekretu hori 2022ko ekainaren 9ko Osoko Bilkuran baliozkotu zuen Nafarroako Parlamentuak, eta foru lege proiektu gisa izapidetzea erabaki zuen. Xede horretara bideratzen da foru lege hau.

Foru lege honen I. tituluan, Nafarroako Administrazio Publikoetan aldi baterako langileak administrazio-araubidean kontratatzeke lege-arauek aldatzen dira. Zehazki, honako hauek aldatzen dira: abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Nafarroako Administrazio Publikoetan zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bateginaren 88. artikulua eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikitako langileen berariazko erregimena arautzen duen urriaren 20ko 11/1992 Foru Legearen 29. artikulua. Izan ere, bi artikuluek administrazio-araubidean kontratatutako langileei buruzkoak dira.

II. tituluan, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta haren erakunde autonomoek aldi baterako enplegua egonkortzeko deitu beharreko prozesuak arautzen dira. Horri dagokionez, enplegu publikoa egonkortzeko eskaintzan sartu beharreko lanpostuen zenbaketa arautzen da, bai

eta aldi baterako enplegua egonkortzeko tramitatu behar diren hautapen prozedurak ere –oposizio-lehiaketa eta salbuespenezko merezimendu-lehiaketa–, eta enplegu publikoa egonkortzeko eskaintzan agertzen diren lanpostuak betetzeko lekualdatze-lehiaketei aplikatu beharreko erregulazioa finkatzen da; tramiteen sinplifikazioa eta hautapen prozeduren fase bakoitzaren epeak arautzen dira, prozedurak adierazitako epeetan ebatzi ahal izateko; azkenik, egonkortze prozesuak ez gaitzeteagatik eman beharreko konpentsazio ekonomikoa arautzen da. Halaber, aldi baterako kontratazioarako izangaien zerrenden funtzionamendua eta kudeaketa arautzen dira, egonkortze prozedurak tramitatu bitartean aplikatzekoak direnak.

Halaber, foru legeak jasotzen ditu zortzi xedapen gehigarri, xedapen iragankor bakarra, non jorratzen baita informatika-lanabesak administrazio-araubideko kontratazioaren nondik norako berrietara egokitzeari dagokiona, eta bi azken xedapen.

I. TITULUA

Nafarroako Administrazio Publikoetan aldi baterako langileak administrazio-araubidean kontratatzeke lege-arauek aldatzea

1. artikulua. Abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Nafarroako Administrazio Publikoetan zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bategina aldatzea.

Nafarroako Administrazio Publikoetan zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bateginaren 88. artikulua aldatzen da, eta honela idatzita geratuko da:

“88. artikulua.

1. Nafarroako Administrazio Publikoetan honako kasu hauetan bakarrik egiten dituzte administrazio-kontratuak:

a) Langileak ordezkatzeko.

b) Beren plantilla organikoetan hutsik dauden lanpostuak aldi baterako betetzea, gehienez ere hiru urterako.

c) Aldi baterako programak gauzatzeko, azterlan edo proiektu zehatzak edo ohikoak ez diren lan bereziak egiteko. Programa horiek ezin izanen dute hiru urte baino gehiago iraun, baina hamabi hilabetera arte luzatzen ahalko dira, baldin eta programa Europako proiektu bat gauzatzearekin lotuta badago.

d) Gehiegizko zereginak egotea edo zereginak pilatzea; gehienez ere bederatzita hilabeterako. Ezin

izanen da inola ere kontratu hau luzatu, ezta beste bat formalizatu ere, premia berari erantzuteko.

e) Ikastetxeetan, irakasleei eta laguntzako langileei dagokienez, behar bezala justifikatutako beharrei erantzutea, baldin eta egiaztatzen bada langile finko nahikorik ez dagoela horiei aurre egiteko. Kontratuaren iraupena kontratuan bertan ezarriko da, eta ez du inola ere gaudituko hurrengo ikasturtearen hasiera eguna. Beharrei aurre egiteko izenpetzen diren irakasleen kontratuetan ikastetxeetako curriculum-orduak nahiz ikasturte bakoitzari dagozkion unean uneko premiak jasozten ahalko dira.

2. Langileak administrazio-araubidean kontratatzeak ez du inola ere ekarriko karrerako funtzionario-izaera aitortzea.

3. Artikulu honen lehen apartatuaren b) letran aurreikusitako kasuan, administrazio-kontratudun langileek betetako lanpostu hutsak betetzeko, lanpostuak betetzeko edo mugigarritasunerako arauz aurreikusitako mekanismoetako edozein erabili beharko da.

Hala ere, langilea administrazio-araubidean kontratatu zenetik hiru urte igarotakoan, kontratua azkenduko da, eta karrerako funtzionarioek soilik betetzen ahalko dute lanpostu huts hori, kasuan kasuko hautapen prozesua hutsik geratu ezean; kasu horretan, langileak berriro kontratatzen ahalko dira administrazio-araubidean.

Salbuespen gisa, administrazio-kontratudun langileek aldi baterako betetzen duten lanpostuan jarraitzen ahalko dute, baldin eta dagokion deialdia argitaratu bada hiru urteko epean, kontratazioaren egunetik zenbatzen hasita. Kasu horretan, deialdia ebatzi arte betetzen ahalko du lanpostua, eta kargu-uzteak ez du konpentsazio ekonomikorik ekarriko.

4. Arlo honetako jarduketa irregularrek indarreko araudiaren arabera erantzukizunak eskatzea ekarriko dute”.

2. artikulua. Nafarroako Osasun Zerbitzua-Osasunbideari atxikitako langileen berariazko erregimenari buruzko urriaren 20ko 11/1992 Foru Legearen aldaketa.

Urriaren 20ko 11/1992 Foru Legearen 29. artikulua aldatzen da (foru lege horren bidez Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikitako langileen berariazko erregimena arautzen da), eta honela idatzita geratuko da:

“29. artikulua.

1. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak honako kasu hauetan bakarrik eginen ditu administrazio-kontratuak:

a) Langileak ordezkatzeta.

b) Beren plantilla organikoetan hutsik dauden lanpostuak aldi baterako betetzea, gehienez ere hiru urterako.

c) Aldi baterako programak gauzatzea, azterlan edo proiektu zehatzak edo ohikoak ez diren lan bereziak egiteko. Programa horiek ezin izanen dute hiru urte baino gehiago iraun, baina hamabi hilabetera arte luzatzen ahalko dira, baldin eta programa Europako proiektu bat gauzatzearekin lotuta badago.

d) Gehiegizko zereginak egotea edo zereginak pilatzea; gehienez ere bederatzi hilabeterako. Ezin izanen da inola ere kontratu hau luzatu, ezta beste bat formalizatu ere, premia berari erantzuteko.

Behar bezala justifikatutako langile beharrei erantzutea, lanaldi osorako edo lanaldi partzialerako, baldin eta behar horiei erantzuteko langile finko aski ez dagoela frogatzen bada. Kontratuaren iraupena kontratuan bertan ezarriko da, eta ez da urtebetetik gorakoa izanen.

Ezarritako epea bukatutakoan, ezin izanen da kontratua luzatu behar bereberri erantzuteko. Langileen behar bereberri irauten badute, behar den lanpostu hutsa sortuko da Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuen plantilla organikoan eta erakunde autonomo horrentzat onesten den enplegu publikoaren hurrengo eskaintzan sartuko da, edo ezinezkoa bada, hurrengoan.

Lanpostu huts sortu berria aldi baterako betetzeko kontratua azkentzeko arrazoia izanen da hiru urteko epea betetzea. Horretarako, iraupendenbora hartuko da kontuan: bai beste langile behar batzuei erantzuteko egindako hasierako kontratuarena, bai lanpostu hutsaren ondorengo kontratuarena. Kasu horietan ere, hurrengo apartatuetan xedatutakoa aplikatuko da.

2. Langileak administrazio-araubidean kontratatzeak ez du inola ere ekarriko karrerako funtzionario-izaera aitortzea.

3. Artikulu honen lehen apartatuaren b) letran aurreikusitako kasuan, administrazio-kontratudun langileek betetako lanpostu hutsak betetzeko, lanpostuak betetzeko edo mugigarritasunerako arauz aurreikusitako mekanismoetako edozein erabili beharko da.

Hala ere, langilea administrazio-araubidean kontratatu zenetik hiru urte igarotakoan, kontratua azkenduko da, eta karrerako funtzionarioek soilik betetzen ahalko dute lanpostu huts hori, kasuan kasuko hautapen prozesua hutsik geratu ezean; kasu horretan, langileak berriro kontratatzen ahalko dira administrazio-araubidean.

Salbuespen gisa, administrazio-kontratudun langileek aldi baterako betetzen duten lanpostuan jarraitzen ahalko dute, baldin eta dagokion deialdia argitaratu bada hiru urteko epean, kontratazioaren egunetik zenbatzen hasita. Kasu horretan, deialdia ebatzi arte betetzen ahalko du lanpostua, eta kargu-uzteak ez du konpentsazio ekonomikorik ekarriko.

4. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak sinatzen dituen administrazio-kontratuak foru lege honek ezartzen duenaren arabera izanen dira.

5. Graduatu ondokoentzako prestakuntza-programetan berariaz kontratatuak diren langileen eta barneko fakultatibo egoiliarren ordainsariak (BAME, BAPE, BAFE, BAKE, BABE eta antzekoenak) une oro izanen dira INSALUD-zuzeneko kudeaketako barneko langile egoiliarrenak adinakoak.

6. Arlo honetako jarduketa irregularrek indarreko araudiaren arabera erantzukizunak eskatzea ekarriko dute”.

3. artikulua. Konpentsazio ekonomikoa, administrazio-kontratudunen gehieneko iraunaldia betetzen ez denean”.

1. Aurreko artikuluetan ezarritako gehieneko iraunaldiak betetzen ez badira, ukitutako kontratudun langileek konpentsazio ekonomikoa jasoko dute. Konpentsazio hori beren ordainsari finkoen hogeitun egunen baliokidea izanen da zerbitzu-urte bakoitzeko, eta urtebetetik beherako aldiak hilabetea hainbanatuko dira, gehienez ere hamabi hilekotan.

2. Konpentsazio hori jasotzeko eskubidea lana benetan eteten den egunetik aurrera sortuko da, eta ez-betetzea sorrarazi duen kontratuari soilik dagokio zenbatekoa.

3. Ez da konpentsazio-eskubiderik izanen zerbitzu-harremana diziplina arrazoiengatik edo borondatez uko egiteagatik amaitzen bada.

II. TITULUA

Aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesuak, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta haren erakunde autonomoek deitu beharrekoak

4. artikulua. Enplegu publikoa egonkortzeko eskaintzan sartu beharreko lanpostuen zenbaketa.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta haren erakunde autonomoek, foru lege hau betetzeko, enplegu publikoa egonkortzeko eskaintza onetsiko dute, eta hartan sartuko dira abenduaren 28ko 20/2021 Legearen 2.1 artikulua eta seigarren eta zortzigarren xedapen gehigarriak aplikatzearen ondoriozko egiturazko lanpostuak, egon nahiz ez egon plantilletan, aurrekontu-zuzkidura baldin badute (20/2021 Legearen bidez, premiazko neurriak hartu ziren enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko). 2.1 artikulua ondoietarako, 2017ko abenduaren 31 izanen da erreferentziako data, eta seigarren eta zortzigarren xedapen gehigarrietarako, berriz, 2015eko abenduaren 31. Zortzigarren xedapen gehigarriari dagokion erreferentzia-data aplikatzeari dagokionez, ez dira bazter utziko halako postuak zeinak baitagozkie 2015eko abenduaren 31n ez baina data horren aurreko laurogeita hamar egunetan indarrean bazegoen lan-harreman bat zeukaten langileei.

Ondorio horietarako, egiturazko lanpostuak dira premia egonkorrei erantzuten dietenak, luzaroan irauteko asmoz, lanpostua betetzen duen pertsonaren kontratu-harremana edozein dela ere.

Ez da etenaldizat joko lanpostua bete gabe egon den aldia, baldin eta lanpostua berriz ere benetan bete bada eta aldi horietako bakoitzaren iraupena laurogeita hamar egunetik gorakoa ez bada.

2. Adierazitako baldintzak betetzen dituzten lanaldi partzialeko lanpostuak enplegu publikoa egonkortzeko eskaintzan sartuko dira, modalitate horretan, eta horretarako, kontuan hartuko da egonkortze prozesuen ebazpenak ezin izanen duela inola ere ekarri ez gastua ez baliabideak handitzea.

3. Horrez gain, enplegu publikoa egonkortzeko eskaintzan sartuko dira Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan eta haren erakunde autonomoetan onetsitako egonkortze prozesuek ukitutako lanpostuak, honako hauetan jasotako aurreikuspenei jarraikiz: 3/2017 Legea, ekainaren 27koa, 2017rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoa; 6/2018 Legea, uztailaren 3koa, 2018rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoa; eta 11/2020 Legea, abenduaren 30ekoa,

2021erako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoa. Horretarako baldintza izanen da horiek betetzeko deialdirik egin ez izana edo, deialdia egin eta ebatzi bada, bete gabe geratu izana.

4. Era berean, jada onetsitako enplegu publikoaren ordezte-tasei dagokien eskaintza batean sartutako lanpostuak ere sartuko dira, baldin eta baldintzak betetzen badituzte horiek modu finkoan betetzeko egonkortze prozeduretako baten bidez, abenduaren 28ko 20/2021 Legean xedatutakoaren arabera (horren bidez, premiazko neurriak hartu ziren enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko), eta baldin eta sarrerako hautapen prozedura baterako deialdia egin ez bazaie.

5. Enplegu publikoa egonkortzeko eskaintzetan adieraziko da lanpostuak lanaldi osokoak edo lanaldi partzialekoak diren.

Lanaldi partzialeko lanpostuak baino ez dira beteko lan-kontratudunen araubide juridikoan; beraz, foru lege honetan xedatutakoaren arabera tramitatzen diren hautapen prozedurak ebatzi ondoren, lanaldi osoko lanpostu baten esleipendun suertatzen diren pertsonak, betiere, funtzionarioen araubidean izanen dira.

5. artikulua. Hautapen prozedurak.

1. Aldi baterako enplegua egonkortzeko hautapen prozedurak, foru lege honetan jasotako aurreikuspenei jarraikiz onesten direnak, lehia askearen, berdintasunaren, merezimenduen, gaitasunen eta publikotasunaren printzipioen arabera gauzatuko dira.

2. Ezin izanen dute parte hartu aldi baterako enplegua egonkortzeko deitzen diren sarrerako hautapen prozeduretan Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan eta haren erakunde autonomoetan deialdiaren xede den lanpostuan langile finko gisa ari diren langileek.

Baldintza hori betetzen ez duten pertsonak ezin izanen dira izendatu, eta baliorik gabe geratuko dira haien jarduketa guztiak, beren eskaeraren faltsukeria dela-eta legokiekeen erantzukizuna galarazi gabe.

3. Egunkortze prozesuetan sartutako lanpostuek abenduaren 28ko 20/2021 Legearen 2.1 artikuluan adierazitako baldintzak betetzen badituzte, oposizio-lehiaketa bidez beteko dira (20/2021 Legearen bidez, premiazko neurriak hartu ziren enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko); eta, enplegu publikoa egonkortzeko eskaintzan sartutako gainerako lanpostuak, salbuespenez, merezimendu-lehiaketa bidez beteko dira.

4. Oposizio-lehiaketa bidez bete beharreko lanpostuak eta salbuespenezko merezimendu-lehiaketaren sistemaren bidez bete beharreko lanpostuak dauden lanpostuetan, lehenik merezimendu-lehiaketa tramitatu eta ebatziko da, eta, ondoren, oposizio-lehiaketa.

6. artikulua. Epeak laburtzea eta tramiteak sinplifikatzea.

1. Egunkortze prozesuak 2024ko abenduaren 31 baino lehen ebatzi ahal izateko, hautapen prozeduren deialdiak 2022ko abenduaren 31 baino lehen argitaratuko dira Nafarroako Aldizkari Ofizialean, eta haietan jasoko dira prozesuaren ezaugarriak, bai eta hautapen prozeduraren fase bakoitza tramitzeko epeak ere. Honako hauek izanen dira:

a) Deialdian parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea: 15 egun natural.

b) Deialdian onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrendei alegazioak aurkezteko epea: 10 egun baliodun.

c) Merezimenduen behin-behineko balorazioari eta, hala badagokio, hautaprobek behin-behineko emaitzen argitalpenari alegazioak aurkezteko epea: 5 egun baliodun.

d) Prozeduran parte hartzeko betebeharrak egiaztatzeko eta eskainitako lanpostu hutsak aukeratzeko epea: 10 egun baliodun.

e) Funtzionario izendatzeko edo, hala badagokio, lan-kontratudun finko gisa kontratatuzko behar den dokumentazioa aurkezteko epea: 10 egun baliodun, izendapen- edo kontratazio-proposamena argitaratzen denetik aurrera.

2. Egunkortze prozeduren epaimahai kalifikatzaileak deialdia onetsi ondoren eta izangai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onetsi baino lehen izendatuko dira; epaimahaien kidekopurua bakoitia izanen da, hiru gutxienez, eta horien ordezkoen kopuru bera izendatu beharko da.

Epaimahaiak osatzerakoan, espezialitatearen printzipioa betetzen dela zainduko da, eta, horretarako, epaimahaikideen gehiengo osoak sartzeko eskatzen den jakintza-arlo bereko titulazioa izan beharko du, maila akademiko berekoa edo gora-gokoa, eta gizonen eta emakumeen ordezkartza orekatua izateko joera izanen da.

Merezimendu-lehiaketa bidez deitutako hautapen prozeduretako epaimahaiak osatzean, ez da beharrezkoa izanen aurreko paragrafoan adierazitako titulazioa izatea.

Baldin eta kasu bakoitzean eskumena duen Langileria Batzordeak ez badu epaimahai bakoitzean dagokion kidea izendatzeko proposamenik egiten eskatzen zaionetik 15 egun naturaleko epean, deialdia egiten duen organoak izendatuko du kide hori hautatutako langileen ordezkarien artean, dagokion eremuan.

3. Prozeduran onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko eta behin betiko zerrendak, bai eta hautatzen diren izangaiak izendatzeko proposamena ere, Nafarroako Gobernuaren atariko deialdiaren web fitxan argitaratuko dira.

Baztertutako izangairik ez badago, zuzenean onetsiko da onartutakoen behin betiko zerrenda, eta Nafarroako Gobernuaren atariko deialdiaren web fitxan argitaratzeko aginduko da.

4. Hautatutako izangaiak izendapen-ebazpenean finkatzen den egunean jabetuko dira lanpostuaz.

7. artikulua. Lanpostuak zehaztea hautapen prozeduretan.

1. Egonkortzeko hautapen prozeduretarako onesten diren deialdietan, bete beharreko gehieneko lanpostu kopurua zehaztuko da, eta foru lege honen 10. artikuluan xedatutakoari jarraikiz tramitatzen den lekualdatze-lehiaketaren prozedura ebatzi ondoren eskaintzen diren lanpostu hutsen kopuru zehatzak zehaztu eta horien zenbakiak identifikatuko dira. Lekualdatze-lehiaketen ondorioz gelditzen diren lanpostuak kasuan kasuko sarrerako hautapen prozeduran sartuko dira.

Horretarako, lekualdatze-lehiaketaren ondorioz lanpostu bat esleitzen bazaio lanpostu erreserbarik ez duen burutza bat uzten duen langile finko bati, lekualdatze-lehiaketa batean parte hartuz borondatezko eszedentziatik zerbitzu aktibora itzultzen direnei, edo antolamendu juridikoan lanpostuak betetzeko aurreikusitako beste edozein modu edo kausagatik lanpostu zehatzik identifikatzen ez bada, sarrerako hautapen prozeduran sartuko da antzintasun handienarekin aldi baterako eta etenik gabe okupatuta egon den lanpostu hutsa, birkokatze prozesu batean sartuta ez badago, ez eta hautapen prozesuak abian dituzten enplegu publikoaren eskaintzetan ere. Hori egiterik ez dagoenean, prozeduran sar daitekeen lanpostu hutsik ez dagoelako, murriztu egingen da foru lege honekin bat onesten diren enplegu publikoa egonkortzeko eskaintzetan sartutako lanpostu kopurua eta, hala badagokio, horien ondoriozko sarrerako deialdietan sartutakoena.

2. Funtzionarioen eskubideak baliatzearen ondorioz, Nafarroako Foru Komunitateko Adminis-

trazioan eta haren erakunde autonomoetan dagoen langile-kopuruan bikoiztasunik gerta ez dadin, foru lege honen bidez onesten diren enplegu publikoa egonkortzeko eskaintzak argitaratzen direnetik eta lanpostu hutsak hautatzeko epea irekitzen den arte, kasuan kasuko enplegu publikoaren eskaintzatik edo, horien ondorioz, lanpostuak sarrera-prozedura bidez betetzeko egiten diren deialdietatik kenduko dira lanpostu erreserbarik ez duen burutza bat uzten duten langile finkoei esleitutako lanpostuak, borondatezko eszedentziatik zerbitzu aktibora itzultzen direnei esleitutakoak edo antolamendu juridikoan lanpostuak betetzeko aurreikusitako beste edozein modu edo kausagatik esleitutakoak, baldin eta plantilla organikoan lanpostu hutsik ez badago, egonkortze prozeduretan sartu gabe, eta lanpostu hori esleitzen ahal bazaie funtzionarioei, indarrean dagoen araudiak aitortzen dizkien eskubideak errespetatuz.

Lanpostu hutsak hautatzeko epea irekitzen den egunetik aurrera, eskaintako lanpostuek hutsik egon beharko dute, harik eta aldi baterako enplegua egonkortzeko deitutako sarrerako hautapen prozedura ebazten den arte.

8. artikulua. Oposizio-lehiaketaren prozedura.

1. Oposizio-lehiaketa bidez tramitatzen diren egonkortze prozedurek artikulua honetan xedatutakoa bete beharko dute. Oposizioaldian 60 puntu emanen dira, eta lehiaketaldian, berriz, 40.

2. Oposizioaldia baztertzaila izanen da, baina oposizioaldiko probak ez dira baztertzailak izanen. Gainditzeko, 30 puntu lortu beharko dira.

3. C eta D mailetako lanpostuetan oposizio-lehiaketa bidez sartzeko deitzen diren hautapen prozeduretan, proba bakarra izanen da, test motakoa.

4. A eta B mailetako lanpostuetan sartzeko, oposizioaldian gehienez bi proba egingen dira. Bi proba egitea aurreikusten bada, biak egun bakarrean egiten ahalko dira.

5. Onesten diren oposizio-lehiaketen deialdietan, deitutako lanpostuaren edukiarekin zerikusia duten proba psikoteknikoak edo fisikoak egitea eskatzen ahalko da, baldin eta lanpostu horietan sartzeko prozedura arruntetan horrelako probak aurreikusten badira.

6. Oposizio-lehiaketa bidez deitutako prozedurarako lehenengo proba egiteko data adieraziko da prozeduran onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda onesten duen ebazpenean.

7. Hainbat lanpostutan sartzeko probak egun berean egiten ahalko dira.

8. Lehiaketaldia baloratzeko, oposizioaldia gainditu duten izangaiek soilik aurkeztu beharko dituzte merezimenduak.

9. Lehiaketaldian merezimendu hauek baloratuko dira:

a) Merezimendu profesionalak:

Administrazio publikoetan, deialdi bakoitza argitaratzen den egunera arte, egindako zerbitzuak baloratuko dira, gehienez 28 punturekin, puntuazio honen arabera:

a.1) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan eta haren erakunde autonomoetan, deialdiaren xedeko lanpostu berean, egindako zerbitzuak: 2,5 puntu egindako zerbitzu urte oso bakoitzeko.

a.2) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan eta haren erakunde autonomoetan, beste lanpostu batzuetan, egindako zerbitzuak: 1,75 puntu egindako zerbitzu urte oso bakoitzeko.

a.3) Beste administrazio publiko batzuetan, lanpostu berean edo beste lanpostu batzuetan, egindako zerbitzuak: 0,86 puntu egindako zerbitzu urte oso bakoitzeko.

Oharrak:

1. Urteen kopurua osoa ez bada, zerbitzuan egindako aldiari proportzioan dagokion puntuazioa emanen zaio.

2. Honako a) atal honi dagokion puntuazioa gehienez ere 28 puntukoa izanen da.

3. Zerbitzu-emate bakoitza hasten denetik amaitzen den arte egindako zerbitzuak baloratuko dira, egindako lanaldiaren ehunekoa edozein dela ere.

4. Deialdia argitaratu ondoren egindako zerbitzuak ez dira baloratuko.

5. Izangaia prestakuntzarako zerbitzu berezietan edo jarduneko zerbitzu bereziko egoeran egon den aldiak benetan betetako lanpostuan egindako zerbitzuak balira bezala kontatuko dira.

Izangaia zerbitzu berezietan egon bada beste arrazoi batzuegatik, edo eszedentzia berezian egon bada, edo unitate organiko bateko buru edo zuzendari lanetan, aldi horietako zerbitzuak kontatzeko, egoera horietan sartzean zuen lanpostuan egin izan balitu bezala kontatuko dira.

6. Aurreko azpiapartatuetan emandako puntuazioak bateraezinak izanen dira epe berari dagoz-

kionean. Halakoetan, kasu bakoitzean handiena den puntuazioa emanen da.

b) Beste merezimendu batzuk, gehienez ere 12 puntu:

b.1) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan eta haren erakunde autonomoetan deialdi honen xede den lanpostu berean sartzeko prozesu bat gainditu izana, lanposturik gabe, 2009ko urtarrilaren 1etik aurrera argitaratutako deialdietan: 3,2 puntu lanposturik gabe gainditutako deialdi bakoitzeko.

b.2) Ingelesa, frantsesa eta alemana:

Frantsesa, ingelesa edo alemana jakitegatik, Europar Batasuneko laneko hizkuntzak diren aldeitik, plantilla organikoaren arabera honako lanpostu hauetan aritzeko hizkuntza horiek jakitea nahitaezkoa ez denean: kazetaria, prestakuntzako eta enpleguko erdi mailako tituluduna, gizarte-langilea, gizarte-hezitzailea, lan-harremanetako diplomaduna, liburutegiko arduraduna, turismo jardueretako ofiziala, basozaina, administraria, gelako burua, koordinazioko operadore-ofiziala eta koordinazioko operadore laguntzailea, telefonista-ofiziala eta telefonista, errepideetako zaintzailea eta etxezaina, bai eta urriaren 20ko 11/1992 Foru Legearen A eranskinean (Osasun estamentuak) jasotako osasun arloko lanpostuak ere (11/1992 Foru Legearen bidez, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikitako langileen berariazko erregimena arautzen da): 2 puntu gehienez hizkuntza bakoitzagatik.

b.3) Euskara:

Euskara jakitea puntuazio honekin baloratuko da:

1. Eremu euskaldunean: Euskara jakitegatik, plantilla organikoaren arabera lanpostuan aritzeko euskara jakitea nahitaezkoa ez denean: 4,4 puntu gehienez.

2. Eremu mistoan: Euskara jakitegatik, plantilla organikoaren arabera honako lanpostu hauetan aritzeko euskara jakitea nahitaezkoa ez denean: kazetaria, prestakuntzako eta enpleguko erdi mailako tituluduna, gizarte-langilea, gizarte-hezitzailea, lan-harremanetako diplomaduna, liburutegiko arduraduna, turismo jardueretako ofiziala, basozaina, administraria, gelako burua, koordinazioko operadore-ofiziala eta koordinazioko operadore laguntzailea, telefonista-ofiziala eta telefonista, errepideetako zaintzailea eta etxezaina, bai eta urriaren 20ko 11/1992 Foru Legearen A eranskinean (Osasun estamentuak) jasotako osasun arloko lanpostuetan ere (11/1992 Foru Legearen bidez, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbi-

tzuari atxikitako langileen berriazko erregimena arautzen da): 2,8 puntu gehienez.

2. eta 3. apartatuetakoa oharrak:

Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren C1 mailaren pareko jakite-maila egiaztatzen duen titulu edo ziurtagiria duenari aurreko apartatueta hizkuntza bakoitzarentzat ezarritako baloraziorik handiena emanen zaio.

Titulu edo ziurtagiri hori izan ezean, Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren A1 maila izanez gero, gehienez eman daitekeen puntuazioaren 1/5 jasoko da; A2 maila izanez gero, 2/5; B1 maila izanez gero, 3/5; eta, B2 maila izanez gero, 4/5.

Euskara merezimendu gisa baloratzean, Nafarroako Gobernuak antolatutako ikastaroetan gainditutako urrats bakoitzagatik, gehienez eman daitekeen puntuazioaren 1/12 emanen da.

10. Prozeduran parte hartzen dutenen puntuazioan berdinketarik gertatuz gero, oposizioaldian puntuaziorik handiena dutenen alde ebatziko da.

Berdinketak bere horretan badirau, ebatziko da artikuluko honetako 9.b.1) apartatuan puntuaziorik handiena duen pertsonaren alde; eta, hor ere berdinketa egonez gero, 9.a) apartatuan puntuaziorik handiena duenaren alde. Horrela ere berdinketa egonez gero, apartatu horren barrenean azpiapartatu bakoitzean puntuazio handiena lortu duenaren alde ebatziko da, azpiapartatu horiek zerrendatuta agertzen diren hurrenkerari jarraikiz.

Arestian ezarritako irizpideak aplikatuta ere berdinketak jarraitzen badu, kalifikazio epaimahaiak egiten duen berriazko zozketa bakar baten bidez ebatziko da. Berdinduta dauden izangai guztiei zenbaki bana emanen zaie, ordena alfabetikoaren arabera, eta zenbaki horietako bat aukeratuko da ausaz. Horrela, berdinketa guztiak ordena alfabetikoaren arabera ebatziko dira, zozketan atera den zenbakia duen pertsonaren abizenetik eta izenetik abiatuz.

11. Oposizio-lehiaketa bidez deitutako egonkortzeko hautapen prozeduretan, lanpostu hutsen %7 gutxienez gorde egiten da %33ko desgaitasuna edo handiagoa duten pertsonentzat, baldin eta hautaprobak gainditzen badituzte eta, aipatutako desgaitasun gradua eta bete beharreko lanarekin eta eginkizunekin bateragarria dela frogatzen badute.

12. Oposizio-lehiaketa bidez deitutako egonkortzeko hautapen prozeduretan, lanpostu hutsen %2 gorde egiten da genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzat, baldin eta hautapen

prozesuak gainditzen badituzte eta beren egoera egiaztatzen badute.

13. Desgaitasuna dutenentzat eta genero-indarkeriaren biktimeentzat gordetako txandetan lehiatzen diren parte-hartzaileek txanda irekiko hautagaien hautapoba berberak egiten dituzte. Txanda horietako edozeinetan lanpostu hutsen bat bete gabe geldituz gero, izangaiek hautapobak gainditzeko behar den gutxieneko puntuazioa lortu ez dutelako, txanda irekikoei gehituko zaie.

14. Prozedura horietan, ez da funtzionarioen arteko igoera txanda murrizturako erreserbarik egonen.

15. Oposizio-lehiaketen prozeduretan esparru ezberdinei atxikitako lanpostuak badaude, eta horien deialdia egitea, otsailaren 21eko 30/2005 Foru Dekretuan xedatutakoari jarraikiz, organo desberdinei badagokie, deialdi bakar batean metatzen eta onesten ahalko dira, eta deitutako lanpostu kopuru handiena zer kudeaketa esparruri atxikitzen zaion, bertako organoak onartu eta tramitatu beharko ditu. Lanpostu kopuruan berdinketa gertatuz gero, deialdia Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiak egiten du.

16. Oposizio-lehiaketa bidez tramitatzen diren egonkortze prozeduren ondorioz, aldi baterako kontrataziorako izangaiei zerrendak eratuko dira, aplikatu beharreko araudiarekin bat etorritik.

Zerrenda horiek subsidiarioki aplikatuko dira, funtzio publikoan sartzeko hautapen prozesu baten ondorioz indarrean dauden kontrataziorako izangaiei zerrenden atzetik.

9. artikulua. Merezimendu-lehiaketaren salbuespenezko prozedura.

1. Merezimendu-lehiaketaren salbuespenezko prozeduraren bidez tramitatzen diren egonkortze prozedurak artikuluko honetan xedatutakoari egokitu zaizkio, eta ondoren zehazten diren merezimenduak baloratuko dira:

a) Merezimendu profesionalak:

Administrazio publikoetan, deialdi bakoitza argitaratzen den egunera arte, egindako zerbitzuak baloratuko dira, gehienez 60 punturekin, puntuazio honen arabera:

a.1) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan eta haren erakunde autonomoetan, deialdiaren xedeko lanpostu berean, egindako zerbitzuak: 3 puntu egindako zerbitzu urte oso bakoitzeko.

a.2) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan eta haren erakunde autonomoetan, beste

lanpostu batzuetan, egindako zerbitzuak: 1,5 puntu egindako zerbitzu urte oso bakoitzeko.

a.3) Beste administrazio publiko batzuetan, lanpostu berean edo beste lanpostu batzuetan, egindako zerbitzuak: 0,75 puntu egindako zerbitzu urte oso bakoitzeko.

Oharrak:

1. Urteen kopurua osoa ez bada, zerbitzuan egindako aldiari proportzioan dagokion puntuazioa emanen zaio.

2. Honako a) atal honi dagokion puntuazioa gehienez ere 60 puntukoa izanen da.

3. Zerbitzu-emate bakoitza hasten denetik amaitzen den arte egindako zerbitzuak baloratuko dira, egindako lanaldiaren ehunekoa edozein dela ere.

4. Deialdia argitaratu ondoren egindako zerbitzuak ez dira baloratuko.

5. Izangaia prestakuntzarako zerbitzu berezietan edo jarduneko zerbitzu bereziko egoeran egon den aldiak benetan betetako lanpostuan egindako zerbitzuak balira bezala kontatuko dira.

Izangaia zerbitzu berezietan egon bada beste arrazoi batzuegatik, edo eszedentzia berezian egon bada, edo unitate organiko bateko buru edo zuzendari lanetan, aldi horietako zerbitzuak kontatzeko, egoera horietan sartzean zuen lanpostuan egin izan balitu bezala kontatuko dira.

6. Aurreko azpiapartatuetan emandako puntuazioak bateraezinak izanen dira epe berari dagozkionean. Halakoetan, kasu bakoitzean handiena den puntuazioa emanen da.

b) Beste merezimendu batzuk, gehienez ere 40 puntu:

b.1) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan eta haren erakunde autonomoetan deialdi honen xede den lanpostu berean sartzeko prozesu bat gainditu izana, lanposturik gabe, 2009ko urtarrilaren 1etik aurrera argitaratutako deialdietan: 28 puntu lanposturik gabe gainditutako deialdi bakoitzeko.

b.2) Ingelesa, frantsesa eta alemana:

Frantsesa, ingelesa edo alemana jakiteagatik, Europar Batasuneko laneko hizkuntzak diren aldeetik, plantilla organikoaren arabera honako lanpostu hauetan aritzeko hizkuntza horiek jakitea nahitaezkoa ez denean: kazetaria, prestakuntzako eta enpleguko erdi mailako tituluduna, gizarte-langilea, gizarte-hezitzailea, lan-harremanetako diplomaduna, liburutegiko arduraduna, turismo jardue-

retako ofiziala, basozaina, administraria, gelako burua, koordinazioko operadore-ofiziala eta koordinazioko operadore laguntzailea, telefonista-ofiziala eta telefonista, errepideetako zaintzailea eta etxezaina, bai eta urriaren 20ko 11/1992 Foru Legearen A eranskinean (Osasun estamentuak) jasotako osasun arloko lanpostuak ere (11/1992 Foru Legearen bidez, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikitako langileen berariazko erregimena arautzen da): 5 puntu gehienez hizkuntza bakoitzagatik.

b.3) Euskara:

Euskara jakitea puntuazio honekin baloratuko da:

1. Eremu euskaldunean: Euskara jakiteagatik, plantilla organikoaren arabera lanpostuan aritzeko euskara jakitea nahitaezkoa ez denean: 11 puntu gehienez.

2. Eremu mistoan: Euskara jakiteagatik, plantilla organikoaren arabera honako lanpostu hauetan aritzeko euskara jakitea nahitaezkoa ez denean: kazetaria, prestakuntzako eta enpleguko erdi mailako tituluduna, gizarte-langilea, gizarte-hezitzailea, lan-harremanetako diplomaduna, liburutegiko arduraduna, turismo jardueretako ofiziala, basozaina, administraria, gelako burua, koordinazioko operadore-ofiziala eta koordinazioko operadore laguntzailea, telefonista-ofiziala eta telefonista, errepideetako zaintzailea eta etxezaina, bai eta urriaren 20ko 11/1992 Foru Legearen A eranskinean (Osasun estamentuak) jasotako osasun arloko lanpostuetan ere (11/1992 Foru Legearen bidez, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikitako langileen berariazko erregimena arautzen da): 7 puntu gehienez.

2. eta 3. apartatuetako oharrak:

Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren C1 mailaren pareko jakite-maila egiaztatzen duen titulu edo ziurtagiria duenari aurreko apartatuetan hizkuntza bakoitzarentzat ezarritako baloraziorik handiena emanen zaio.

Titulu edo ziurtagiri hori izan ezean, Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren A1 maila izanez gero, gehienez eman daitekeen puntuazioaren 1/5 jasoko da; A2 maila izanez gero, 2/5; B1 maila izanez gero, 3/5; eta, B2 maila izanez gero, 4/5.

Euskara merezimendu gisa baloratzean, Nafarroako Gobernuak antolatutako ikastaroetan gainditutako urrats bakoitzagatik, gehienez eman daitekeen puntuazioaren 1/12 emanen da.

c) Behin merezimendu-balorazioa aurreko apartatuek ezarritakoari jarraikiz eginda, ehuneko 33ko edo gehiagoko desgaitasun-gradua frogatzen duten pertsonak lorturiko puntuazioari 1,5 puntu gehituko zaizkio guztira, zuzenketa-faktore-gisa.

2. Berdinketak ebatziko dira artikuluko honetako 1.b.1) apartatuan puntuaziorik handiena lortu duen pertsonaren alde; eta, puntuazioa berbera denean, 1.a) apartatuan puntuaziorik handiena lortu duenaren alde. Hala ere bere horretan baldin badirau berdinketak, aipatu horren barrenean helduko zaio azpiapartatu bakoitzean lorturiko puntuazio handienari, azpiapartatu horiek zerrendatuta agertzen diren hurrenkeran.

Arestian ezarritako irizpideak aplikatuta ere berdinketak jarraitzen badu, kalifikazio epaimahaiak egiten duen berariazko zozketa bakar baten bidez ebatziko da. Berdinduta dauden izangai guztiei zenbaki bana emanen zaie, ordena alfabetikoaren arabera, eta zenbaki horietako bat aukeratu da ausaz. Horrela, berdinketa guztiak ordena alfabetikoaren arabera ebatziko dira, zozketan atera den zenbakia duen pertsonaren abizenetatik eta izenetik abiatuta.

3. Merezimendu-lehiaketa bidez deitutako egonkortzeko hautapen prozeduretan, eskainitako lanpostu guztiak txanda irekiaren bidez beteko dira, eta ez da egonen igoera txandarik, ez eta desgaitasuna dutenentzako edo genero-inderkariaren biktima diren emakumeentzako lanpostuen erreserbarik ere.

4. Merezimendu-lehiaketaren prozeduretan esparru ezberdinei atxikitako lanpostuak badaude, eta horien deialdia egitea, otsailaren 21eko 30/2005 Foru Dekretuan xedatutakoari jarraikiz, organo desberdinei badagokie, deialdi bakar batean metatzen eta onesten ahalko dira, eta deitutako lanpostu kopuru handiena zer kudeaketa esparruri atxikitzen zaion, bertako organoak onartu eta tramitatu beharko ditu.

5. Merezimendu-lehiaketaren salbuespenezko prozeduraren bidez tramitatzen diren egonkortze prozeduretatik ez da aldi baterako kontrataziorako izangaien zerrendarik aterako.

10. artikulua. Enplegu publikoa egonkortzeko eskaintzan agertzen diren lanpostuak betetzeko lekualdatze-lehiaketei aplikatu beharreko araudia.

1. Enplegu publikoa egonkortzeko eskaintzan sartutako lanpostuak barne-mugikortasuneko prozedura batean eskainiko dira, lekualdatze-lehiaketa bidez, eta hartan parte hartzen ahalko

dute deialdiaren xedeko lanpostu berean izendapena duten enplegatutako finkoek.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari eta Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuari atxikitako lanpostuen kasuan, lekualdaketa egin baino lehen, alde aurreko barne-egokitzapena tramitatuko da, foru lege honen hirugarren xedapen gehigarrian aurreikusitakoaren arabera.

2. Lanpostuak lekualdatze bidez betetzeko prozeduren deialdiak, egonkortzeko eskaintza publikoak ukitutako lanpostuak barne hartzen dituztenak, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen ahalko dira 2023an, eta horietan jasoko dira prozesuaren ezaugarriak, bai eta lanpostuak betetzeko hautapen prozeduraren fase bakoitza tramitatzeko epeak ere. Honako hauek izanen dira:

a) Prozeduran parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea: 10 egun natural.

b) Deialdian onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrendei alegazioak aurkezteko epea: 3 egun natural.

c) Merezimenduen behin-behineko balorazioari alegazioak aurkezteko epea: 5 egun baliodun.

Lanpostu hutsak aukeratzeko epea: 5 egun natural.

3. Lehiaketak kalifikatzeko epaimahaiak deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun beretik aurrera eratzten ahalko dira.

4. Prozeduran onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko eta behin betiko zerrendak deialdiaren web fitxan argitaratuko dira. Baztertutako izangairik ez badago, zuzenean onetsiko da onartutakoen behin betiko zerrenda, eta Nafarroako Gobernuaren atariko deialdiaren web fitxan argitaratzeko aginduko da.

5. Artikulu honen babesean deitzen diren lekualdatze-lehiaketetan, merezimendu bakartzat hartuko dira administrazio publikoetan egindako zerbitzuak, eta puntu bat emanen da urteko, kontuan hartuta, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta haren erakunde autonomoek deialdia argitaratzen den egunean aitortutako antzintasuna.

Oharrak:

1. Urteen kopurua osoa ez bada, zerbitzuan egindako aldiari proportzioan dagokion puntuazioa emanen zaio.

2. Deialdia argitaratu ondoren egindako zerbitzuak ez dira baloratuko.

Lehiakideak puntuetan berdindurik baldin badaude, ebatziko da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan eta haren erakunde autonomoetan zerbitzu ematen denbora gehien daramanaren alde. Berdinketak jarraitzen badu, kalifikazio epaimahaiak horretarako berariaz eginen duen zozketa bakar baten bidez erabakiko da. Berdinduta dauden izangai guztiei zenbaki bana emanen zaie, ordena alfabetikoaren arabera, eta zenbaki horietako bat aukeratuko da ausaz. Horrela, berdinketa guztiak ordena alfabetikoaren arabera ebatziko dira, zozketan atera den zenbakia duen pertsonaren abizenetik eta izenetik abiatuta.

6. Lehiakideei ebazpen bidez esleituko zaizkie lanpostuak, prozesuaren ondoriozko lehentasun hurrenkeraren arabera lanpostu hutsak aukeratu ondotik. Prozeduran parte hartzen duten pertsona guztiak egun berean laneratuko dira, ebazpenean ezartzen den egunean.

7. Lanpostuak lekualdatze-lehiaketa bidez betetzeko prozeduren ebazpena formalizatuko da egonkortze prozeduretan lanpostuak esleitu aurretik.

11. artikulua. Aldi baterako kontrataziorako izangaien zerrendak, egonkortze prozedurak tramitatu bitartean aplikatuko direnak.

1. Foru lege honetan xedatutakoa betez, egonkortze prozedura batzuk tramitatuko dira, eta prozedura horien ondorioz kasuan kasuko lanpostuetarako aldi baterako kontratazioetarako izangaien zerrendak eginen dira. Hori horrela, zerrenda horiek prestatu arteko epe horretan indarra galduko duten aldi baterako kontrataziorako izangaien zerrendarik badago, langileen arloan eskumena duten organoek zerrenda horien indarraldia luzatzen ahalko dute.

2. Nafarroako 2022rako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 29ko 18/2021 Foru Legearen lehenengo xedapen iragankorrari jarraiturik, kontratazio zerrenda batzuk luzatu ziren. Kontratazio zerrenda horietatik kanpo geratu izangaiak berriz ere sartzeko ahalko dira zerrendetan, baldin eta zerrendari ezarritako iraungitze-dataren aurreko urtean baztertuak izan baziren kontratazio eskaintza bati edo izangaiak sinatutako kontratuari uko egiteagatik, eta berriz ere zerrendetan sartzeko eskatzen badute foru lege honek indarra hartu eta hilabeteko epean.

3. Egonkortze prozedurak tramitatzeko bitartean, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen kontratazio esparruetan dauden aldi baterako kontrataziorako izangaien zerrendak eratu ziren eremutik kanpo erabiltzen ahalko dira, baldin eta

izangairik ez badago deialdia egiten den kontratazio eremuan aplikatu beharreko zerrendetan; inguruabar horrek ez du berekin ekarriko, inola ere ez, izangaien lehentasun hurrenkera aldatzea.

4. Baldin aurreko apartatuetan xedatutakoaren arabera kontratatzea ezinezkoa bada, langileen arloan eskumena duen organoak enplegu eskatzaileen zerrenda bat eskatzen ahalko dio Nafarroako Enplegu Zerbitzuari, kontratazioak egiteko.

12. artikulua. Konpentsazio ekonomikoa enplegua egonkortzeko prozedurak ez gainditzeagatik.

Zerbitzuan emandako urte bakoitzeko ordain-sari finkoen hogeita egunen besteko konpentsazio ekonomikoa emanen da, eta urtebetetik beherako aldiak hilabeteka hainbanatuko dira (hamabi hilero, gehienez ere). Konpentsazio ekonomiko hori administrazio-kontratudun langileentzat izanen da, baldin eta, jardunean egonik, Administrazioarekin duten harremana amaitzen bada ez zaielako esleitu egonkortzeko hautapen prozesuetan deitutako lanposturik.

Unibertsitateaz kanpoko irakasleen kasuan, aurreko paragrafoan ezarritakoa egokitu eginen da langile horien sarrerak dituen berezko berezitasunetara, eta erreparatuko zaio egonkortzeko hautapen prozesuetan deitu den lanpostu kopuruari, gehienez ere, espezialitate, hizkuntza eta, hala badagokio, atzerriko hizkuntza-eskakizun bakoitzeko.

Izangaiak ez baldin badu parte hartzen lanpostuak egonkortzeko hautapen prozesuan ez du eskubiderik izanen, inola ere ez, konpentsazio ekonomikoa jasotzeko. Apartatu honetan adierazitako ondorioetarako, izangaiak prozeduran parte hartu ez duela ulertuko da hark prozeduran jarraitzen ez duenean hari berari egotz dakioken arrazoi batengatik.

Lehen xedapen gehigarria. Nafarroako gainerrako administrazio publikoen atxikipena.

Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoak, beren ardurakoak diren aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesuak onetsi eta tramitatzeko orduan, foru lege honen II. tituluan jasotako erregulazioari atxikitzen ahalko zaizkio, osorik edo partez, horietako bakoitzean organo eskudunak berariaz erabakitzen duenaren arabera.

Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiak behar den laguntza eta koordinazioa emanen die Nafarroako toki-erakundeek aldi baterako enplegua egonkortzeko prozedurak tramitatzeko.

Bigarren xedapen gehigarria. Hezkuntza Departamentuak aldi baterako enplegua egonkortzeko tramitatzen dituen prozedurei aplikatu beharreko arauak.

Unibertsitateaz kanpoko irakasleei, zeinak aipatzen baitira Nafarroako Administrazio Publikoaren zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bategi-na onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren V. tituluari, foru lege honen artikulua hauek baizik ez zaizkie aplikatuko: 1.a, 3.a, 4.a, 5.a, 8.a (11. eta 14. apartatuak), 9.a (3. apartatua), 11.a eta 12.a. Gainerakoan, langile horien araudi espezifikoak aplikatuko da.

Hirugarren xedapen gehigarria. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak eta Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak tramitatzen dituzten aldeez aurreko barne-egokitzapeneko prozedurei aplikatu beharreko arauak.

1. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren eta Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuaren eremuetan, arau honen 10. artikuluan ezarritako lekualdatze-lehiaketaren aurretik, aldeez aurreko barne-egokitzapeneko prozedurak deituko dira, eta horietan parte hartzen ahalko dute urriaren 20ko 11/1992 Foru Legearen eranskinean jasotzen diren estamentu eta espezialitate bereko enplegatutako finkoak.

2. Prozeduren deialdian prozesuaren ezaugarriak jasoko dira, eta aplikatuko da Osasuneko kontseilariaren urriaren 28ko 129/2008 Foru Aginduan xedatutakoa (foru agindu horren bidez ezarritzen Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren aldeez aurreko barne-egokitzapen sistema arautzen duen prozedura berezia), honako salbuespen hauekin:

2.1. Hauek izanen dira prozesua egiteko epeak:

a) Parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea: 7 egun baliodun.

b) 5 egun balioduneko epea izanen da aldeez aurreko barne-egokitzapeneko prozesuaren trami-teen kontra erreklamazioak aurkezteko, zer egin-tza edo ebazpenen aurka erreklamatu nahi den, hura argitaratu edo jakinarazten denetik zenbatzen hasita. Dagokion lan-eremuko Profesionalen Zerbitzuko buruari edo zuzendariari aurkeztuko zaio, eta hor erregistratu beharko da berariaz.

c) Erreklamazioak ebazteko epea 7 egun balio-duneko izanen da.

2.2. Deialdia egingen da, bakar-bakarrik, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta haren erakunde autonomoek onesten duten enplegu publikoa egonkortzeko eskaintzan sar-tzen diren lanpostuetarako. Ez dira eskainiko beste lanpostu bat lortzen duten izangaiek hutsik uzten dituztenak.

Aldez aurreko barne-egokitzapenaren ondoren hutsik geratzen diren lanpostuetarako deialdia egingen da foru lege honen 10. artikuluan ezarritako lekualdatze-lehiaketan.

2.3. Parte hartzen duten langile finko interes-dunen mugikortasuna gauzatuko da dagokien lan-eremuko estamentu eta espezialitate berean.

2.4. Aldez aurreko barne-egokitzapeneko prozeduran eskaintzen diren lanpostu hutsak bete-tzeko, lehenetsua izanen dute eskaintutako lanpostu hutsaren estamentu eta espezialitate bereko lanpostu bat betetzen ari diren langileek, baldin eta destinoa badute egokitzapena egiten den oinarritzko antolamendu-unitatean. Gerta daiteke egokitzapena egingen den antolamendu-unitatean langile batek baino gehiagok interesa izatea hizpi-de dugun prozedura honetan parte hartzeko; gerta daiteke, hala berean, prozeduran parte hartzeko interesa dutenek ez izatea destinoa egokitzapena egiten den oinarritzko antolamendu-unitatean. Horrelakoetan, eskaintzen den lanpostu hutsa esleitu zaio antzinatean aitorturik handiena egiaztatzen duen izangaiari.

Lehiakideak puntuetan berdindurik baldin badaude, ebatziko da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan eta haren erakunde auto-nomoetan zerbitzu ematen denbora gehien daramanaren alde. Berdinketak bere horretan badirau, zozketa bakar baten bidez ebatziko da. Berdinduta dauden izangai guztiei zenbaki bana emanen zaie, ordena alfabetikoaren arabera, eta zenbaki horietako bat aukeratu da ausaz. Horrela, berdinketa guztiak ordena alfabetikoaren arabera ebatziko dira, zozketan atera den zenbakia duen pertsonaren abizenetatik eta izenetik abiatu-rik.

2.5. Aldez aurreko barne-egokitzapenean lehiakideei egokitu zaizkien lanpostuak esleitzeko ebazpena formalizatu egin beharko da foru lege honen 10. artikuluan aipatzen den lekualdatze-lehiaketa ebatzi aurretik.

2.6. Osasun arlokoak ez diren eta lehiakideei aldeez aurreko barne-egokitzapenean egokitu zaizkien lanpostuak esleitzeko ebazpena onetsi egin beharko da 2022ko abenduaren 31 baino lehen.

Laugarren xedapen gehigarria. Hautaprozesuak gainditzen ez dituzten langile kontratatuentzako enplegu-politika aktiboak.

Datozen lau urteetan zehar, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak berariazko orientazio-, prestakuntza- eta enplegu-politika aktiboak ezarriko ditu foru lege honen aplikazio-eremuko postuak gutxienez ere 3 urtez bete izanik foru lege honek jasotzen dituen hautaprozesuak gainditu ez dituzten 50 urte baino gehiagoko adineko pertsonentzat.

Bosgarren xedapen gehigarria. Enplegu-eskaintza publiko bereziak.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan eta horren erakunde autonomoetan dagoen behin-behinekotasuna ahal den neurririk handienan murrizten segitzearren, enplegu-publikoaren eskaintza berezi batean edo bat baino gehiagotan jasoko dira halako postuak zeinak, langile finkoek beteak izanik, hutsik geratu baitira egonkortze-prozesuak amaitutakoan, haien titularrek prozesu horietan eskaini diren postuetako bat lortu izanaren ondorioz. Ahalegina egiten da enplegu publikoaren eskaintza berezi horietarako deialdiak 2025. urtean zehar egin daitezzen, edo, hori ezinezkoa izanez gero, posible den lehenbiziko ekitaldian; eta kasu horietako sarrera-deialdiak eraenduko dira aipatu administrazioaren alor bakoitzarena den sarrera-prozesu arruntei buruzko araudi indardunearan.

Seigarren xedapen gehigarria. Foru-sektore publiko instituzionala

Foru-sektore publiko instituzionala osatzen duten entitateek kasuko egonkortze-prozesuak egin beharko dituzte, ezertan galarazi gabe beren araudi berezira egokitzea prozesu horiek kasua bada, halatan betetze aldera behin-behinekotasuna 2024. urtearen bukaeran ehuneko zortzira murriztearen helburu finkatua.

Zazpigarren xedapen gehigarria. Euskararen jakite-mailak Nafarroako toki-erakundeetan frogatzea.

Nafarroako toki-erakundeek deitzen dituzten egonkortze-prozeduretara aurkeztu nahi duten

izangaiak euskararen jakitea frogatze aldera, Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuak maila-probetarako deialdi bat egingen du.

Proba horien emaitza gisa, Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuak euskararen jakiteari buruzko ziurtagiriak jaulkiko ditu, eta horien baliozkotasuna gehigarria izanen da gai horretako titulazio ofizialen aldean, bai elebitasun-eskakizunarekin deituriko lanpostuetara aurkezteko, bai Nafarroako edozein toki-erakundetako egonkortze-prozeduretan merezimendu gisa baloratua izateko.

Zortzigarren xedapen gehigarria. Enplegu-eskaintza publikoetako akats-zuzenketarako modua.

Baldin eta egonkortzerako enplegu-eskaintza publikoak onetsi ondoren eta horien ondoriozko sarrera-deialdiak argitaratu baino lehen akatsik aurkitzen bada eskaintza horietan jasotako postu-aurkezpenearan, Nafarroako Gobernuak horretarako foru dekretua onetsiz zuzenduko ditu aurkituriko akatsak.

Xedapen iragankorra. Tresna informatikoak administrazio-araubideko kontratazioaren erregulazio berrira egokitzea.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta haren erakunde autonomoek sei hilabete epea izanen dute, foru lege honek indarra hartzen duenetik, egokitzeo langileak kudeatzeko tresna informatikoak I. tituluan jasotako xedapenentara.

Azken xedapenetako lehena. Behar diren baliabideak gaitzea foru lege hau betearazteko.

Behar diren giza baliabideak eta baliabide tekniko eta materialak gaituko dira arau hau betetzearren ondoriozko hautapen prozesuak behar bezala kudeatzeko.

Azken xedapenetako bigarrena. Indarra hartzea.

Foru lege honek argitara eman eta biharamunen hartuko du indarra.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Legea, babestutako etxebizitza ordainerrazen parke bat Nafarroako Foru Komunitatean sustatzekoa.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2022ko ekainaren 23an egindako Osoko Bilkuran, babestutako etxebizitza ordainerrazen parke bat Nafarroako Foru Komunitatean sustatzeko Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2022ko ekainaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru Legea, babestutako etxebizitza ordainerrazen parke bat Nafarroako Foru Komunitatean sustatzekoa

HITZAURREA

Etxebizitarako eskubide subjektiboari eman beharreko erantzunean Administrazio Publikotik sakontzen segitu beharrak eta, aldi berean, eskaera gero eta handiagoari erantzutearren alokairu-etxebizitza ordainerrazaren, publikoaren nahiz librearen, eskaintza gehitzera bideraturiko neurri desberdinak taxutu beharrak ere, Nafarroako Foru Komunitatea eraman dute etxebizitza-araudian zuzenbidezko baliabide berriak mamitzera. Nafarroan etxebizitza izateko eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legearen aldaketa honek xede du behar adina etxebizitza babestu eta ordainerraz sorraraztea, merkatu librean larriagotzen ari diren disfuntzio batzuk konpentsatzeko, alokairu-araubideko etxebizitzaren arlokoak batez ere, eta Administrazioak etxebizitzarako eskubide subjektiboa babesteko duen ahalmena indartu ahal izateko. Horretarako, beharrezko gertatzen da mekanismo berriak jartzea Administrazioaren esku, etxebizitza babestuaren kalifikazio mugagabea kasu –horren sustapenerako abian diren ahalegin publikoei eutsi ahal izateko–, edo Alokairu Jasangarritasunaren Indizea (AJI) bezalako figurak tankeratzea, edo Nafarroa-

ko Errentamendu Kontratuaren Erregistroa eratzea, Nafarroako Etxebizitza Erregistroaren luzapen gisa, eskueran izatearren errentamendu-prezioei buruzko diagnostiko erreal bat, bai eta lanabes lagungarriak ere, alokairu-merkatuko esparru bereziki tenkatuak zehaztu eta horien arauketarako balizko neurriak hartu ahal izatekoak.

Era berean, aipatu hasierako helburuarekin loturiko beste elementu batzuk jasotzen ditu foru legeak, hala nola etxebizitzarako eskubide subjektiboan sakontzea. Horretarako, jada jasotako mekanismoak egokitzen dira; azalera-eskubidearen garapena erraztea Foru Bankuaren lurzati-tan, Emanzipa programarako adina pixkanaka zabaltzea 35 urtetara arte, lehentasunez erosi eta atzera eskuratzeko eskubidea operazio berezi-tara zabaltzea edota etxebizitzarekin loturiko pizgarri fiskalak hobetzea, besteak beste. Aldi berean, mekanismo berriak artikulatu dira hasierako helburuetan sakontzeko; tentsiopeko esparruak zehazteko mekanismoak ezartzea alokairuen prezioen igoera mugatzeko eta erosteko laguntzak gaitzea landa eremuetan eta kalifikazioa galtzen duten etxebizitza babestuetako maizterrentzat, edota egoitzetan bizi diren pertsonen beren etxebizitzak Alokairuko Poltsarako utzi ahal izatea horrek eraginik izan gabe egoitzan ordaintzen dituzten tarifetan. Azkenik, zenbait artikuluko gehitu dira, zerikusia dutenak gaur egun eta etorkizunerako hain garrantzitsuak diren gaiekin, zeinak baitira zaharberritzea, zaharberritze-bulegoen eredia edo elkarlaneko etxebizitzak, besteak beste.

Halaber, foru legeak honako arauen aldaketak jasotzen ditu, betiere helburu berarekin: 1/2017 Legegintzako Foru Dekretua, uztailaren 26koa, zeinaren bidez onesten baita Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina; Zahar-etxeetako egonaldiak finantzatzeko erabiltzaileek ordaindu beharrekoa arautzen duen abenduaren 29ko 17/2000 Foru Legea; eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari

buruzko Foru Legearen Testu Bategina, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia.

Lehen artikulua. Aldatzea Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea.

Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legeari honako aldaketa hauek egiten zaizkio:

Bat. 3. quater artikulua berria gehitzen da. Testu hau izanen du:

“3. quater artikulua. Etxebizitza eskuratzeko eskubidea bermatzeko kenkari fiskalen sistema.

1. Etxebizitza eskuratzeko eskubidea bermatzeko kenkari fiskalak, foru lege honen 3. bis artikuluko 2. apartatuak aipatzen dituenak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bateginaren 68. quinquies artikuluan ezarritakoak dira. Testu bategin hori ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen. Urtero, pixkanaka handituko da Emantzipaziorako errentamenduaren kenkaria eskuratu ahal izateko gehieneko adina 35 urte bete arte, adin hori barne.

2. Etxebizitza babestuaren eskatzaileen errolda kudeatzen duen ente bereki nahiz kanpoko berak kudeatuko du etxebizitza eskuratzeko eskubidea bermatzeko kenkari fiskalen sistema hori. Aurrekoa gorabehera, etxebizitza arloko eskumena duen zuzendaritza nagusiari dagokio kudeaketaren ondoriozko egintzak eta ebazpenak jaulkitzea”.

Bi. 3. quinquies artikulua gehitzen da. Testu hau izanen du:

“3. quinquies artikulua. Alokairu Jasangarritasunaren Indizea.

1. Etxebizitza ordainerrazen alokairuratzea sustatu egingen da. Halako etxebizitzatzat joko dira AJI-Alokairu Jasangarritasunaren Indizearen arabera kalkulaturiko urteko errenta baino handiagoa ez den batean alokatzen direnak.

2. Alokairu Jasangarritasunaren Indizea errentamendu-prezioak arautzeko sistema gisa ezarritzen da, eta honela kalkulatu da:

$A.J.I.= V_r \times j$, halako moduz non V_r izanen baita prezio libreko etxebizitza erreformadunaren balioa, kalkulatu azaroaren 26ko 334/2001 Foru Dekretuaren arabera, zeinaren bidez onesten baita Nafarroako Foru Komunitatean dauden zenbait ondasun higiezin baloratzeko prozedura, merkatuko batez besteko prezioak egiaztatzeko meto-

doaren bitartezkoa, edo foru dekretu hori ordeztzen duen arauaren arabera. Balio hori biderkatuko da j koefizientearekin, ehuneko hainbestekotan adierazia, zehazte aldera etxebizitzaren urteko errenta ordaingarriaren zenbatekoa edo Alokairu Jasangarritasunaren Indizearen balioa.

“ J ” koefizientea urtero zehaztuko da etxebizitza alorraren gaineko eskumena duen departamentuko kontseilariak jaulkitako foru agindu baten bitartez, eta balio desberdinak izan ahalko ditu herri edo zonalde zehatzetarako. Haren balioa zero denean, ulertuko da Alokairu Jasangarritasunaren Indizea ez dela herri zehatz horri eta urtealdi zehatz horretan aplikatzeko modukoa.

3. Indarreko bizigarritasun-zedula eta zeroz bestelako “ j ” koefizientea dauzkan Nafarroako edozein etxebizitzatarako Alokairu Jasangarritasunaren Indizearen gutxieneko balioa urteko 3.600 eurokoa izanen da.

Indarreko bizigarritasun-zedula eta zeroz bestelako “ j ” koefizientea dauzkan Nafarroako edozein etxebizitzatarako Alokairu Jasangarritasunaren Indizearen gehieneko balioa izanen da kide bakarreko familia-unitate batentzako ERREGROSNA indizearen urteko zenbatekoa halako 1,5.

4. Salmenta-prezioari eta errentari dagozkien mugak dituzten etxebizitza babestuen kasuan, haien Alokairu Jasangarritasunaren adierazlea izanen da legez baimendutako gehieneko errentamendu-prezioaren zenbateko berekoa”.

Hiru. 7. artikuluko 6. apartatua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“6. Babes publikoa jaso ahalko dute, ezartzen diren ondorioetarako, etxebizitza indibidualaren eta kolektiboaren tarteko erdibide moduko bizitoki direnek; konparazio batera, elkarlaneko etxebizitzek, edo 60 urte beteta dituzten pertsonentzako, ezgaitasunen bat dutenentzako edo beren ezauzgarriengatik aholkuzko duten beste kolektibo batzuentzako tutoretzapeko apartamentuek edo laguntzadun bizitokiek”.

Lau. 7. artikuluari lau apartatu gehitzen zaizkio. Eduki hau izanen dute:

“9. Zilegi izanen da eraikin berean etxebizitza libreak eta etxebizitza babestuak egotea, halako moldez non etxebizitzen kalifikazioak barne hartu ahalko baitu eraikin osoa nahiz horren parte bat, berria nahiz lehenagotikoa izanda. Aurrekoa gorabehera, suertatzen diren etxebizitza babestu guztiek bete beharko dituzte oin berriko etxebizitzei eskatzen zaizkien baldintza teknikoak, eta beren egiturazko egokitzea frogatu.

Etxebizitza libreak eta babestuak egon daitezkeen eraikinetan sustatutako etxebizitzaren kasuan, ez da aplikatzekoa izanen lurzoruaren eta urbanizazioaren kostuaren gehieneko jasanarazpenaren betebeharra.

Halaber, lurzoruaren eta urbanizazioaren kostuaren gehieneko jasanarazpenaren betebeharra ez da aplikagarri izanen lehenagotiko eraikin, establezimendu edo lokal baten osotasunaren edo parte baten erabilera-aldaketatik abiatuta sorturiko etxebizitza babestuen kasuan.

10. Erostea aukerarik gabeko errentamenduko araubidekotzat kalifikaturiko babes ofizialeko etxebizitzaren kasuan, haien errentamendu-erabilerearen iraupena hogeita bat urtekoa izanen da gutxienez ere, haien behin betiko kalifikazioaren egunetik aurrera zenbatuta. Gutxienez epe hori igarota, zilegi izanen da salmentara aterak izatea, etxebizitza babestuen bigarren eskualdaketan jabetza eskuratzeko baldintzekin, eta prezio tasatuko etxebizitzari aplikatzekoa zaien gehieneko prezioa aplikatuta.

11. Erostea aukerarik gabeko errentamenduko araubidekotzat kalifikaturiko babes ofizialeko etxebizitzaren kasuan, haien errentamendu-erabilerearen iraupena hogeita bat urtekoa izanen da gutxienez ere, haien behin betiko kalifikazioaren egunetik aurrera zenbatuta, horrek ezertan eragotzi gabe erosteak aukera egikaritzea. Gutxienez epe hori erosteko aukera egikaritu gabe igarota, zilegi izanen da salmentara aterak izatea, etxebizitza babestuen bigarren eskualdaketan jabetza eskuratzeko baldintzekin, eta prezio tasatuko etxebizitzari aplikatzekoa zaien gehieneko prezioa aplikatuta. Erostea aukera egikaritu izanez gero, zilegi izanen da eskualdatuak izatea, etxebizitza babestuen bigarren eskualdaketan jabetza eskuratzeko baldintzekin, eta prezio tasatuko etxebizitzari aplikatzekoa zaien gehieneko prezioa aplikatuta.

12. Aurreko bi apartatuetan aipatzen diren etxebizitza horiek babes publikoaren araubideren bat mantenduko dute, era mugagabea.

Bost. 10. artikuluko 2. apartatuaren e) letra aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“e) Ezin izanen da abalik edo berme gehigarri eskatu etxebizitza babestua alokatzeko kontratua egiteko”.

Sei. 15. artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“15. artikulua. Zaharberritzearen sustapena.

1. Nafarroako administrazio publikoek, zeinek bere eskumenen arabera, etxebizitzak zaharberritzea sustatuko dute, eraikinen eraikuntza-osagaiak eta egiturazkoak lehengoratu, sendotu, aldatu edo hedatzera zuzendutako jarduketaren bitartez, bertan bizi behar dutenek baliatu ahal izan ditzaten, etxeen balio arkitektoniko, historiko edo kulturala zainduz betiere, kontuan hartuz genero-irizpideak, irisgarritasun unibertsala eta denontzako diseinua, bai eta zaharberritze ekologikoko prozesuak ere, bioeraikuntzaren, bioklimatismoaren eta efizientzia energetikoaren alorretako irizpideak gehituko dituztenak, bereziki klima-aldaketari aurre egiteko onesten diren xedapen orokorrekin lerrotatuta egonik karbono urriko ekonomia batean oinarrituriko energia-eredu berri baterantzko trantsizioa errazten dutenak. Helburu horiek betetzeko ezarriko da garapen jasangarriko helburuekin lerrotatuta egon daitezela, bai eta Nafarroako Foru Komunitatean onetsitako plan eta estrategia desberdinekin ere; besteak beste, Irisgarritasun Plana, Desgaitasun Plana, Inklusio Plana, Ekonomia Zirkularreko estrategia eta Hondakin Plana, Amiantoa Kentzeko Plan Zuzendaria eta Energia Plan.

Zaharberritze handiko eta taldekako edo baterako zaharberritze lanak sustatuko dira, bai eta zaharberritze lehenetsikotzat kalifikaturiko eremuak jarduketak ere.

2. Nafarroako administrazio publikoek, zeinek bere eskumenen esparruan jardunez, herritarrei emanen dizkiete zaharberritze babestuaren alorrean babesteko modukoak diren jarduketak egiteko beharrezkoa eta behar adinakoa den informazioa eta sostengu- eta aholku-emate integraleko zerbitzuak.

3. Etxebizitza-parkearen mapa bat eginen da, eraikuntza-irizpideetan eta irizpide sozioekonomikoetan oinarrituta, eta lehenetsia emanen zaie eremu behartsu gisa edo larrialdiko zaharberritzearen premiadun eremu gisa aurreko sailkapenaren arabera deklaraturakoei. Haietan diruz lagunduko da egin beharreko obren aurrekontu babesgarriaren ehuneko ehuneraino, erregelamenduz zehazten diren kasuetan eta baldintzekin, edo aplikatzekoak diren oinarri arautzaileek xedatzen dutenari jarraituz, aurrekontu-ekitaldi bakoitzak ezartzen duen mugaraino.

4. Halaber, jaso beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa zehazterakoan, kontuan hartuko da hirigintza-planetan katalogatutako ondasun higiezin jakin batzuen izaera babestua.

5. Era berean, ahalegin berezia eginen da izaera tradizionalako familia bakarreko etxebizitza

bakartuaren tipologiaren zaharberritzea sustatzeko landa eremuetako hiri arloan, dinamika guttiz positiboa baita despopulazio-arazo larriak dituzten zonaldeetarako”.

Zazpi. 19. artikulua c) letra aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“c) Etxebizitza babestua alokairu-araubidean lortzen duten genero-indarkeriaren biktimei ez zaie eskatuko beste etxebizitza baten edo haren zati aliquota baten jabariaren titularrak edo hura erabili eta gozatzeko eskubide errealearen titularrak ez izatea agintzen duen betebeharra, ez eta etxebizitza babestua etxer aldarazi behar izateagatik erreserbaren bidez eskuratzen dutenei ere, beti ere konpromisoa hartzen badute etxebizitza hutsen alokairurako bitartekaritza publikoko programa edo Alokairu Poltsari lagatzeko eskubide horien xede duten etxebizitza”.

Zortzi. 20. artikuluko 3. apartatuaren h) letra aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“h) Kasua bada, sustapenaren kokaleku den udalerrian gutxienez ere bi urteko antzinatasunez eta etenik gabe benetako bizilekua duten errolatuak. Erreserba hori gaitzeko, erosteko aukerarik gabeko alokairu-araubideko babes ofizialeko etxebizitzaren kasuan, udalaren titulartasuneko lurzoruan udalak sustatuak edo lehenago udalaren titulartasuneko zen eta xede horretarako eskualdatutako lurzoruan sozietate publiko batek sustatuak, udalari zilegi izanen zaio udalean errolaturiko pertsoneri erreserbatutako etxebizitzaren kopurua ezartzea. Eta, gainerako kasuetan, honako hiru betekizun hauek aldi berean bete beharko dira:

Lehena. Udalak banaketa eremuan nahitaezko eta doako lagapenaren bidez lortutako hirigintza-aprobetxamendu osoa etxebizitzetarako lurzati-tan gauzatzea.

Bigarrena. Erreserba honek aipatzen dituen etxebizitza babestuak egiazki eraikiak izatea lagapenez lortutako lurzati horietan.

Hirugarrena. Udalak espresuki ezartzea erreserba hori, zehaztuz ea partzialki ala osoki ordeztu duen Nafarroako edozein udaletan errolaturikoentzako erreserba”.

Bederatzi. 24. artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“24. artikulua. Puntuazioak.

Errenta tarte bakoitzeko eskatzaileei dagokien erreserba bakoitzean dagoen etxebizitza kopurua finkatu ondoren, jabetza araubideko etxebizitza babestuak, hau da, salerostekoak direnak eta,

errentamendukoak izanik, erosteko aukera dutenak, puntuazio hauen arabera esleituko dira:

1. Etxebizitzaren beharra, frogatua: 55 puntu gehienez, honelaxe banaturik:

a) 7 puntu eskaera sinatzen duen eskatzaile bakoitzeko eta haien familia unitateetako kide bakoitzeko. Idatz-zati honetan xedatutakoaren ondorioetarako, eskatzailearen familia unitatearen parte dira ondorengo ahaide adingabeak, haien guraso-ahala eskatzailearen esku baldin badago, partekatua bada ere.

b) 12 puntu etxebizitza libre edo babestu baten titularra izan eta bertan bizitzeagatik, aipatu etxebizitza desegokia denean azaleragatik, haren banaketagatik edo, kasua bada, desgaitasun bat duen eskatzailearen beharretara nahiz haren familia unitateko kide desgaituren baten beharretara moldatu gabe egoteagatik, erregelamendu bidez ezartzen denarekin bat.

c) 10 puntu, etxebizitza-errentamendurako kontratu bat legez eta idatziz formalizatuta edukitzeagatik Alokairu Sistema Publikoaren barrenean.

d) 5 puntu, legez eta idatziz etxebizitza-errentamendurako kontratu bat formalizatuta edukitzeagatik Alokairu Sistema Publikotik at.

e) Bi puntu, beste familia unitate batzuen etxebizitzan bizitzeagatik.

f) 2 puntu, alokairuko etxebizitza batean legez bizitzeagatik idatzizko kontraturik gabe, lagapenez edo partekatuta.

b), c), d), e) eta f) apartatuetako puntuazioak ez zaizkio bata besteari metatuko eskaera berean.

2. Familia unitatean 100eko 65eko edo hortik gorako ezgaitasun aitortua duten pertsonak izatea, salbu eta pertsona horientzako berariazko erreserbetan: 5 puntu, ezgaitasuna duen pertsona bat baldin badago, eta 10 puntu bi pertsona edo gehiago izanez gero. Desgaitasunen bat duten pertsonentzako berariazko erreserbetan, 10 puntu horiek batu egiten zaizkio etxebizitzaren behar frogatua izateagatik eman daitekeen gehieneko puntuazioari; horrenbestez, puntuazio hori 65 punturaino iritsi ahalko da.

3. Aurrezpen-kontu, kontu korrante, gordailu edo antzeko produktu finantzario baten titulartasuna, bertako saldoa 8.000 euro edo gehiagokoa denean urte bakoitzeko abenduaren 31n: urteko 3 puntu, gehienez ere 15 puntu bitarte. Ondorio horietarako, gehieneko puntuazio bera emanen zaie bananduta edo dibortziatuta dauden edo bikote egonkorra desegin duten eskatzaileei, fami-

liaren etxebizitzaren hipoteka kargak beren gain hartu dituztela frogatzen badute, halako moldez non 3 puntu emanen baitira ezkon-lotura edo bikote egonkorra desegin zenetik igaro den urte bakoitzeko, 15 puntuko gehienekora iritsi arte.

4. Nafarroako udalerrri batean edo gehiagotan erroldatuta izateagatik: 4 puntu, 4 urte baino gehiago bada; 8 puntu, 8 urtetik gorakoa bada.

5. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak jaulkitako familia gurasobakarraren agiriaren titular izateagatik: 7 puntu”.

Hamar. 25. artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“25. artikulua. Puntuazioak.

Erreserba bakoitzean errenta-tarte bakoitzeko eskatzaileei dagozkien etxebizitzak zehaztu ondoren, errentamendu-araubideko babes ofizialeko etxebizitzak honako puntuazio hauen arabera esleitu dira:

1. Etxebizitzaren behar frogatua: 55 puntu gehienez, honela banaturik:

a) Zazpi puntu, eskaera sinatzen duen eskatzaile bakoitzeko eta haien familia-unitateetako kide bakoitzeko. Apartatu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, eskatzailearen familia-unitatearen parte izanen dira ondorengo ahaide adingabeak, haien guraso-ahala eskatzailearen esku baldin bada, partekatua denean ere.

b) Hamabi puntu, etxebizitza libre edo babestu baten titularra izan eta bertan bizitzeagatik, aipatu etxebizitza desegokia denean azaleragatik, haren banaketagatik edo, kasua bada, desgaitasun bat duen eskatzailearen beharretara nahiz haren familia-unitateko kide desgaituren baten beharretara moldatu gabe egoteagatik, erregelamendu bidez ezartzen denarekin bat.

c) Hamar puntu, eskatzaileak bananduta edo dibortziatuta egonik etxebizitza baten titular edo haren zati alikuota baten titular badira, baldin hura ezin bada erabili bi urte baino gehiagoko epe batez banantze- edo dibortzio-epai baten ondorioz.

d) Hamar puntu, legez eta idatziz etxebizitza-errentamendurako kontratu bat formalizatuta edukitzeagatik Alokairu Sistema Publikotik at.

e) Bost puntu, etxebizitza-errentamendurako kontratu bat legez eta idatziz formalizatuta edukitzeagatik Alokairu Sistema Publikoaren barrenean.

f) Hamar puntu honako pertsona hauentzat, baldin eta deskribaturiko kasuak, gertatuak izanik

Etxebizitza Babestuaren Eskatzaileen Zentsuan izena emandako egunetik kontatzen hasitako bi urteko epearen barrenean, ez badagozkio Alokairu Sistema Publikoari atxikitako etxebizitza bati:

Hipoteka-zorraren ordainean beren ohiko etxebizitza entitate mailegu-emalleari edo entitate horrek izendaturiko pertsona juridikoari eman diotenak.

Beren ohiko etxebizitza saltzearekin hipoteka-zorraren kita erabatekoa edo partziala egin dutenak.

Beren ohiko etxebizitzaz gabetzeko ebazpen judizial baten xede izan direnak, hipoteka-exekuzioko prozesu judizial edo estrajudizialen ondorioz, edo ohiko etxebizitzaren errentaren fede oneko ez-ordaintzeagatik utzarazpeneko prozesu judizial edo estrajudizialen ondorioz.

g) Bi puntu, beste familia-unitate batzuen etxebizitzan haiekin batera bizitzeagatik.

h) Bi puntu, lagatako edo partekaturiko alokairu-etxebizitza batean legez bizitzeagatik, idatzizko kontraturik gabe.

b), c), d), e), f), g) eta h) letretako puntuazioak ez dira metatuko eskabide berean.

2. 35 urteko edo hortik beherako eta 65 urteko edo hortik gorako adina duen eskatzaile bakoitzeko: bost puntu.

3. Familia-unitatean desgaitasun aitortuko graduren bat duten pertsonak egotea: bost puntu emanen dira familia-unitatean 100eko 33ko edo gehiagoko eta 100eko 65 baino gutxiagoko desgaitasun-gradua duen kide bakoitzeko, eta hamar puntu, 100eko 65eko edo gehiagoko desgaitasun-gradua duen kide bakoitzeko.

4. Eskatzailearekin bizi den lehen mailako aurreko ahaide bakoitzeko, zuzenekoak edo ezkontza-ahaideak izan, baldin eta pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren aitortpenean kenkaria egiteko eskubidea sortzen badute: bi puntu.

5. Genero-indarkeriaren biktima izateagatik: bost puntu.

6. Nafarroako udalerrri bateko edo gehiagotako erroldatzea: 4 puntu, baldin eta 4 urte baino gehiagokoa bada; 8 puntu, baldin eta 8 urte baino gehiagokoa bada.

7. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak jaulkitako familia gurasobakarraren agiriaren titular izateagatik: 7 puntu”.

Hamaika. 27. artikulua aldatu da, eta testu hau izanen du:

“27. artikulua. Izena emateko eskabidea.

1. Foru lege honetan etxebizitza babestua lortzeko gutxieneko betebeharrak betetzen dituzten pertsonak beste inork ez du eskubiderik Etxebizitza Babestuaren Eskatzaileen Zentsuan izena emateko. Izen-emateak ez du sortzen, bere horretan, foru lege honek edo bera garatzeko araudiak aurreikusitako ez bestelako eskubiderik, eta berekin ez dakar etxebizitza babestuaren esleipen automatikorik.

2. Etxebizitza Babestuaren Eskatzaileen Zentsuan izena emateko eskabidea behar bezala beteta aurkeztuko da, xede horrekin prestatuko den formularioari jarraikiz, eta telematikoki eginen da, baldin eta jabetza-araubideko nahiz erosteko aukeradun errentamenduaren araubideko etxebizitza babestua eskatzen bada.

3. Pertsona bera ezin da etxebizitza-eskatzaile gisa agertu Zentsuan izena emateko eskabide bat baino gehiagotan, eta eskabide bakoitzeko gehieneko eskatzaile-kopurua bi eskatzailekoa izanen da. Baldintza horiek ez badira betetzen, eskatzailea edo eskatzaileak baztertuak izanen dira.

4. Izena emateko eskaeran nahitaez adierazi beharko da zer eremu geografiko edo udalerritako etxebizitza babestua esleitu izatea nahi den, bai eta etxebizitza-tipologia eta haren araubidea ere.

5. Zentsuan izena ematearekin, etxebizitza babestuaren eskatzaileak erantzukizuna hartzen du aurkezten dituen datuen eta eskatzen duen puntuaren egiazkotasunari buruz, bai eta etxebizitza lortzeko gutxieneko betebeharrak betetzeaz ere.

6. Izena emateko eskabidea aurkezteak berekin dakar baimena ematea etxebizitzaren arloan eskumena duen departamentuari eta, kasua bada, Zentsua kudeatzen duen organoari, Nafarroako Gobernuak gainerako departamentuei edo beste administrazio publiko batzuei datuak eskatu ahal izan diezazkieten, etxebizitza esleitu eta laguntzak emateko orduan muntadun direnak.

7. Izena emateko eskaeran datuak ezkutatzea edo aitorten faltsuak egitea, bai eta dokumentu-faltsutzea ere, behar besteko arrazoi izanen dira eskatzaile-zentsutik kanporatuak izateko, zehaztuko diren ondorioekin”.

Hamabi. 29. artikuluari 3. apartatua gehitzen zaio. Honako testu hau izanen du:

“3. Salerosketa-araubidekotzat kalifikaturiko etxebizitzaren kasuan, zilegi izanen da esleipenetik

salbuetsia izatea eskatzea, eskatzaileen zentsuan izena emandako pertsonen artean, baldin eta esleikitzen diren etxebizitza babestuaren guztizko kopurua hirukoa edo txikiagoa bada. Etxebizitza alorreko eskumena duen zuzendari nagusiaren ebazpen bitartez salbuespena xedatzen bada, erosleek ez dute eskubiderik izanen etxebizitza babestuaren eskuratzailerantz edo esleipen-hartzaileentzat aurreikusitako dirulaguntzak lortzeko”.

Hamahiru. 33. artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“33. artikulua. Trukatze bidezko esleipen prozedura, etxebizitza babestua desegokia izateagatik.

1. Azaleragatik, familia-unitateko kide desgaitu baten beharrezko teknikorik moldatu ezinagatik edo, kasua bada, banaketagatik desegokia den etxebizitza babestu baten titularrak diren pertsonak zilegi izanen dute, etxebizitza babestuak lehenbiziko eskualdaketaren bidez jabetzan lortzeari dagokionez foru lege honek ezartzen dituen betebeharrak betetzen badituzte, esleitu zaien etxebizitza babestua beren beharrei egokitzen zaien beste batekin truka dakien eskatzea. Horretarako, etxebizitza arloan eskumena duen departamentuak eskatzaileari beste etxebizitza babestu egoki bat esleitzea ebatziko du. Etxebizitza hori udalerriri berean edo gehienez hogeita kilometroko erradioko eremuan egonen da, etxebizitza desegokitik lerro zuzenean neurtua. Nafarroako Gobernuari, etxebizitza hori bereganatzeari dagokionez, legezko gehieneko prezioa aplikatuko zaio.

2. Artikulu honetan aurreikusitako ondorioetarako, eskatzaileak etxez aldarazitakoentzako erreseerbako partaidetzat hartuko dira.

3. Eskatzaileak uko egiten badio eskaintzen zaion etxebizitza egokiari, ezin izanen du artikulu honetan ezarritakoaren babesean beste etxebizitza trukerik eskatu, ukoaren egunetik hasita hama-bi hilabete igaro arte.

4. Egiaztatzen denean eskatzailea erakunde terroristaren baten jomugan dagoela edo genero indarkeriaren biktima dela, eta etxebizitza-aldaketa bere segurtasuna hobeki babesteko beharrezkoa dela, zilegi izanen da artikulu honetan jasotako ahalmena egikaritzea arau orokor gisa ezarritakoez bestelako kokaleku- eta epe-baldintzetan, kasu bakoitzean ebazten denari jarraikiz”.

Hamalau. 42. artikulua kentzen da.

Hamabost. 43. artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“43. artikulua. Babes-araubidearen iraupena.

1. Etxebizitza babestuen araubideak iraupen mugagabea edukiko du. Ez da onartuko etxebizitza babestuak garaiz aurretik deskalifikatzerik.

2. Erabilera-lagapeneko araubidekotzat kalifikaturiko babes ofizialeko etxebizitzaren babes-araubidearen iraupena mugagabea izanen da”.

Hamasei. 51. bis artikulua gehitzen da. Honako testua izanen du:

“51. bis artikulua. Lehenespenez eskuratzeko eskubideen egikaritzea zenbait eskualdaketa berezitan

1. Nafarroako Gobernuari dagozkio lehentasunez erosi eta atzera eskuratzeko eskubide legekoak etxebizitzaren eta horren eranskinen lehenbiziko eta geroagoko inter vivos eskualdatzeetan, honako etxebizitza-eskualdaketat:

a) Hipoteka-bermedun zor bat ordaintze aldera eginiko ordain-emate bidez eskuratutako etxebizitzaren eta haien eranskinen eskualdaketak.

b) Hipoteka-betearazpeneko prozesu judizial batean edo notarioaren egoitzan eginiko salmenta estrajudizialeko prozedura batean eskuratutako etxebizitzaren eta haien eranskinen eskualdaketak.

c) Gutxienez ere bost etxebizitzakoak diren eraikinen eskualdaketak, erabilera nagusia bizitokitarkoa denean, eta are eragiketa hori egiten denean higiezinak jarduerari loturiko helburu soziala duten merkataritza-sozietateetako akzioen edo partaidetzen salmentaren bitartez.

d) Hamar etxebizitza edo gehiagoren eta haien eranskinen baterako multzo-eskualdaketak, eta are eragiketa hori egiten denean higiezinak jarduerari loturiko helburu soziala duten merkataritza-sozietateetako akzioen edo partaidetzen salmentaren bitartez.

2. Lehentasunez erosi eta atzera eskuratzeko legeko eskubide aipatu horiek etxebizitza alorreko departamentu eskudunak egikaritu beharko ditu, titulu honetako xedapenei jarraikiz. Bereziki izanen dira aplikatzekoak 45.2, 45.3, 45.4, 46, 49.2, 50 eta 51. artikuluek xedatzen dutena. Horretarako, Nafarroako aurrekontu orokorretan urteko zenbateko bat egonen da, 2023an milioi bat eurokoa gutxienez ere, eta handituko de 2025ean 2 milioi egiteraino, eta eskuratutako etxebizitzak Nafarroako Gobernuaren etxebizitza arloko politika sozialen betera bideratuko dira. Behin kreditua agortuta, eskuratzeko direnak eskainiko zaizkie etxebizitza babestua eskatu duten pertsonen behin etxebizitzaren babes-epea modu mugagabean luzatuta”.

Hamazazpi. 52. artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“52. artikulua. Desjabetze-arrazoiak.

Jabetzaren funtzio soziala ez betetzeagatik nahitaezko desjabetzea justifikatzeko moduko arrazoi izan ahalko da honako egitate hauetako edozein:

a) Etxebizitza babestua ohiko bizileku iraunkor gisa egiazki erabiltzeko errekerimendu bati jaramonik ez egitea.

b) Etxebizitza babestua ohiko bizileku iraunkor gisa erabili gabe edukitzea urtebete baino gehiagor, baldin eta ez bada lortu okupatu gabe edukitzeko administrazio-baimen nahitaezkoa.

c) Etxebizitza babestua lortzeko eskatutako datuak faltsutzea.

d) Etxebizitza bat bertan bizi gabe edukitzea, hori foru lege honen indarrez zigortzen den arauhauste oso astuna den kasuetan.

e) Etxebizitza babestuetarako lursailak urbanizatzeko edo haietan eraikitzeko ezarritakodauden epeak ez betetzea. Epe horiek izanen dira lurra kokaturik dauden udalerriko Udal Plan Orokorrean ezarritakodaudenak, eta, horrelakorik ezean, lurraldearen antolamenduari eta hirigintzari buruzko foru araudian ezarritakoak”.

Hemezortzi. 53. artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“53. artikulua. Desjabetze-titulua.

Desjabetzea gaitzen duen titulua, zeinak halaber zehazten baitu badagoela nahitaezko desjabetzea egiteko moduko arrazoiak aurreko artikuluetan jasotako kasuetan, izanen da administrazio-bideko ebazpen irmoa, foru lege honetan tipifikaturiko arau-hausteagatik zehapena erabakitzen duena. Beharrezkoa izanen da zehapena ezartzen duen ebazpenak desjabetzea esanbidez xeda dezala neurri osagarri gisa, dela jabetza osoarena, dela erabileraarena; azken kasu horretan, Hiri Errentamenduei buruzko azaroaren 24ko 29/1994 Legeak ohiko etxebizitzaren alokairurako ezartzen duen gutxieneko denboraz, legeko luzapenak barne, etxebizitzaren titularra pertsona fisikoa edo juridikoa izatearen arabera”.

Hemeretzi. 54. artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“54. artikulua. Efektuak.

1. Desjabetzearen onuraduna etxebizitzaren arloan eskumena duen departamentua izanen da,

edo horrek hautatzen duen erakunde publiko edo sozietate instrumentala.

2. Desjabetze-prozedura bukatu ondoren, etxebizitzaren arloan eskumena duen departamentuak edo horretarako hautatzen den erakunde publiko edo sozietate instrumentalak esleituko du etxebizitza, foru lege honen bigarren xedapen gehigarrian ezarritakoari jarraikiz. Erabilera-desjabetzearen kasuan, etxebizitza sartua izanen da etxebizitza hutsen alokairurako bitartekaritza publikoaren programa edo Alokairu Poltsan, zeina aipatua agertzen baita foru lege honen 13. artikuluan”.

Hogei. 64. artikuluari 23. apartatua gehitzen zaio, eta testu hau izanen du:

“23. Ez betetzea Nafarroako Etxebizitza Errentamenduko Kontratuen Erregistroan inskribatzeko betebeharra, foru lege honetan ezarria”.

Hogeita bat. 65. artikuluko 18. apartatua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“18. Zazpigarren artikuluko bederatzigarren puntuari atxiki zaizkion espediente mistoetan jasota ez dauden etxebizitza babestuen eraikuntzan atzemandako behar bezala frogaturiko eraikuntzagabezia edo ezkutuko akatsengatik egiten diren errekerimenduetan ezarrita dauden betebeharrak urratzea, egitez nahiz ez-egitez, baldin gabezia edo akats horiek, behin betiko kalifikazioaren egunaren hurrengo hiru urteetan salatuak izanik, ez badaude etxegintza-antolamenduari buruzko oinarriko legedian aipatzen diren aseguruaren estaldu-rapean”.

Hogeita bi. 65. artikuluko 33. apartatua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“33. Adierazpen faltsuak egitea, edo eskubide ekonomikoak, babes eskubideak edo bizigarritasun eskubideak aitortzen dituen ebazpen administratibo bat lortzeko behar diren dokumentu edo ziurtagiriak faltsutzea, arau-hausleen edo hirugarren batzuen aldeko egintza bat lortze aldera, interesdunen aldekoa ez den exekuzio-agindu edo beste egintzaren bat saiheste aldera, edo foru lege honetan jasotako sustapen neurriak lortze aldera”.

Hogeita hiru. 66. artikuluko 1. apartatua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“1. Urtebetez etxebizitzan egiazki ez biziitzea foru lege honetan ezarritako moduan; betiere, etxebizitzaren titularrak pertsona juridiko bat denean, eta pertsona juridiko horrek etxebizitzaren jabetza osoa badu edota, etxebizitzaren jabeak izanda, partaidetzaren gehiengoaren titularrak

badu. Arau bera aplikatuko zaie sozietate irregularreri”.

Hogeita lau. 66. artikuluko 2. apartatua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“2. Behin betiko kalifikazioz errentamenduarabudekoa den etxebizitza babestua egiazki errentan ez ematea, hori posible denetik hiru hilabeteko epean, salbu eta behar bezala justifikaturiko arrazoi bat tartean denean”.

Hogeita bost. 66. artikuluari 7. apartatua gehitzen zaio. Honako testu hau izanen du:

“7. Etxebizitzaren erabilera lagatzeko kontratua ez formalizatzea, legez ezarritako epean, etxebizitza hutsen alokairurako bitartekaritza publikoaren programa edo Alokairu Poltsa kudeatzen duen entitatearekin, etxebizitza babestua eskuratu ahal izateko baldintza hori betetzea beharrezkoa denean, legeak hala agintzeagatik”.

Hogeita sei. 72. artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“72. artikulua. Etxebizitza hutsei buruzko neurriak.

1. Etxebizitzan foru lege honek ezarritako moduan egiazki ez biziitzearen arau-hauste oso astunagatik ezarritako zehapena arau-hauste arinetarako aurreikusten diren zenbatekoetara jaitsi ahalko da baldin eta zehaturiko pertsonak justifikatzen badu zehapen-prozedura bukatu baino lehen amaiera eman diola etxebizitzan ez biziitzearen egoerari, edo konpromisoa hartzen badu ebazpen zehatzailea irmo bilakatzearen ondoko hiru hilabeteetan eginen duela hori. Interesdun batek konpromiso hori idatziz adierazten baldin badu, zehapen-betearaztea etenda geratuko da, harik eta beste ebazpen bat ematen den arte, non, konpromisoaren betetzea egiaztatuta, inguruabar hori deklaratu eta zehapena gutxituko den.

2. Foru lege honetan ezarritako moduan etxebizitzari bizi-toki-erabilera ez ematearen arau-hauste oso astun horri desjabetze-zehapenik ezarri ez zaionean, entitate titularrari betiere eskatuko zaio egoera horri amaiera eman diezaion sei hilabeteko epean gehienez, eta ohartaraziko zaio hala egiten ez badu isun hertsagarriak ezarriko zaizkiola edo etxebizitzaren jabetza nahiz erabilera desjabetzeko prozedurari ekin ahalko zaiola”.

Hogeita zazpi. 78. artikuluko 2. apartatua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“2. Nafarroako Etxebizitzaren Erregistro Oroko-rean sarturik egonen dira, gutxienez, etxebizitza bakoitzari buruzko datu hauek:

a) Posta eta katastroko helbidea, azalera, adina eta kokapena, geoerreferentziatua.

b) Nafarroako Lur-ondasunen Erregistroan titular gisa ageri den pertsona.

c) Bizigarritasun zedula edo agiri administrati- bo baliokidea.

d) Etxebizitzaren babes mota, babestua baldin bada, eta erabilerarako edo sarbiderako araubi- dea.

e) Etxebizitzaren eraikinak ba ote duen eraiki- nen ebaluazio txostenik.

f) Efizientzia energetikoaren ziurtagiria.

g) Etxebizitza erosi, alokatu edo zahar-berri- tzeagatik lortutako laguntza publikoak, baldin badaude.

h) Errentan emandako etxebizitza babestuen kasuan, datu hauek jasoko dira, gutxienez: etxebizitza errentan eman duen sustatzailearenak, errentariarenak eta onartu diren laguntza publiko- enak.

i) Zantzuen arabera, hutsik dauden etxebizi- tzak. Etxebizitza hutsik egotearen zantzu horiek zehazteko, etxebizitzan inor erroldaturik ote dago- en egiaztatzen ahalko da, edo bertan jarduera ekonomikorik betetzen ote den. Beste zantzu ba- tzuk ere har litezke kontuan.

j) Izenpeturiko errentamendu-kontratuen datuak, foru lege honen IX. Tituluan adierazten den moduan.

k) Etxebizitzaren arloko eskumena duen depar- tamentuaren iritziz interesekoak diren beste datu batzuk”.

Hogeita zortzi. 87. artikulua 4. apartatua kentzen da.

Hogeita bederatzia. 88. artikulua gehitzen da, eta testu hau izanen du:

“88. artikulua. Hobaridun alokairua eskaintzeko betebeharra.

1. Hipoteka-exekuzioko edozein demanda judi- zial aurkeztu aurretik, bai eta ohiko etxebizitzaren gaineko hipoteka-maileguak edo -kredituak konpentsatzeko edo horietarako ordain-emateeta- rako akordioak lortzearen ondoriozko etxebizitza bat eskuratu aurretik, edo halako etxebizitza bat erosi aurretik zeinaren salmentaren arrazoia baita mailegu-hartzaileari ezinezkoa izatea hipoteka- mailegua itzultzea, orduan eskuratzailerak, baldin eta finantza-entitate bat edo haren higiezin-filiale- takoren bat bada, edo aktiboen kudeaketarako entitate bat, banku-berregituraketatik eratorritako

aktiboak barne, edo higiezin-entitate bat, haren egoitza soziala edozein izanik ere, hobaridun-alo- kairu baten proposamena egin beharko die ukituri- ko pertsoneri, baldin eta eskuraketak edo saleros- ketak eragiten badu etxebizitza-alternatiba propiorik ez izanik zaugarritasun sozialeko egoerakotzat aintzat hartuak izateko legezko baldintzak betetzen dituzten pertsonengan edo familia-unitateengan.

2. Pertsonak edo familia-unitateak zaugarrita- sun sozialeko egoeran daudela ulertuko da haiek babes ofizialeko etxebizitzaren errentamenduagati- ko dirulaguntzen hartzaile izateko baldintzak bete- rik gizarte-zerbitzu eskudunek emandako aldeko txostena dagoenean. Txosten hori gehienez ere hilabeteko epean jaulki beharko da.

3. Hobaridun alokairutzat joko da:

a) Kasuko etxebizitza foru lege honetako 13. artikuluan aipaturiko Alokairu Poltsaren programa- rako eskaintzea, ukituriko pertsona edo familia- unitateei errentan emateko asmoz.

b) Prozedurak ukitzen duen etxebizitzaren errentamendua eskaintzea, errentamendurako kalifikaturiko babes ofizialeko etxebizitza baten baldintzetan, nahitaezkoa izanik alokairu-kontra- tua Administrazioaren ikus-onetsirako aurkeztea, babes ofizialeko etxebizitzetarako ezarritako modu berean.

4. Artikulu honen bitartezko hobaridun alokairu baten onuradun potentzial diren pertsonak edo familia-unitateek honakoa eskatu beharko dute:

a) Etxebizitza Babestuaren Eskatzaileen Zen- tsuan inskribatuak izatea.

b) Behin zentsu horretan inskribaturik, alokairu babestu baten onuradunak izan ahal izatearen aitortpena, etxebizitza alorreko eskumena duen departamentuari zuzendutako eskabide baten bitartez”.

Hogeita hamar. 89. artikulua gehitzen da, eta testu hau izanen du:

“89. artikulua. Ohiko etxebizitzaren errenta- mendua ez ordaintzeagatik hobaridun alokairua eskaintzeko betebeharra.

1. Ohiko etxebizitzaren alokairua ez ordain- tzeagatik inolako utzarazpen-demanda judizial aurkeztu baino lehen, aurreko artikuluan aipatuak izanik etxebizitzaren jabe diren pertsona juridikoek frogatu beharko dute errentamendu-kontratuaren titular diren pertsona edo familia-unitateei eskaini egin dietela hobaridun alokairu baterako proposa- mena, aipatu artikuluan adierazitako zertzeladen eta baldintzen arabera.

2. Aurreko apartatuak xedatzen duena ez da aplikatuko honako kasuetakoren bat gertatuz gero:

a) Demanda aurkeztu aurreko urtean, alokairu-errenta pagatzeko laguntza ekonomiko publikoak edo foru lege honen 3. bis artikuluko 2. apartatuak aipatzen dituen kenkari fiskalak, etxebizitza-eskuratze eskubidea bermatzekoak, izan dituzten maizterrak direnean.

b) Maizterrak izatea, etxebizitza bat errentan hartuta dutenak, hileroko errenta handiagoa duena foru lege honen 3. bis artikuluko 2. apartatuak aipatzen dituen etxebizitza-eskuratze eskubi-dearen bermerako kenkari fiskalak eskatzeko baimenduta dagoen gehieneko hileroko errenta halako 1,1 bat baino.

c) Maizterrak izatea, etxebizitza bat errentan hartuta dutenak, errentamendu babestuagatik dirulaguntzak eskatzeko modua ematen duena.

3. Pertsona juridikoek 88. artikuluan jasotzen den hobaridun alokairu bat eskaintzeko betebeharra ez betetzeak ukitutako pertsonak etxebizitza arloan ardura duen departamentura jotzeko aukera izanen dute, erregelamendu bidez ezartzen den prozedura hasteko”.

Hogeita hamaika. 89. bis artikulua berria gehitzen da. Testu hau izanen du:

“89. bis artikulua. Ohiko etxebizitzaren errentamendu-kontratua amaitzeagatik hobaridun alokairua eskaintzeko betebeharra.

Ohiko etxebizitzaren alokairu-kontratu amaitutzat jo aurretik, 88. eta 89. artikuluetatik aplikatzekoa den moduan, aurreko artikuluan aipatuak izanik etxebizitzaren jabe diren pertsona juridikoek frogatu beharko dute errentamendu-kontratuaren titular diren pertsona edo familia-unitateei eskaini egin dietela hobaridun alokairu baterako proposamena, aipatu artikuluan adierazitako zertzeladen eta baldintzen arabera”.

Hogeita hamabi. IX. titulua gehitzen da. Hau da testua:

“IX. titulua. Nafarroako Etxebizitza Errentamenduko Kontratuen Erregistroa.

90. artikulua. Nafarroako Etxebizitza Errentamenduko Kontratuen Erregistroaren eraketa, ezaugarriak eta kudeaketa.

1. Nafarroako Etxebizitza Errentamenduko Kontratuen Erregistroa eratzen da, izaeraz administratiboa eta deklaratihoa eta nolakotasunez elektronikoa. Nafarroako Etxebizitza Erregistroan txertatuta egonen da, eta bertan inskribatu behar-

ko dira Foru Komunitatearen lurraldean kokatuta dauden etxebizitzaren errentamendu-kontratu guztiak.

2. Nafarroako Etxebizitza Errentamenduko Kontratuen Erregistroak frogatzen du inskribatze-betebeharra bete izana, eta sinaturiko kontratuen datuak jasotzen ditu.

3. Nafarroako Etxebizitza Errentamenduko Kontratuen Erregistroa kudeatzea etxebizitza-alorraren gaineko eskumena daukan zuzendaritza nagusiari dagokio, baina horrek ez du ezertan galarazten zuzendaritza horrek sozietate publiko edo ente instrumental baten ardurapean utzi ahal izatea kudeaketa hori.

91. artikulua. Nafarroako Etxebizitza Errentamenduko Kontratuen Erregistroan inskribatzea.

1. Kontratuak inskribatuko dira errentatzaileak hala eskatuta edo etxebizitza-eskumena duen departamentuak ofizioz jardunez.

2. Errentatzailearen ekimenez inskribatuko dira etxebizitza libreen gainean eginiko kontratu guztiak. Dena den, errentariaren ekimenez inskribatuko dira errentatzaileari egotzi ahal zaion arrazoi batengatik inskribatu gabe utzi diren kontratuak, ezertan galarazi gabe errentatzaileak hartu ahal izan duen erantzukizuna.

3. Ofizioz inskribatuko dira etxebizitza libre nahiz babestuaren gainean eginak izanik etxebizitza-alorreko departamentu eskudunaren ikus-ontsi administratiboa jaso behar duten kontratu guztiak.

4. Inskripzioa eginen da etxebizitza-alorreko webgune tematikoan xede horrekin eskueran ipinitako aplikazio informatikoaren bitartez.

92. artikulua. Nafarroako Etxebizitza Errentamenduko Kontratuen Erregistroan inskribatzeko eskaera.

1. Errentatzaileak kasua denean inskripzioa eskatzeko epea hilabetekoa izanen da, kontratu-formalizatzearen datatik zenbatzen hasita.

2. Kontratuak indarrean dirauen bitartean, errentariak zilegi izanen du inskripzioa eskatzea.

3. Oro har, eskabidea bitarteko elektronikoz aurkeztu behar da, xede horrekin eskueran ipinitako aplikazioaren bidez, eta bertan adierazitakoari jarraikiz. Hala ere, modu presentzian aurkeztu ahalko dute administrazioarekin modu telematikoa komunikatzerakoan zailtasun egiaztatuak dituzten pertsona fisikoek.

93. artikulua. Inskripzio-idazpena.

Inskripzio-idazpenean honako datu hauek jasoko dira:

a) Finkaren kokalekua identifikatzeko datuak: udalerrria, katastro-erreferentzia, kalearen izena, finkaren zenbakia, eskailera, solairua eta atea.

b) Etxebizitza mota: kolektiboa edo familia bakarrekoa.

c) Azalpena, ohartarazten duena ea etxebizitza hori inolako babes publikoren pean dagoen, edo bitartekaritzarako nahiz etxebizitza libreak lagatzeko programa publikoren batean sartuta dagoen; baiezkoan, babes publikoaren mota, edo bitartekaritza- nahiz lagapen-programa publikoarena, eta kasuko identifikazio-zenbakia.

d) Errentamendu mota: ohiko etxebizitza edo aldietakoa.

e) Kontratugileen identifikazioa: izena eta abizenak edo sozietate-izena, helbidea, identifikazio fiskaleko zenbakia, nortasun-agiriaren zenbakia edo, kasua bada, atzeritarraren identifikazio zenbakia edo pasaporte-zenbakia.

f) Kontratu-formalizazioaren eguna.

g) Kontratu-indarraldiaren eguna.

h) Adosturiko errenta.

i) Inskripzio-eguna.

j) Kontrol-zenbakia.

k) Fidantzaren zenbatekoa.

94. artikulua. Inskripzio-ziurtagiria.

1. Inskripzioa egin ondoren, bertan jasotako datuak biltzen dituen agiri bat jaulkiko da.

2. Agiri horrek kontratua Erregistroan inskribatu izanaren frogagiri gisa balioko du, ezertan galarazi gabe Administrazioak agiriko datuei buruzko argi-garriak eskatu ahal izatea.

95. artikulua. Inskripzioaren aldaketa.

1. Jatorrizko kontratuko baldintzaren aldaketak errentatzailea behartuko du inskripzioa aldatzera eta agiri berri bat jaulkitzera.

2. Dena den, errentariaren ekimenez aldatuko dira errentatzaileari egotzi ahal zaion arrazoi batengatik aldatu gabe utzi diren kontratuak, ezertan galarazi gabe errentatzaileak hartu ahal izan duen erantzukizuna.

96. artikulua. Inskripzioaren ezerezte.

1. Erregistraturiko errentamendu-kontratua bukatu denean, aginduzkoa da inskripzioa ezerezte

tea, errentatzailearen ekimenez, betiere kontratubukaera frogatu ondoren.

2. Ezerezte-idazpenean jasota utziko dira kontratu-azkentzearen eguna eta inskripzio-ezereztearen eguna”.

Hogeita hamahiru. X. titulua gehitzen da. Hau du testua:

“X. titulua. Tentsiopeko merkatuaren zonaldeak.

97. artikulua. Tentsiopeko etxebizitza-merkatuaren zonaldearen deklarazioa.

1. Etxebizitzaren arloan eskumena duen Nafarroako Gobernu departamentuak “tentsiopeko etxebizitza-merkatuaren zonalde” deklaratu ahalko ditu zonalde jakin batzuk, aipatu zonaldetan herri-tarrei etxebizitza eskuratzea laguntzeko jarduketa publikoak hartzeko xedearekin.

2. “Tentsiopeko etxebizitza-merkatuaren zonalde” deklaratzeko honako arau hauei jarraikiko zaie:

a) Deklarazioaren aurretik, prestatze-prozedura bat beharko da, lortze aldera zonaldeko etxebizitza-merkatuaren egoerari buruzko informazioa, deklarazioa egiteko interesa dakarrena, bertan sartuta mota ezberdineko etxebizitzen alokairu eta salmentako prezioen adierazleak eta denboran zehar izan duten bilakaera, egoiliarren familietan duten errenta maila eta denboran zehar izan duen bilakaera, etxebizitzaren prezioekin batera ahalbidetuko dutenak familiek etxebizitza duin eta egokia edukitzeko egin behar duten ahalegin ekonomikoaren bilakaera neurtzea.

b) Geroago, jendaurreko informazioan eskurgarri jarriko da deklarazioa oinarritzeko erabili nahi den informazioa, bertan sartuta populazioaren eta familien banaketa espazialari buruzkoa azterlanak, haien egitura eta dinamika, prezioaren eta etxebizitza motaren arabera zonifikazioa, edo gainerako edozein azterlan, ahalbidetuko duena arlo sozio-espazialean kohesioaren kalterako diren segregazio prozesuak eta desorekak atzematea edo aurreikustea.

c) Lurralde eremu bat “tentsiopeko etxebizitza-merkatuaren zonaldea” dela ezartzen duen ebazpena oinarritzeko zioak izanen dira zonaldeko etxebizitza-merkatuan akatsak edo gabeziak egotea, etxebizitza mota edozein dela ere, ohiko etxebizitzaren eskaerari erantzun egokia ematerakoan eta, edozein kasutan ere, arrazoizko prezioan populazio egoiliarren egoera sozioekonomikoaren eta dinamika demografikoaren arabera. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko

da eta Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendaren Ministerioko Hiri Agendaren eta Etxebizitzaren Idazkaritza Nagusiari helarazi.

d) Lurralde eremu bat “tentsiopeko etxebizitza-merkatuaren zonalde” deklaratzeko hiru urteko indarraldia izanen du. Urtero luzatu ahalko da, prozedura berari jarraikiz, aipatu deklarazioa egin zenean biltzen diren inguruabar berberak irauteko badute eta alde zuzenak aurretik justifikatuta aurreko deklarazioaren ondorengo egoera lehengoratu edo hobetze aldera hartutako neurri eta ekintza publikoak.

3. Aurreko apartatuan ezartzen den “tentsiopeko etxebizitza-merkatuaren zonalde” deklaratzeko oroitidazki bat eskatuko du, justifikazioa emanen duena lehen edo bigarren mailako iturrietatik edo estatistiketatik datozen datu objektibo bidez eta oinarri izaki egoiliarrendako etxebizitza-hornidura nahikorik ez egoteko arrisku berezi bat egotea, familia berriak eratzeko dinamikak barne, eskuragarri izateko baldintzekin, honako inguruabar hauek gertatzeagatik:

a) Aipatu lurralde eremuan hipotekaren edo alokairuaren kostuak pertsonaren edo bizikidetzaren aurrekontuan duen batez beteko zamak, gehi oinarritzeko hornidurak eta gastuak, familien batez besteko errentaren ehuneko hogeita hamarretik gora egitea.

b) Aipatu lurralde eremuan etxebizitzaren erosketak edo alokairuak aurreko bost urteetan izandako hazkunde metatuaren portzentajea izatea Nafarroako Foru Komunitateko kontsumoko prezioen indizearen hazkunde metatuaren portzentajea baino ehuneko bost handiagoa, gutxienez ere.

4. Etxebizitzaren arloan eskumena duen Nafarroako Gobernu departamentuak, “tentsiopeko etxebizitza-merkatuaren zonalde” deklaratzeko arduradunak, berariazko plan bat idatziko du, deklarazio horretan agertzen diren desorekak zuzentzeko behar diren neurriak bilduko dituena, bai eta garapenerako egutegi bat ere, erreferentziako hiru urteko aldirako”.

98. artikulua. Etxebizitza-merkatuaren tentsiopeko guneetan prezioei eustea.

1. Tentsiopeko etxebizitza-merkatuaren zonalde deklaratzeko lurralde eremuetan kokatzen diren etxebizitzaren errentamendu-kontratuak, aipatu deklarazioa egin aurretik hitzartu baziren, kontratu berriaren hasieran adosturiko errenta bakarrik handitu ahalko da, aurreko kontratuaren errenta urteko eguneratzeko klausula aplikatzen datorrenetik harago, gehienez ere ehuneko 10,

gutxira, indarra zuzen azken errentaren gainean ondoko kasu hauetan:

a) Etxebizitza zaharberritzeko jarduketaren baten xede izan bada Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren Erregelamendua onetsi zuen maiatzaren 24ko 174/1999 Foru Dekretuaren 40. artikuluen 8. apartatuan aurreikusten den moduan eta jarduketaren amaitu bada errentamendu-kontratu berria egin den egunaren aurreko bi urteetan.

b) Errentamendu-kontratu berria egin den egunaren aurreko bi urteetan etxebizitza zaharberritzeko edo hobetzeko jarduketak amaitu badira, non egiaztatu den energia primario ez-berritzagariaren ehuneko 30eko aurrezpen bat, etxebizitzaren energia-efizientziaren bi ziurtagiri bidez, bata jarduketaren ondoko eta bestea aurrekoa eta aipatu jarduketaren eguna baino bi urte lehenago erregistratuta, gehienez ere.

c) Errentamendu-kontratu berria egin den egunaren aurreko bi urteetan irisgarritasuna hobetzeko jarduketak amaitu badira, behar bezala egiaztatuta.

d) Errentamendu-kontratuaren hamar urte edo gehiagoko aldirako sinatu bada, edo bestela, luzatzeko eskubide bat ezarri bada, errentariak borondatez erabili ahalko duena kontratua aukeratu luzatzeko modu eta baldintza berberekin, hamar urte edo gehiagoko aldirako.

Eta hori guztia aipatu deklarazioa indarrean dagoen denbora gutzian.

2. Aurreko apartatuan xedatutakoa ezertan ukatu gabe, tentsiopeko etxebizitza-merkatuaren zonalde deklaratzeko lurralde eremuetan dauden etxebizitzaren errentamendu-kontratuak, errentatzailea edukitzaile handia den pertsona juridikoa bada, edukitzaile handi gisa ulertuta hamar etxebizitza edo gehiagoren jabe edo gozamenaren pertsona fisiko edo juridiko oro, alokairu-kontratuaren hasieran adosturiko errentak ez du gaindituko alokairu jasangarritasunaren indizeen sistemari jarraikiz aplikatzeko den gehieneko muga. Eta hori guztia aipatu deklarazioa indarrean dagoen denbora gutzian.

3. Aurreko apartatuaren xedatutakoa aplikatzen sortzen diren errentak handitu ahalko dira kontratu bakoitzean aurreikusitako urteko eguneraketarako klausulei jarraikiz”.

Hogeita hamalau. Hirugarren xedapen gehigarriaren bigarren paragrafoa kentzen da. Testu hau izanen du:

“Hirugarren xedapen gehigarria. Ehunekoak, diru zenbatekoak eta epeak berrikustea.

Foru lege honen 17., 18., 20. eta 23. artikuluetan eta III. tituluko III. kapituluaren agertzen diren ehunekoak, diru zenbatekoak eta epeak erregelamendu bidez berrikusten ahalko dira, eskariaren bilakaera egiazatuari, gastu-aurrekontuaren egoerari, ondasun higiezinaren merkatuaren egoerari eta Etxebizitza Babestuaren Eskatzaileen Zentsuak emandako informazioari lotutako faktoreen arabera”.

Hogeita hamabost. Hamaseigarren xedapen gehigarriaren hirugarren puntua aldatzen da. Honako testu hau izanen du:

“3. Dirulaguntzak behin-behineko kalifikazioan aitortuko dira. Behin-behineko kalifikazioa izan ondoren, sustatzaileak edo elkarteak dirulaguntzaren %50eraino jaso ahalko du, onetsitako dirulaguntzaren zenbatekoa estaliko duen abala aurkeztu ondoren. Dirulaguntzaren gainerakoa behin betiko kalifikazioa lortu ondoren ordainduko da”.

Hogeita hamasei. Hogeita bigarren xedapen gehigarria gehitzen da, testu honekin:

“Hogeita bigarren xedapen gehigarria. Etxebizitza huts deklaraturiko etxebizitza babestuak esleitzea.

1. Administrazioaren ikus-onetsirako aurkezten diren etxebizitza babestu huts deklaratuaren salmenta-kontratuetan edo haien esleipenean, ez da beharrezkoa izan eskuratzailerak edo esleipen-hartzaileak frogatzen dezan Nafarroan etxebizitza izateko eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legeko 17 eta 18. artikuluetan etxebizitza babestuaren eskurapenerako ezartzen diren baldintza orokorrak bete izana, baldin eta eskuratzailerak edo esleipen-hartzaileak konprometitu bada etxebizitza hutsen alokairurako bitartekaritza publikoko programa edo Alokairu Poltsari lagatzera etxebizitza.

2. Aipatu konpromisoa eredu normalizatu baten arabera adierazita aurkeztea aurretiazko baldintza izan da kasuko salerosketa-kontratuaren ikus-onetsia egiteko.

3. Eskualdaketa formalizatzen den eskritura publikoaren egunetik kontatzen hasitako hilabeteko gehieneko epean, eskuratzailerak etxebizitzaren erabilera lagatzeko kontratua sinatu beharko du etxebizitza hutsak alokatzeko bitartekaritza-programa publikoa edo Alokairu Poltsa kudeatzen duen entitatearekin.

4. Etxebizitza babestu baten eskuratzailerak edo esleipen-hartzaileak, baldin pertsona fisiko nahiz juridiko izan eta etxebizitza lortzen badute xedapen gehigarri honek ezartzen duenaz baliatuta,

ezin izanen dute eskatu etxebizitza babestuaren sustapenerako aurreikusten den laguntza ekonomiko orokorrik.

5. Xedapen gehigarri honetan ezarritakoaren ondorioetarako, etxebizitza babestu huts gisa joko dira Etxebizitza Babestuaren Eskatzaileen Zentsua arautzen duen martxoaren 28ko 25/2011 Foru Dekretuaren 50. artikuluko 1. apartatuko a) eta b) letretan xedatutakoari jarraituz halakotzat deklaratuak izandakoak”.

Hogeita hamazazpi. Hogeita hirugarren xedapen gehigarria gehitzen da, testu honekin:

“Hogeita hirugarren xedapen gehigarria. Errentamenduko etxebizitza babestuen sustapenen babes-araubidearen iraupena, haien sustatzaileak Navarra de Suelo y Vivienda S.A. denean.

2022ko urtarrilaren 1ean Navarra de Suelo y Vivienda S.A. sozietate publikoaren jabetzakoak diren errentamendu-araubideko nahiz erosteko aukeradun errentamenduaren araubideko etxebizitza babestuen sustapenen babes-araubideak iraupen mugagabea izanen du”.

Hogeita hemezortzi. Hogeita laugarren xedapen gehigarria gehitzen da, testu honekin:

“Hogeita laugarren xedapen gehigarria. Kasu bereziak.

1. 2023ko urtarrilaren 1etik, eta dagokion erregelamenduaren garapena onesten ez den bitartean, dirulaguntza emanen da etxebizitza erabilia eskuratzeko 5.000 biztanle arteko udalerrietan, eta landa eremuko 20.000 biztanle arteko udalerrietan, bertako herrigune guztiak 5.000 biztanle artekoak badira, baldin eta eskuratzailerak guztiak 35 urtetik beheitikoak badira eta babes ofizialeko etxebizitza berria eskuratzeko dirulaguntzak eskuratzeko baldintza guztiak betetzen badituzte, salbu eta etxebizitza babestuko eskatzaileen erroldan alde aurretiazko inskripzioa egina izateari buruzkoa. Etxebizitzen eta eranskinen prezioak ez du gaudituko babes ofizialeko etxebizitza bigarren ez edo aldi gehiagotan eskualdatuta eskuratzeko ezarritako prezioa.

Eskuratutako etxebizitzak ohiko bizileku iraunkor gisa erabiliko dira eta aplikatutako zaizkie babes ofizialeko etxebizitzari aplikatutakoak diren baldintzak, azalerari, lotutako eranskinari eta gainerako ezaugarri bateragarri buruzkoak. Halaber, era horretan eskuratutako etxebizitzari aplikatutako zaizkie foru lege honen VI. tituluan biltzen diren xedapenak, horietan barne Nafarroako Gobernuaren alde lehentasunez eskuratzeko eskubide mugagabe bat ezartzeko betebeharra, modu eta baldintza berberetan.

Emandako dirulaguntzen baldintzak, zenbatekoak eta portzentajeak izanen dira babes ofizialeko etxebizitza berriak eskuratzeko dauden berberak. Salerosketa-kontratuaren alde aurreko ikus-onetsi administratiboa eskatuko da, eta dirulaguntza ordainduko da interesdunak alde aurretik eskatuta, hura eman eta gehienez ere 6 hilabeteko epean, etxebizitzaren eskuraketaren eskritura publikoa. Eskriturak bildu behar dituen bidezko lege-aipamenak administrazio ebazpenaren bidez onetsiko dira, halako moduan non, eskriturak bildu ezean, dirulaguntza ukatu eginen den.

2. Aurreko apartatuan ezarritakoari jarraikiz dirulaguntzak ematea baimenduko da, eskuratzailen adina edo etxebizitza dagoen udalerria edozein dela ere, babes ofizialeko etxebizitzak, errentamenduaren edo erosketa-aukeradun errentamenduaren kalifikazioarekin eta haien babes araubidea amaitu denean, indarra duen errentamendu babestuaren azken kontratuaren titularrek eskuratzen badituzte.

3. Aurreko bi apartatuei jarraikiz eskuratu eta diruz lagundutako etxebizitzei aplikatuko zaie foru lege honen bosgarren artikuluan jasotzen den laguntza ekonomikoaren xede den jarduketa babesgarri orori aplikatu beharreko denborazko baldintza, baina aipatzen den 5 urteko aldia kontatzen hasiko da etxebizitza erosteko eskritura publikoa ematen den egunetik”.

Hogeita hemeretzi. Hogeita bosgarren xedapen gehigarria gehitzen da, eta testu hau izanen du:

“Hogeita bosgarren xedapen gehigarria. Administrazio publikoen alokairuko araubideko etxebizitzaren portzentajea.

1. Nafarroako Gobernuak eta toki entitateek etxebizitza arloan dauden baliabideak bideratuko dituzte, lehentasunez, alokairuko araubideko etxebizitzak sustatzera, kolektibo ahulenei eskain dakizkien. Lehentasun horren arabera, salbu eta zaharberritzera bideratzen direnak, etxebizitza arloan dauden baliabideen % 75, gutxienez ere, alokairuko politiketara bideratuko dira.

2. Aurreko apartatuko portzentajetik heren bat egiteraino erabili ahalko da erosteko aukera duen alokairuko araubidean.

3. Behin zehaztuta agindu hau betetzeko erabiliko diren lurzatiak, horiek ezarri zaien betebeharra mantenduko dute, hirugarrenei eskualdatzen bazaizkie ere”.

Berrogei. Hogeita seigarren xedapen gehigarria gehitzen da, testu honekin:

“Hogeita seigarren xedapen gehigarria. Nafarroako gizartearen zerbitzuko elkarlaneko etxebizitzak eta tutoretzapeko apartamentuak arautu, sustatu eta eraikitzeke plana.

Foru lege hau onetsi eta urtebeteko epean, erregelamendu bidez legezko baldintzak ezarriko dira, elkarlaneko etxebizitzak sustatu eta eraikitzeke erabilera lagapenean edo ekimen publikoan, etxebizitzetarako edo ekipamendurako lurzoruetan. Aipatu erregelamendua, hedapen- eta sustapen-plan batekin batera, Nafarroako parlamentuari igorriko zaio, onetsia izan dadin. Planean sartuko dira bai zahartze aktibora eta adindunen arteko eta adindunendako zaintzara bideratutako zahar egoitzak, bai eta gizartera, oro har, bideratutako elkarlaneko etxebizitzak, etxebizitzaren eredu klasikoaren aukerako konponbide gisa”.

Berrogeita bat. Hogeita zazpigarren xedapen gehigarria gehitzen da, testu honekin:

“Hogeita zazpigarren xedapen gehigarria. Etxebizitzak kudeaketa publikoko alokairu poltsetarako lagatzearen sustapena

Desgaitasuna duten pertsonendako egoitzetan egotearen zerbitzuak erabiltzen dituztenen ahalmen ekonomikoa kalkulatzeko, zerbitzuari ekarpena egitearen ondorioetarako, ez da kontuan hartuko ondasun higiezinaren kapitalaren etekina, haien ohiko etxebizitza zen higiezinaren alokairu prezioa denean, baldin eta laga bada Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak bultzatutako alokairu poltsetan edo etxebizitza hutsen alokairurako programetan sartzeko”.

Berrogeita bi. Hogeita zortzigarren xedapen gehigarria gehitzen da, testu honekin:

“Hogeita zortzigarren xedapen gehigarria. Toki entitateen eta sustatzaile publikoen jabetzakoak diren etxebizitzak alokatuak izateko zaharberritze-obrak diruz laguntzea.

Nafarroako Gobernuak, etxebizitza-arloan eskudun den departamentuaren bitartez, zilegi izanen du zaharberritze-obren kostuaren % 75eko dirulaguntza bat ematea, gehienez ere 60.000 eurokoa izanen dena zaharberritu edo sortutako etxebizitza bakoitzeko, beharrezkotzat jotzen dena:

Toki entitateen jabetzakoak diren etxebizitzetara haiek alokatu ahal izateko egoki diren baldintzak emateko. Toki entitateak, behin-behineko kalifikazioa eskatzen den unean, frogatu beharko du

etxebizitzak azkeneko urtean ez direla errentamendurako edo lagapenerako izan.

Toki entitateen edo sustatzaile publikoen jabetzakoak diren lokalen erabilera aldatu eta etxebizitza izan daitezen, posible eginez bizigarritasun-zedula lortzea, aurretiaz betetzen badira hirigintzako araudia eta bizigarritasun-baldintzak, martxoaren 22ko 142/2004 Foru Dekretuaren, Nafarroako Foru Komunitateko etxebizitzetan bizi ahal izateko gutxieneko baldintzak arautzen dituenaren, II. eranskinean jasotakoak.

Zaharberritutako edo sortutako etxebizitzak errentamendu-araubidekoak beharko dira izan, behin betiko zaharberritze-kalifikazioaren edo kasuko bizigarritasun-zedula lortzearen ondoko 15 urteetan zehar. Dirulaguntza jasotzeko, errentamendu berrien kontratuak aurkeztu beharko dira, data horietatik aurrera urtebete igaro baino lehenago. Etxebizitzaren araubidea aldatu egiten bada, jasotako dirulaguntzaren parte proportzionala itzuli beharko da, 15 urteko epea amaitu arte gelditzen den denboraren arabera.

Apartatu hau osorik aldatu ahalko da erregelamenduaren bidez eta aldiari behin berrikusi eta eguneratu ahalko dira, etxebizitza arloan eskumena duen departamentuko titularraren foru agindua- ren bidez, bertan ezarritako zenbatekoak eta portzentajeak”.

Berrogeita hiru. Hamalagarren xedapen iragankorraren 4. apartatua aldatzen da. Testu hau izanen du:

“4. Lehendik dagoen Eraikinaren Liburuaren edukia erregelamendu bidez arautuko da. Erregelamendu hori onetsi bitartean, Lehendik dagoen Eraikinaren Liburuaren gutxieneko edukia izanen da Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planean sartutako etxebizitzaren birgaitzearen arloko laguntza-programari buruzko urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuaren I. eranskinean ezarritakoa, ondoko berezitasunekin:

Eraikinen Ebaluazio Txostena arautzen duen azaroaren 12ko 108/2014 Foru Dekretuak ezarritakoari jarraikiz Nafarroako Eraikinak Ebaluatzeko Erregistro Orokorrean inskribaturiko Eraikinen Ebaluazio Txostena Lehendik dagoen Eraikinaren Liburuaren zati izanen da.

Eraikinaren prestazioak hobetzeko aukeraren azterketan beharrezkoa izanen da eraikina digitalizatzeko eta monitorizatzeko aukerei buruzko txosten diagnostiko bat jasotzea, bai eta eraikinaren jasangarritasunari eta bizitza-zikloari buruzkoa ere.

Eraikina zaharberritzeko jarduketa planean derrigorrez jaso beharko dira eraikinak B motako kalifikazio energetikoa lortzea ahalbidetuko duten neurriak, betiere eraikinak kalifikazio energetiko apalagoa duenean.

Lehendik dagoen Eraikinaren Liburuan jaso beharko da jabekideen erkidegoak Eraikinaren Liburua prestatu duten teknikariarekin edo teknikariarekin eginiko bileraren akta. Bilera hori Eraikinaren Liburua jaso eta hiru hilabeteko epean egin beharko da, eta bertan azalduko dira Liburuan jasotako ondorio eta proposamen nabarmenenak”.

Berrogeita lau. Hamazazpigarren xedapen iragankorra gehitzen da, testu honekin:

“Hamazazpigarren xedapen iragankorra. AJI-Alokairu Jasangarritasunaren Indizearen “j” koefizientea zehaztea.

Foru lege honek arautzen duen AJI-Alokairu Jasangarritasunaren Indizearen lehen “j” koefizientea zehaztuko da foru agindua baten bidez, indarra hartu eta hiru hilabeteko epean, gehienez ere”.

Berrogeita bost. Hemezortzigarren xedapen iragankorra gehitzen da, testu honekin:

“Hemezortzigarren xedapen iragankorra. Zaharberritze-bulegoen eredu berria.

Gehienez ere urtebeteko epean, azterlan-proposamen bat prestatuko da egungo zaharberritze-bulegoen eredu birmoldatzeko. Bulegoek eredu proaktiboa jasoko dute, jarduketa-eremuko komunitatean integratuta, komunitate horren berezko elementuekin partekatutako lidergoarekin eta jarraipen eta kudeaketa bereziki trinkoarekin 15. artikuluko etxebizitza-parkearen mapak behartu gisa edo larrialdiko zaharberritzearen premiadun gisa ezartzen dituen zonaldeetan, zaharberritzeko premia duten etxebizitza hutsen parkean edo zaharberritzea uztartu behar denean ondarearen babesari dagozkion elementuak mantentzearekin”.

Berrogeita sei. Hemeretzigarren xedapen iragankorra gehitzen da, testu honekin:

“Hemeretzigarren xedapen iragankorra. Etxebizitza babestuak horretarako erreserbatu gabeko lurzoruetan.

Foru lege hau onetsi eta hurrengo bost urteetan, erosteko aukerarik gabeko alokairu-araubideko etxebizitzaren sustapena egiten denean, etxebizitza horiek eraikiak egonik planeamenduak babes ofizialeko etxebizitzaren sustapenerako erreserbatu ez dituen lurzatietan, babes-araubidearen iraupea hamabost urtekoa izanen da gutxienez ere, haien behin betiko kalifikazioaren egunetik aurrera

zenbatuta. Babes-araubidea amaitu baino bi urte lehenago jakinarazpen espresu eta personalizatua egin beharko zaio etxebizitza horietan bizi den familia-unitate bakoitzari, xehetasunez azalduta ordutik aurrera izanen diren araubidea eta prezioak”.

Berrogeita zazpi. Hogeigarren xedapen iragan-korra gehitzen da, testu honekin:

“Hogeigarren xedapen iragan-korra. 97. eta 98. artikuluek indarra hartzea.

Foru lege honen 97. eta 98. artikuluetan xedatutakoak indarra hartuko du eragingarritasun juridiko osoa lortzen denean”.

Bigarren artikulua. 1/2017 Legegintzako Foru Dekretua aldatzea, uztailaren 26koa, zeinaren bidez onesten baita Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bate-gina.

Bat. 54. artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“1. Hirigintza-planeamenduak zenbait determinazio bildu beharko ditu, babes publikoko araubideren batekoak diren etxebizitzaren erreserbarako gutxieneko estandar hauek betetzen direla ziurtatzeko:

a) Iruñerriko udalerriz gaindiko planeamenduan sartuta dauden udalerrietan eta, planeamenduen aurreikuspenak kontuan harturik, 10.000 biztanleko edo gehiagoko populazioa daukaten udalerrietan: bizitegi-ahalmen berriaren % 50, halakotzat ulerturik sektore edo eremu baliokide bakoitzean aurreikusita dagoen etxebizitza-kopuruaren gorakada, aurreikusita dagoena urbanizatze berriko jardueretan, zuzkiduretarakoetan, ordeztzekoetan eta urbanizazioa berritzeko edo birmoldatzekoetan. Baldin eta etxebizitza-kopuruaren gorakada 3koa edo gutxiagokoa izanen balitz, udalek zilegi izanen lukete etxebizitza babestuaren gutxieneko estandarrari buruzko baldintza bigundu edo ezabatzea, Osoko Bilkuraren gehiengo soilez harturiko erabakiaren bitartez, ezertan galarazi gabe artikuluan honen 4.c) artikuluan xedatua betetzea.

Aurrekoa gorabehera, Iruñerriko udalez gaindiko planeamenduan sartuta dauden udalerrietan izan ezik, urbanizazio jarduketara bat objektiboki eginezina dela justifikatzen bada eta udal planaren behin betiko onespina Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zenetik gutxienez lau urte igaro baldin badira, udalek, osoko bilkuraren gehiengo soilez harturiko erabakiaren bitartez, eskatzen ahalko diote etxebizitzaren arloko eskumenak dituen departamentuari aurreko por-

zentajea bizitegi-ahalmen berriaren 100eko 30era arte murriztea. Departamentuak emanen duen txostenean eskaeran justifikaturiko eginezintasuna egiaztatuko da eta eskaera baietsi edo ezetsiko da. Baiesten bada, ehuneko berria ezarriko da, eginiko eginezintasun-azterketan oinarrituta.

b) Planeamenduen aurreikuspenak kontuan harturik 2.000 biztanleko edo gehiagoko eta 10.000 biztanle baino gutxiagoko populazioa daukaten udalerrietan: urbanizatze berriko jardueretan, zuzkiduretarakoan eta urbanizazioa berritzeko edo birmoldatzekoetan aurreikusita dagoen bizitegi-ahalmen berriaren % 35. Baldin eta etxebizitza-kopuruaren gorakada 10ekoa edo gutxiagokoa izanen balitz, udalek zilegi izanen lukete etxebizitza babestuaren gutxieneko estandarrari buruzko baldintza bigundu edo ezabatzea, Osoko Bilkuraren gehiengo soilez harturiko erabakiaren bitartez.

Aurrekoa gorabehera, urbanizazio jarduketara bat objektiboki eginezina dela justifikatzen bada eta udal planaren behin betiko onespina Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zenetik gutxienez lau urte igaro baldin badira, udalek, osoko bilkuraren gehiengo soilez harturiko erabakiaren bitartez, eskatzen ahalko diote etxebizitzaren arloko eskumenak dituen departamentuari aurreko portzentajea bizitegi-ahalmen berriaren 100eko 10era arte murriztea. Departamentuak emanen duen txostenean eskaeran justifikaturiko eginezintasuna egiaztatuko da eta eskaera baietsi edo ezetsiko da. Baiesten bada, ehuneko berria ezarriko da, eginiko eginezintasun-azterketan oinarrituta.

c) Planeamenduen aurreikuspenak kontuan harturik 2.000 biztanle baino gutxiagoko populazioa daukaten udalerrietan: urbanizatze berriko jardueretan eta urbanizazioa berritzeko edo birmoldatzekoetan aurreikusita dagoen bizitegi-ahalmen berriaren % 20. Baldin eta etxebizitza-kopuruaren gorakada 25ekoa edo gutxiagokoa izanen balitz, udalek zilegi izanen lukete etxebizitza babestuaren gutxieneko estandarrari buruzko baldintza bigundu edo ezabatzea, Osoko Bilkuraren gehiengo soilez harturiko erabakiaren bitartez.

2. Etxebizitza-kopuruaren gorakada kalkulatu da kontuan harturik aurreikusitako antolamendu berriak ezarritako zenbakiaren eta lurralde- edo hirigintza-planeamenduak aurretiaz ezarritakoaren arteko aldea. Eraikinak ordeztzeko jarduketetan, lehendik zegoen hirigintza-erabilera mantenduta ere, etxebizitza kopuruaren gorakada kalkulatu da kontuan harturik emandako bizigarritasun-zedula berrien eta lehenago zirenen arteko aldea.

3. Etxebizitza babestuaren gutxieneko estandarra betetzeari dagokionez, eskualde edo banaketa-eremu berean bermatu beharko da. Hori egingarria edo gomendagarria ez bada, gizarte eta hirigintza arloko arrazoiengatik, bermatu ahal da beste eskualde, banaketa-eremu edo exekuzio unitateetan, betiere portzentaje hori bermatzen duten determinazioak onesten badira etxebizitza librearen portzentajea onetsi baino lehen edo aldi berean eta justifikazio nahikorik bada. Horretarako, beharrezkoa izanen da honako hauek aurreikustea, gutxienez: sektoreen zedarrizteari dagokiona, gehieneko etxebizitza kopurua, ereduzko aprobetxamendua, tipologia bakoitzari esleitutako aprobetxamendua eta homogeneizazio-koefizienteak. Gainera, Nafarroako Gobernuko departamentu eskudunak zilegi du etxebizitza babestuaren antolamenduaren bideragarritasun ekonomikoari buruzko azterketa edo analisi bat eskatzea, hura onesteko aurretiazko baldintza gisa.

Bizitegi-erabilera horien finkapena zehaztu beharko da antolamendu egiturazaitetik eratorritako sektorizazioan, eta gutxieneko gisa mantendu da udal planeamenduaren geroagoko aldaketa eta berrikuspenetan. Lurzoruaren antolamendu xehatua ezarriko duen planeamenduak edo hirigintza-kudeaketako tresnek kasu bakoitzean finkatuko dute zein diren bizitegi-erabilera horiei atxikitzen zaizkien lurzati zehatzak.

4. Etxebizitza babestuz aurreko artikuluek aipatzen duten gutxieneko estandarren barnebanaketa egitean:

a) Gutxienez ere etxebizitza guztien % 60ek babes ofizialekoak beharko dute izan, salbu eta etxebizitza-kopurua 3koa edo gutxiagokoa bada, orduan % 100ek babes ofizialekoak izan beharko baitute.

b) Halaber, artikuluko honen 1.a) eta 1.b) apartuetan aipaturiko udalerrietan, noiz eta suertatzen den babes ofizialeko etxebizitzaren kopurua 10ekoa edo gehiagokoa baita, horren % 30, gutxienez ere, errentamendu-araubideko etxebizitzak izatera bideratuko da.

c) Zuzkidura- eta ordezte-jarduketetan, eraikin bateko etxebizitza gehienek etxebizitza babestu kalifikazioa izanik eraikin horietan eginiko etxebizitza berriak nahitaez izan beharko dira etxebizitza babestuak, eraikineko etxebizitza gehienek mota berekoak, eta horrela iraun beharko dute lehena-gotiko etxebizitza gehienei salmenta-prezioaren eta errentaren muga aplikatzeko zaien denboran zehar”.

Bj. 231.2.c) artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“c) Beste administrazio publiko, erakunde publiko, ente instrumentale edo sozietate publiko batzuei lagapenean emanez, eta are dohainik ere eta denbora mugagabe, babestutako etxebizitzak egiteko, ekipamendu komunitarioa edo erabilera publikoko nahiz gizarte intereseko instalazioak eraikitze”.

Hiru. 239. artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“239. artikulua. Azalera-eskubidea.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, toki entitateek, erakunde publikoek, ente instrumentalek eta sozietate publikoek azalera-eskubidea eratzen ahal dute beren jabetzakoak diren lurretan, lagapen bidez eskuratutakoak barne, edo lurzoruaren ondare publikoa osatzen dutenetan, babes publikoko araubideren bati loturiko etxebizitzak eraikitze edo gizarte intereseko beste erabilera batzuetarako. Eskubide hori azalera-hartzailearena izanen da”.

Lau. 240.3 artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“3. Epea bete dela-eta azalera-eskubidea iraungitzen denean, lurzoruaren jabe den entitatea eraikitakoaren jabe egingen da, eta ez du inolako kalte-ordainik pagatu beharko, eskubide hura eratzeko erabilitako titulua edozein delarik ere”.

Bost. Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bateginari zazpigarren xedapen iragankorra gehitzen zaio, eta testu hau izanen du:

“Zazpigarren xedapen iragankorra. Hasiera batez onetsitako tresnak 54. artikuluko determinazioetara egokitzea.

Foru lege honek indarra hartzen duen egunean hasierako onespina duten lurralde antolamenduko eta hirigintza-planeamenduko tresnek beren izapidetzearekin segitu ahal dute bertan jasotzen diren determinazioei jarraituz. Horretarako, zilegi izanen dute hasiera batez onetsitako tresna egokitzea Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bateginako 54. artikuluan jasotako determinazioetara, babes publikoko araubideren bati loturiko etxebizitzaren erreserbarako gutxieneko estandarrek betetze aldera. Egokitzen horretarako, ez da beharrezkoa izanen parte-hartze izapide berririk, ez eta jendaurrean paratu eta entzutea ematekorik ere”.

Hirugarren artikulua. Zahar-etxeetako egonaldiak finantzatzeko erabiltzaileek ordaindu beharrekoa arautzen duen abenduaren 29ko 17/2000 Foru Legearen aldaketa.

Bat. 2. artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“2. artikulua. Ordaintzera derrigortutako pertsonen ahalmen ekonomikoa ezartzea.

Foru lege honen ondorioetarako, balorazio-elementu hauen arabera kalkulatu da ahalmen ekonomikoa: Errenta, ondarea eta familia unitatearen pertsonen kopurua.

Errentatzat jotzen dira familia unitatearen diru-sarrerara guztiak, ondoko hauetatik ateratzen direnak:

Lan etekinak, barne izanik aurreikuspen sozialeko prestazioak eta pentsioak, zein den ere haien araubidea.

Ondasun higigarrien nahiz higiezinaren kapitalaren etekinak. Ondasun higiezinaren kapitalaren etekinaren kontaketa ez da sartuko zaharrentzako egoitzetan dauden pertsonen ohiko etxebizitza den higiezinaren alokairu prezioa, baldin eta laga bazuten Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak bultzatutako alokairu poltsetan edo etxebizitza hutsen alokairurako programetan sartzeko.

Enpresa nahiz lanbide jardueren etekinak.

Ondareztat hartzen da erabiltzailearen kapital higigarri eta higiezin osoa, hala kostu bidezkoa nola dohainekoa, baloratu izan dena mendekotasun egoera aitortzeko eskaera aurkeztu aurreko bost urteetan, gezurrezko pobretze guztiak baztertuz. Ondarearen balioespena egiteko, ondarearen gaineko zergarako ezarritako arauak hartuko dira kontuan.

Kapital higigarriak honako hauek biltzen ditu: kontu korronteko eta eperako gordailuak, inbertsio funtsak eta pentsio funtsak, higigarrien baloreak, bizi-asegurua eta aldi baterako edo biziarteko errentak, arte-lanak, antzinako gauzak, ibilgailuak, bitxiak eta bestelako gauzaki balioetsuak.

Kapital higiezinatzat hartuko dira landa nahiz hiri ondasun higiezinak.

Familia-unitateztat hartzen da pertsona fisikoaren errentaren gaineko zerga arautzen duen araudian definitutako hura.

Ahalmen ekonomikoari buruzko datuak ezkutatzuz gero edo datu faltsuak emanez gero zerbitzua aldi baterako edo betiko eten ahal izanen da.

Era berean, adineko pertsonen arloan eskumena duen erakundeak atzematen badu hirugarren adinekoentzako egoitza zerbitzuen edo dirulaguntza baten eskatzailearen gezurrezko pobretzea gertatu dela, artikulua honetan xedatutakoaren ondorioetarako iruzurra egin nahian, iruzur hori noiz egin zen gorabehera, zerbitzua edo dirulaguntza ukatu ahal izanen da edo aldi baterako zein behin betiko kendu”.

Bi. 17. artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“17. artikulua. Zorra eskatzea.

Edozein arrazoi dela medio zerbitzua emateari utzi eta orduan eskatu ahaliko zaie zorra zor bateratua duten erabiltzaileei, edo, baita ere, zorrak bermeak gainditzen dituenen.

Ordaindu gabeko zorra zuzenbide publikoko diru-sarreratzat hartuko da, eta dirubilketarako ezarritako prozedura orokorren bidez eskatuko, premiamendu bidea barne.

Aurreko apartatuen arabera, erabiltzailearen ondarearen bidez betearazi behar bada zorra, betearazte hori ez da etxebizitzaren bidez eginen, baldin eta etxebizitza hori norberak beharrezkoa badu bizitzeko zahar-etxea utzi duelako.

Betearaztea, orobat, eten eginen da, baldin eta honako hauen bizitoki bakarra bada: ezkontidearena edo harekin elkarbizitza egonkoraren bidezko lotura duenarena, seme-alaba adingabeena, minusbalioetuen edo baliabide sozio-ekonomikorik ez dutenena, edota beste norbaitena –pertsona horien beharra eskubide sozialen arloko erakunde eskudunak aztertu beharko du–; eta halaber etxebizitza laga denean Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak bultzatutako alokairu poltsetan edo etxebizitza hutsen alokairurako programetan sartzeko.

Eten hori, hala ere, ez da eragozpen izanen etxebizitza bahitzeko”.

Laugarren artikulua. Aldatzen da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bategina, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia.

25. artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du aurrerantzean, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin:

“1. Etekin osoei ondoko gastu hauen zenbatekoa gutxitu ondoren aterako da kapital higiezinaren etekin garbia:

a) Horiek erdiesteko egindako gastuak. Aipatutako ondasun edo eskubideak erosi edo hobe-

tzeko inbertitutako besteren kapitalen interesengatik eta gainerako finantzaketa gastuengatik kendu beharreko zenbateko osoa, baita higiezina konpondu eta mantentzeko gastuengatikoa ere, ez da izanen, ondasun edo eskubide bakoitzean, ondasun higiezina edo eskubidea lagatzeagatik lortutako etekin osoak baino handiagoa. Soberakinaren kenkaria hurrengo lau urteetan egiten ahalko da, letra honetan ezarritakoarekin bat. Soberakin hori zergaldiko gastuekin batera gertatzen bada, gastuak aplikatuko dira lehendabizi.

b) Ondasun higiezina eta berekin batera lagatuko gainerako ondasunen amortizaziorako zenbatekoak, erregelamendu bidez ezarriko diren baldintzetan.

Erabili edo gozatzeko eskubide edo ahalmen baten titulartasunetik heldu diren etekinen kasuan, kengarria izanen da, balio-galeraren kontzeptuarengatik eta etekin osoen mugaren barrenean, ordaindutako eskuratze kostuaren zati proportzionala, erregelamendu bidez ezarriko diren baldintzetan.

2. Aurreko apartatuan xedatutakoaren arabera kalkulaturako etekin garbi positibotik honela murriztuko da:

100eko 60, etxebizitzatarako erabiltzen diren etxebizitzaren errentamendutik ateratzen denean, errentamendu hori arau hauetan jasotako sozietate publiko instrumentalaren bitartez egina bada: Nafarroan Etxebizitza izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legearen 13. artikulua, eta Etxebizitzaren arloko jarduketa babesgarriak arautzen dituen irailaren 18ko 61/2013 Foru Dekretuaren 77. artikulua.

100eko 40, errentamenduaren xede den etxebizitzaren urteko alokairuaren zenbatekoa AJI-Alokairu Jasangarritasunaren Indizearen balioa baino handiagoan ez bada, eta kontratua behar bezala erregistratu bada foru lege honen 90. artikuluan aurreikusten den Nafarroako Etxebizitza Erregistroan.

Subjektu pasiboak aitortutako etekinetan soil-soilik aplikatuko da murriztapena.

3. Behin, kasua bada, aurreko apartatuko murrizketa aplikatu ondoren, errendimendu garbi positiboak lortu badira bi urte baino gehiagoko aldi batean edo, erregelamenduz ezarritakoaren arabera, modu irregular nabarmenez denborari dagokionez, errendimendu horiek % 30 murriztuko dira. Murrizketa hori aplikatu ahal izateko, etekin osoak 300.000 eurokoak izanen dira gehienez. Hortik gorako soberakinari ez zaio inolako murrizketarik

aplikatuko. Murrizketa hori ez da inolaz ere aplikatuko etekinak zatika kobratzen badira”.

Lehen xedapen iragankorra. Babes-araubidearen iraupenaren aplikazio-eguna.

Nafarroan etxebizitza izateko eskubideari buruzko 10/2010 Foru Legearen, maiatzaren 10ekoaren, 43. artikulua aldaketa, foru lege honen lehen artikuluan ezarria, aplikatuko zaie etxebizitza babestuari buruzko espedientei, baldin eta haien behin-behineko kalifikaziorako eskabidea foru lege honek indarra hartu eta gerokoa bada.

Bigarren xedapen iragankorra. Gehieneko eskatzaile-kopurua Etxebizitza Babestuaren Eskatzaileen Zentsuko eskabide bakoitzeko.

Ofizios baztertuak izanen dira, iragarki-ohol elektronikoan argitaratuak izan eta gero, foru lege honek indarra hartzen duenetik sei hilabete igaro ondoren hiru eskatzaile edo gehiago dauzkaten eskabideak, Etxebizitza Babestuaren Eskatzaileen Zentsuan aurkeztuak.

Hirugarren xedapen iragankorra. Etxebizitza Babestuaren Eskatzaileen Zentsuaren bitartez etxebizitzak esleitzeko baremo berriaren aplikazio-eguna.

Foru lege honek jasotzen duen baremoa etxebizitza babestuak esleitzeko prozedurei aplikatuko zaie 2022ko abenduaren 1etik aurrera hasiak baldin badira.

Laugarren xedapen iragankorra. Nafarroako Etxebizitza Errentamenduko Kontratuen Erregistroa abian jartzea eta indarreko errentamendu-kontratuak inskribatzeko betebeharra.

Foru lege honek indarra hartzen duenetik bederatzi hilabeteko gehieneko epean jarriko da abian eta izanen da posible kontratuak inskribatzea Nafarroako Etxebizitza Errentamenduko Kontratuen Erregistroan. Abiarazte-data etxebizitza-alorraren gaineko eskumena duen zuzendari nagusiaren ebazpen baten bidez onetsiko da, eta efektuak sortuko ditu ebazpen hori Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik aurrera. Argitaratze horrek hiru hilabeteko gehieneko epea irekiko du, data horretan indarrean dauden errentamendu-kontratuak inskribatzeko.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Arau-indargabetzea.

Indargabetu egiten dira foru lege honetan xedatutakoari aurka egiten dioten maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.

Azken xedapenetako lehenengoa. Nafarroako Gobernuak gaitzea testu bategin bat prestatzeko.

Nafarroako Gobernuari baimena ematen zaio testu bategin bat onetsi dezan foru lege honek indarra hartu eta hogeita lau hilabeteko epean, jasoko dituen, behar bezala erregularizatuak, argituak eta harmonizatuak, maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea, Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzkoa, eta jarraian zerrendatzen diren gainerako arauak, bai eta haiek aldatzeko onetsi diren lege-mailako arauak ere eta, haien esparru materialari eraginik, kasua bada Nafarroako Gobernuak testu bategina onetsi aurretik onesten direnak, baldin aurreikuspen hori jasotzen badute:

– Hirigintzaren eta etxebizitzaren arloan presako neurriak hartzeko ekainaren 5eko 6/2009 Foru Legearen 11. artikulutik 17.era bitartekoak eta lau garren xedapen gehigarria.

– Nafarroako 2012rako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 19/2011 Foru Legearen hogeita hamahirugarren xedapen gehigarria.

– 24/2013 Foru Legea, uztailaren 2koa, Nafarroan etxebizitzarako eskubidea ziurtatzeko neurri urgenteei buruzkoa.

– Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk ezartzen dituen abenduaren 28ko 38/2013 Foru Legearen azken xedapenetan bigarrena.

– 27/2014 Foru Legea, abenduaren 24koa, Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea aldatu, etxebizitza arloko jarduketara babesgarriari aplikatu beharreko moduluak ezarri eta Nafarroako Etxebizitzen Erregistro Orokorra sortzen duena.

– 22/2016 Foru Legea, abenduaren 2koa, zeinaren bidez herritarrentzako laguntza-neurriak ezartzen baitira etxebizitzaren alorrean.

– Nafarroako 2018rako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 20/2017 Foru Legeko hogeita seigarren eta hogeita bederatzigarren xedapen gehigarriak.

– 28/2018 Foru Legea, abenduaren 26koa, Etxebizitzarako eskubide subjektiboa aitortzen duena.

– 2020. urterako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko martxoaren 4ko 5/2020 Foru Legearen azken xedapenetatik hirugarrena.

– 7/2020 Foru Legea, apirilaren 6koa, premiazko neurriak onesten dituen koronabirusaren (COVID-19) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko.

– 5/2020 Foru Lege-dekretua, maiatzaren 20koa, premiazko neurriak onesten dituen koronabirusaren (COVID-19) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko.

Azken xedapenetako bigarrena. Erregelamendu-gaikuntza.

Baimena ematen zaie Nafarroako Gobernuari eta etxebizitzaren arloko eskumena duen kontseilariari foru lege hau aplikatu eta garatzeko beharrezkoak diren erregelamenduzko xedapen guztiak eman ditzaten.

Azken xedapenetako hirugarrena. Indarrean sartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta 15 egun igarotakoan hartuko du indarra.

Foru Legea, zeinaren bidez aldatzen baita 16/2006 Foru Legea, abenduaren 14koa, Jokoari buruzkoa.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2022ko ekainaren 23an egindako Osoko Bilkuran, Jokoari buruzko abenduaren 14ko 16/2006 Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2022ko ekainaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru Legea, zeinaren bidez aldatzen baita 16/2006 Foru Legea, abenduaren 14koa, Jokoari buruzkoa

HITZAURREA

I

Joko-jarduerak arautzeko eskumena Estatuaren eta autonomia erkidegoen artean dago banatuta. Batetik, Estatuaren eskumena eskusiboa da estatu-eremu batean egiten denean jarduera, presentziala denean nahiz bide elektronikoa, informatikoa, telematikoa eta interaktiboa erabiliz egiten denean. Bestetik, autonomia erkidegoek gai honen gaineko eskumenak har ditzakete jokoaren beren lurralde-esparru zorrotzera mugaturik egiten denean, zein ere den joko-egikera.

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 44. artikulua Nafarroako Foru Komunitateari esleitu zion kasino, joko eta apustuaren arloko eskumen eskusiboa, Kirol Ongintzako Elkarrekiko Apustuak salbuetsita. Xedapen hori mamitu zen urtarrilaren 24ko 226/1986 Errege Dekretuan, zeinaren bidez eskualdatu baitziren aipatu eskumenak. Arau horren indarrez, Nafarroari dagokio baimena ematea, besteak beste, kasinoen, bingo-aretoen, joko-aretoen eta apustudenden instalazio, irekitze eta funtzionamendurako, bai eta jolas-makinak nahiz zorizko jokoetarako makinak ustiatzeko ere, Foru Komunitatearen esparruan.

Nabarmendu beharrekoa da foru lege honetan ez dela jasotzen loterien estatu-erreserbako jokoak, lokalei edo gailuei dagokiena, horiek Jokoaren Araubideari buruzko maiatzaren 27ko 13/2011 Legean araututa egonik. Izan ere, Nafarroako Foru Komunitateak ez du gai horretan eskumenik.

II

Nafarroaren eskumena erabiliz, garai batean Nafarroako Jokoari eta Apustuei buruzko ekainaren 27ko 11/1989 Foru Legeak –jada indargabetuta dago– eta gaur egun Nafarroako Jokoari buruzko abenduaren 14ko 16/2006 Foru Legeak joko-jarduera arautu dute hura enpresa-jardueratzat harturik, eta, aldi berean, gizarteko sektore kalteberenen eskubideak babesten saiatu dira, hau da, joko-jardueraren kontsumo gehiegizkoa eta itxuragabea dela-eta beren osasunean edo ekonomian kalte gehien jaso dezaketen sektoreen eskubideak.

Foru legedia garatzeko, Nafarroako Gobernuak arian-arian tankeratu du joko-sektorea osatzen duten jardueretako bakoitzaren berariazko araubidea, honako arau hauen bitartez:

– 73/2010 Foru Dekretua, azaroaren 15ekoa, Nafarroako Bingen Erregelamendua onesten duena.

– Abuztuaren 30eko 270/1999 Foru Dekretua, Joko Aretoen Erregelamendua onesten duena.

– 94/1991 Foru Dekretua, martxoaren 21ekoa, Rifa, Tonbola eta Zorizko Konbinazioen Arautegia onesten duena.

– 181/1990 Foru Dekretua, uztailaren 31koa, Joko Makinetarako Arautegia onesten duena.

– 74/1989 Foru Dekretua, martxoaren 30ekoa, Joko Makinak instalatzeko Baimenak arautzen dituena.

Kontuan hartu behar da zerrenda horretan ez dela agertzen 16/2011 Foru Dekretua, martxoaren 21ekoa, Nafarroako Apustuaren Erregelamendua onesten duena, arau hori baliogabetu egin baitzuen Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak, 2014ko urtarrilaren 23ko epaiaren bidez (Auzitegi Gorenak berretsia, 833/2014 zenbakiko errekurtsioan emandako 2016ko martxoaren 8ko epaiaren bidez), halako moldean non gaur den egunean bat bera baita joko-aretoak arautzen dituen araua eta apustu-denden gainekoa.

Halaber, Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilariaren ekainaren 23ko 98/2017 Foru Aginduaren bitartez, jokoaren eta ikuskizun publikoen alorreko Kontrol, Ikuskapen eta Zehapenerako I. Plan Orokorra onetsi zen. Plan horren 1. ardatzak (Jokoaren alorra)

badu adingabeekin eta beste kolektibo kaltebera batzuekin zerikusia duen jarduketa lerro bat, helburu nagusi duena eragoztekoa haiek jokoetan parte har dezaten eta ebaluatzea zenbateraino diren egokiak protokoloak, jarduketa arauak eta enpresek joko-lokaletarako sarbidea eta joko bera kontrolatzeko erabiltzen dituzten aplikazioak edo gailu teknologikoak.

Esan behar da, halaber, Jokoari buruzko abenduaren 14ko 16/2006 Foru Legea aldatzen duen apirilaren 10eko 18/2015 Foru Legeak behar diren murrizketa guztiak ezarri zituela jokoratze-modalitate guztietan. Horrela joko arduratsua bultzatzen da arlo horretan ere, aurrez aurreko jokoa rekin egiten zen bezala.

Estatu-esparruan, azaroaren 3ko 958/2020 Errege Dekretua onetsi da, joko-jardueren gaineko komunikazio komertzialei buruzkoa.

Errege dekretu hori Jokoa arautzen duen maiatzaren 27ko 13/2011 Legea osatzeko sortu zen. Izan ere, legearen xede nagusiak dira adikzio-jokabideei aurrea hartzea eta adingabeak zein beste talde kaltebera batzuk babestea, eta dekretuarenak, batetik, joko-jarduerak garatzeko gaitzen duten tituluak dituzten entitateei baldintzak ezartzea publizitate, babesletza nahiz sustapen jarduerak edo beren jarduerari buruzko bestelako komunikazio komertzialak garatu ahal izateko; eta, bestetik, joko arduratsu edo segurua sustatzeko eta kontsumitzaileak babesteko politika jakin batzuk garatzeko oinarri izan behar duten baldintzak ezartzea joko-jarduerak garatzeko gaitzen duten tituluak dituzten entitateei.

Horrek 13/2011 Legearen aplikazio-eremuko joko-jarduerak garatzen dituzten entitateei eragiten die –tartean direla loteria-jokoak merkaturatzeko izendatutako operadoreak–, eta edozein bitarteko edo euskarri erabiliz operadoreen joko-jarduerari buruzko komunikazio komertzialak zabaltzen dituzten pertsona fisiko, juridiko, pribatu edo publikoei, esaterako komunikazio elektronikoko edo ikus-entzunezkoaren zerbitzuen emaileei, informazioaren gizarteko zerbitzuen emaileei (afiliatuak, web-orriak eta sare sozialak barne) eta beste edozein komunikabideri. Halaber, aplikatzea litzateke komunikazio komertzialak prestatu, igorri edo hedatzearen tarteko faseetan parte hartzen duten entitateei, hala nola publizitate sarei, publizitate agentzietan edo bitartekaritza zerbitzuen emaileei. Komunikazio komertzialei dago kienez, salbuetsi egiten dira zozketen emanaldiak eta emaitzen hedapena. Baita operadoreek joko-jarduerak eskaintzeko erabiltzen dituzten web.es orri edo aplikazio mugikorretan bakarrik iragartzen diren joko-produktuak ere.

III

Nafarroako Gobernuak 2019ko urrian ekin zien Jokoari buruzko Foru Legea aldatzeko atariko lanei, funtsezko hiru arlo nagusi jorratuz: ludopatiaren prebentzioa, adingabeen eta kolektibo babesgabeen babesa, eta joko arduratsuen sustapena. Aldi berean, Nafarroako Parlamentuak lantalde bat eratu zuen Nafarroan apustu-etxeak nola arautu aztertzeko, eta horren txostena onetsi zen Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkuraren 2021eko ekainaren 10eko erabakiaren bidez. Bi erakunde lanetatik atera dira lege-testu honetan bildutako proposamenak.

Kezka sozial eta politikoaren iturri izan da kirol-apustuen eredu guztiek oso urte gutxitan izan duten hazkundera, bai eta horrelako jokoei zerikusia duten ludopatiaren gorakada ere, batez ere gazteek pairatzen dutena. Osasun publikoko arazotzat hartu izan da hori, eta, beraz, beharrezkoa da foru legean jasotako araudi indarduna egokitzea.

Alarma jo dute familiek, nerabe eta gazteekin lan egiten duten profesionalek, prebentzioaren arloan eta jokorekin –batez ere kirol-apustuekin– lotura patologikoa duten pertsonen laguntzen jarduten duten elkarteek, eta maila guztietako administrazio publikoetan nahiz entitate pribatuetan egindako azterlanek.

Nafarroako Foru Komunitatearen eremuan, kirol-apustuak nabarmen hazi dira. Establezimendu publikoetan jarrita dauden kirol-apustuetarako makinak nagusitzen ari zaizkie B motako makinei, halako moldez non bihurtzen ari baitira nafarrek diru gehien gastatzen duten joko-modalitatea.

Datu horiek guztiak erakusten dute kirol-apustuak izanzen direla etorkizun ez oso urrunean dirurik gehien erakarriko duen joko mota, orain arte izandako gorakadak bere bilakabideari eutsiz gero. Igoera horren berri ematen du Nafarroako apustu-makinen parkeak: 2018an 1.138 izateraino iritsi ziren, urtebete lehenago 981 izatetik. Aipatu kopuruak ia bikoiztu egiten du duela lau urte instalatuta zeuden 675 makinen kopurua. Kirol-apustuak hedatzen ziren bitartean, txanpon-makinen parkeak ia berdin jarraitu zuen 2019. urtean Nafarroan, aurreko ekitaldian baino 20 unitate gutxiagorekin eta guztira 1.945 makinarekin. Lau urte lehenago, berriz, 1.986 zeuden Foru Komunitatean.

Beraz, Nafarroako Foru Komunitateak kirol-apustuen arloan dituen eskumenak erabili nahi dira araudi berri honetan, behar diren mugak ezarri interes orokorra babesteko eta osasun publiko arazoei aurre hartu eta itzuri egiteko.

Adikzioaren arriskuak arintzeko neurriak ezarri nahi dira, irisgarritasuna gutxitu, esposizioa murriztu, babes faktoreei eragin hezkuntzaren bidez eta gizarte sentsibilizatuz, eta, azken batean, hezkuntza, familia, gizarte eta osasun esparruen arteko interakzioarako mekanismoak ezarri.

Horregatik guztiagatik, Jokoari buruzko abenduaren 14ko 16/2006 Foru Legea aldatzen da, lege-aldaketak eginez lokal eta makinaren araudian, irekitzeko eta ixteko ordutegietan, kontrolean, publizitatean eta babesletzan, helburu izanik adikzioaren arriskuak arintzea, irisgarritasuna gutxitzea, babes faktoreei eragitea hezkuntzaren bidez eta gizarte sentsibilizatuz, eta, azken batean, hezkuntza, familia, gizarte eta osasun esparruen arteko interakzioarako mekanismoak ezartzea.

Arauaren aldaketak tresna eraginkorra izan behar du jokoaren aurrean sektore kalteberenak babesteko, batez ere adingabeak, gazteak eta nerabeak, horiek zaintza edo babes berezia behar baitute. Horregatik, Administrazioaren esku-hartzeak xede izan behar du arriskua duten kolektiboak defendatzea merkatu irekiko eta lehia libreko ekonomiaren testuinguruan, arreta berezia jarritz haur eta gazteei, josteta-jarduera batek ez dituzan joko patologikora eraman.

Artikulu bakarra. Jokoari buruzko abenduaren 14ko 16/2006 Foru Legea aldatzea.

Jokoari buruzko abenduaren 14ko 16/2006 Foru Legeari aldaketa hauek egiten zaizkio:

Bat. Azken paragrafo bat gehitzen zaio 1. artikulua 1. apartatuari. Hona testua:

“Halaber, foru lege honek behar diren mekanismoak ezartzen ditu, Nafarroako Foru Komunitatearen eremuan mota guztietako kirol-apustuen publizitatea debekatuko dutenak, bai eta apustuekin zerikusia duen edozein negozioren publizitatea ere, kirolarien jantzietan, instalazioetan, babesletzan edo antzekoetan. Debeku hori kirol kategoria guztietan ezarriko da, eta aplikatu ahal izateko baldintzak izanen dira dena delako entitateak egoitza soziala Nafarroan izatea eta kirol-txapelketa, -jarduera edo -saioaren eremua tokikoa, probintziakoa edo autonomi-erkidegokoa izatea”.

Bi. 2. artikulua a) letra aldatzen da. Hona testua:

“a) Hirugarrenei jasan ditzaketen kalteak saihestea, bereziki sektorerik ahulenei, hala nola adingabeei edo laguntzadun desgaituei”.

Hiru. Azken paragrafo bat gehitzen zaio 2. bis artikulua 1. apartatuari. Hona testua:

“Horretarako, Hezkuntza Departamentuak prebentzioaren arloko jarduketara programa berariazkoak ezarriko ditu ikastetxeetan ezar daitezkeen, eta lankidetzara hitzarmenak sinatzen ahalko dituz jokoarekin zerikusia duten patologia saihestea xede duten entitate eta elkarteekin”.

Lau. 2. bis artikulua 2. apartatua aldatzen da. Hona testua:

“2. Joko-antolatzaileek, beren jardunean aritzean, arreta berezia emanen diete arrisku-taldeeiei, eta joko-jarrera neurritsu eta arduratsua sustatuko dituzte, egoki diren informazio-neurrien bitartez, zeinetan zehatz adieraziko baita debeku dutela parte hartzea adingabeek eta zaugarriak diren bestelako kolektiboek, hala nola laguntzadun desgaituek, kasua bada”.

Bost. 2. ter artikulua berri bat gehitzen da. Honela geldituko litzateke idatzita:

“2. ter artikulua. Joko- eta apustu-enpresek ezarri beharrekoak diren joko problematiko eta patologikoen prebentzioarako neurriak.

1. Joko-enpresek eta joko- eta apustu-baimenen titular direnek neurri-plan bat prestatu behar dute jokoak pertsonengan sor litzakeen balizko efektu kaltegarriak samurtzeko, eta jokoen eta apustuen jardura gidatzen duten printzipioak jaso behar dituzte.

2. Kasu guztietan, Nafarroako Foru Komunitatearen lurralde-esparruan soilik jarduten duten joko- eta apustu-enpresek, bai eta joko-atari edo -webguneen titularrek ere, honako ekintzez arduratu behar dute:

a) Arrisku-taldeeiei behar bezalako arreta eman.

b) Beharrezkoa den informazioa eskaini, parte-hartzaileek modua izan dezaten hautaketa arduratsua bat egiteko. Halaber sustatuko da joko-jarduera eta horrekiko jarrera neurritsua eta arduratsua izan daitezela, ez konpultsiboak.

c) Jakinarazi parte hartzeko eta jokoratzeko zer debeku dauzkaten adingabeek eta debekudunek, hain zuzen Joko-antolamenduko Zuzendaritza Nagusikoa den Jokoratzeko Debekuen Erregistroan sartuta daudenek, eta debeku horiek bermatzeko beharrezkoak diren kontrolbideak ezartzea. Horretarako, afixa bat beharko dute paratuta eduki ikusteko moduko toki batean, lokalaren barruan bai eta kanpoan ere, adierazten duena adingabeek eta debekudunen erregistroan inskribatuta dauden pertsonen debeku dutela apustuetan parte hartzea.

d) Beren langileei prestakuntza-ikastaroak eman, joko arduratsuen jardunarekin eta joko

problematiko eta patologikoaren prebentzioarekin zerikusia dutenak.

e) Ikusteko moduko toki batean adierazi nora jo daitekeen ludopatia-problema bat edukiz gero.

3. Joko-jarduerak erantzukizun sozial korporatiboaren oharmenez egin behar dituzte joko- eta apustu-enpresek, enpresa-jardun ireki eta gardenen bitartez, oinarrituak balio etikoetan eta enplegatuekiko, parte-hartzaileekiko, gizarte osoarekiko eta ingurumenarekiko begirunean.

4. Joko-enpresek parte-hartzaileei aukera eskaini behar diete beren gordailuei beren borondatez mugak ezartzeko, orokortasunez ezarritako zenbatekoak baino gutxiagokoak.

5. Jokalariei edo erabiltzaileei buruzko trukean gauzatu litezkeen joko problematikoaren eta patologikoaren prebentziorako ekintzek errespetatu egin beharko dute datu pertsonalak babestearen eta eskubide digitalak bermatzearen alorreko araubidea. Erregelamenduz antolatuko dira trukea egiteko bitartekoak eta bideak, bai eta jokalariek modua izan dezaten dagozkien eskubideak egikaritzeko, araubide horren ildotik.

6. Joko-enpresek ez dute zilegi izanen jokalariei mailegurik ematea, ez eta beste edozein kreditu-motarik ere, ez eta haiei hobaririk, doako partidarik edo diru bihurtzeko moduko elementurik ematea edo kredituak edo maileguak lortzeko produktu finantzarioak iragartzetik ere”.

Sei. 10. artikulua aldatzen da. Honela geratuko litzateke idatzita:

“10 artikulua. Jokoen publizitatea.

1. Jokoari edo apustuei buruz eta jokatzeko edo apustuak egiteko lokal eta tokiei buruz publizitatea egiteko eta jarduera horiei babesa emateko, aurretik arlo horretan Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan eskumena duen departamentuari jakinarazi beharko zaio. Jakinarazpenean egin nahi den kanpainaren edo jardueraren datuak adierazi beharko dira, hasi baino hilabete bat lehenago gutxienez.

Publizitateak eta sustapenak betiere errespetatu beharko dute Haur eta nerabeei arreta eta babesa eman eta haien familiak, eskubideak eta berdintasuna sustatzeko Foru Legean xedatzen dena, bai eta hori garatzeko araudian ezarritakoa ere.

Administrazio eskudunak egiaztatu beharko du ezen, lege ezarritako printzipio, betebeharrak eta debekuak betetzeaz gainera, sustatzen direla joko-jarrera neurritsu, arduratsu eta ez-konpul-

tsiboak, eta, betiere, mezuen bidez ohartarazten dela adingabeek jokia debekatua dutela.

Kontuan hartu beharko dira, besteak beste, publizitatea emititzeko ordu-tarteak edo hedabideak, pertsona ospetsuak agertzearen debekua edo murriztapenak, eta babesletza- eta sustapen-jardueren erregulazioan joko-jarrera neurritsu eta ez-konpultsiboak sustatu beharra.

2. Ez da onartuko honelako komunikazio komertzialik:

Lehena. Joko-jardun burugabe, konpultsibo, itxuragabe, neurrigabe, adikziozko edo patologikoan aritzeko pizgarri direnak.

Bigarrena. Jokatzeko ez duten pertsonak arbuia eta jokatzeko dutenei gailentasun sozial halako bat ematen dietenak.

Hirugarrena. Joko-jarduerak lotzen dituztenak arrakasta pertsonal, familiar, sozial edo profesionala aditzera ematen duten ideia edo portaerekin.

Laugarrena. Joko bateko parte-hartzaileen-tzako maileguen edo beste edonolako kreditu-modalitatearen eskaintzak egiten dituztenak.

Bosgarrena. Jokoa alternatibatzat iradokitzen dutenak problema pertsonal, profesional, finantzario edo hezkuntzako, bakardadearen edo depresioaren aldean.

Seigarrena. Saridun izateko aukerari buruz tronparazten dutenak edo apustu-errepikapena iradokitzen dutenak.

3. Beti debeku izanen da:

a) Apustu-enpresak kirol-kluben babesle izatea; bereziki, debeku da haien publizitatea jartzea kirol-jantzietan eta elastikoetan, edo kirol-instalazio eta estadioetan.

b) Apustuen publizitatea jartzea Nafarroan egin eta osorik edo partez dirulaguntza publikoen bidez finantzatzen den edozein kirol-jardueratan.

c) Publizitatea jartzea zentro hauetatik 300 metrora baino hurbilago dauden euskarrietan: ikastetxeak, kiroldegiak, kultura, josteta edo osasun zentroak, edo joko-adikzioa, osasun mentaleko arazo larriak edo adimen-desgaitasuna duten pertsonen errehabilitaziorako lokalak.

d) Kirol-enpresen publizitatea jartzea administrazio publikoen egoitzetan, 18 urtetik beherakoentzako gunen publikoetan, osasun-zentroetan, gizarte-zentroetan, zentro-soziosanitarioetan, ikastetxeetan, zinema-aretoetan eta kirol-ekitaldiak egiten diren lokal eta instalazioetan.

e) Postaz, telefonoz edo bide telematikoez publizitatea egitea, eta, oro har, publizitatea etxera igortzea.

f) Publizitatea egitea Nafarroako egunkari, aldizkari edo bestelako informazio bideetan eta Nafarroan kokatutako irrati eta telebista zentroetan 05:00etatik hurrengo eguneko 01:00 arte.

4. Joko eta apustuen arloan eskumena duen departamentuak ahalmena izanen du proposatzen den jardueraren egitea debekatu edo baldintzatzeko, baldin eta jardueraren beraren edo bere agresibitatearen ondorioz kalte egiten ahal bazaie ordenamendu juridikoan ezarritako askatasun edo eskubideei, edo sektore sentiberaren bat erabili edo haiei kalte egiten bazaie, hala nola adingabeei, edota laguntzadun desgaituei. Horrelako kasuen berri emanen zaio gizarte zerbitzuen eta adingabeentzako babesaren arloan eskumena duen departamentuari.

5. Zaintza-lana eginen da jokoari buruzko publizitatean ez daitezen erabil halako pertsonak zeinak, beren lanbideagatik, ospe sozialagatik edo beste edozein zertzeladagatik, erreferentetzat har baitaitezke populazio orokorrarentzat eta, batez ere, gazte eta adingabeentzat. Aginduko da jokoa aritzeak ludopatia eragitearen eta aritze hori adingabeei debekatuta egotearen ohartarazpena esanbidez jasota utz dadin.

Publizitatean ez da inola ere onartuko osasun arloko profesionalek edo zientzialariek parte hartzerik, ez eta osasunarekin zerikusia duten elkarre, korporazio, fundazio edo erakundeen abalak erabiltzerik ere”.

Zazpi. 14. artikuluari apartatu berri bat erantsen zaio. Hona testua:

“6. Joko eta apustuen establezimenduen arteko gutxienerako distantziak.

Inola ere ezin izanen da baimenik eman beraiazko joko-establezimenduak zentro hauetatik 400 metrora baino hurbilago instalatzeko: adingabeen irakaskuntza arautuak ematen dizkieten ikastetxe publiko edo pribatuak, jokalariek patologikoen errehabilitaziorako zentro ofizialak, adimen desgaitasuna edo gaixotasun mentala duten pertsonentzako egoitzak, osasun, kirol, kultura eta aisia zentroak eta gaztetxeak. Era berean, joko eta apustu-establezimenduen arteko gutxienerako distantzia 400 metrokoa izanen da gutxienez ere.

Aurreko paragrafoan aipatutako distantzia (ezertan galarazi gabe udalerrri bakoitzak gutxienerako distantzia hori handitzea) beti neurtuko da jabari publikoko bidean oinez egin daitekeen ibilbide laburren etik.

Udalek gutxienerako distantzia hori baino handiagoa ezarri ahal du beren udal-mugartean”.

Zortzi. 18. artikulua 4. apartatua aldatzen da. Hona testua:

“4. Nafarroako Gobernuak apustu-makinek bete beharreko baldintzak ezarriko ditu, bai eta, behar izanez gero, toki, lokal edo establezimendu jakinetan apustu-makinak jartzeko baldintzak ere.

Kasu guztietan, tabernetako edo ostalaritzako establezimenduetako apustu-makinetarako irisgarritasun-sistemak halako elementu teknikoak aintzat hartu beharko ditu zeinek modua emanen baitute haietarako irispidea kontrolatzeko, eta foru lege honen erregelamenduzko garapenean xedatutakoaren esanetara egonen da”.

Bederatzi. 23. artikulua 2. apartatuari paragrafo bat erantsen zaio. Hona testua:

“Baimenduriko toki, lokal edo establezimenduak tabernetatik eta ostalaritzako establezimenduetatik bereizi beharko dira. Debekatu egiten da aipatu establezimenduetan alkoholdun edarien kontsumoaren publizitatea eta sustapena egitea. Baimendutako tokiek, lokalek eta establezimenduek ez dute zilegi izanen kredituak edo maileguak lortzeko produktu finantzarioak iragartzetik”.

Hamar. 26. artikulua aldatzen da. Honela geratuko litzateke idatzita:

“26 artikulua. Joko-aretoak:

1. Joko-aretoak dira joko-makinak ustiatzen diren lokal edo guneak dauzkaten establezimenduak, eta halaber eduki ditzakete beste aukera ludiko baimendu batzuk aurrera eramateko prestatuturik daudenak.

2. Aurreko apartatuan definitutako lokalek baldintza hauek bete beharko dituzte beti:

a) Gutxienez 150 metro karratu erabilgarriko azalera izan behar dute.

b) Nahitaez beharko dute harrera- edo onarpen-zerbitzu informatizatu bat eduki, sartzen utziko ez diena 18 urte baino gutxiagokoei eta jokoa beren kasa uko egin dioten pertsoneri.

c) Errotulu batean jarri beharko dute joko-aretoa dela.

d) Ongi ikusteko moduan kartel bat jarri beharko dute adierazteko debeku dutela jokoa parte hartzea adingabeek eta Jokoratze Debekuen Erregistroan inskribatutako pertsonen, lokalaren barnealdean eta kanpoaldean.

e) Harrera-zerbitzuan ongi ikusteko moduan iragarri beharko dute adikzioa sor dezakeela joko-etan gehiegi aritzeak, lokalaren barnealdean eta kanpoaldean.

f) Ikusteko moduko toki batean kokatu beharko dute, harrera-zerbitzuan, ludopatia-problema bat izanez gero nora jo daitekeen jakinarazten duen oharra”.

Hamaika. 26. bis artikulua berri bat gehitzen da. Hona testua:

“26. bis artikulua. Kirol-apustuen lokalak.

1. Apustu-lokalak dira kirol-apustuen ustiapenerako establezimenduak.

2. Aurreko apartatuan definitutako lokalek baldintza hauek bete beharko dituzte beti:

a) Gutxienez 50 metro karratu erabilgarriko azalera izan behar dute.

b) Nahitaez beharko dute harrera- edo onarpen-zerbitzu informatizatu bat eduki, sartzen utziko ez diena 18 urte baino gutxiagokoei eta jokotari beren kasa uko egin dioten pertsoneri.

c) Errotulu batean jarri beharko dute apustu-lokalak direla (edo apustu-guneak).

d) Ongi ikusteko moduan kartel bat jarri beharko dute adierazteko debeku dutela apustu-eta parte hartzea adingabeek eta Jokoratze Debe-kuen Erregistroan inskribatutako pertsonen, lokalaren barnealdean eta kanpoaldean.

e) Harrera-zerbitzuan ongi ikusteko moduan iragarri behar dute adikzioa sor dezakeela joko eta apustu-eta parte hartzea gehiegi aritzeak, lokalaren barnealdean eta kanpoaldean.

f) Joko-atarietan argiro adierazi beharko da adingabeek eta Jokoratze Debe-kuen Erregistroan inskribaturiko pertsonen debeku dutela apustu-eta parte hartzea.

g) Ikusteko moduko toki batean kokatu beharko dute, harrera-zerbitzuan, ludopatia-problema bat izanez gero nora jo daitekeen jakinarazten duen oharra”.

Hamabi. 26. ter artikulua berri bat gehitzen da. Hona testua:

“26. ter artikulua. Apustu-terminalak ostalaritzako establezimenduetan edo antzekoetan.

1. Taberna, taberna berezi, kafetegi eta kafe-ikuskizun gisa berariaz baimendutako ostalaritzako establezimenduek apustu-makina osagarri bat bakarrik instalatu ahal izango dute. Hori gorabehera, baimena ematen ahal da lokal horietan sari

programatuko joko-makina bat instalatzeko, B motakoa.

2. Foru lege honek indarra hartu ondoren paratzen den apustu-makinak apustu-irispidearen gaineko kontrola bermatzea ahalbidetzen duten elementu teknikoak eduki beharko ditu instalaturik, foru lege honetako 18.4 artikulua ezarritakoari jarraikiz, halako moldez non ekidin egingen baita joko-debe-kuak dituzten pertsonak edo adingabeak jokoratu ahal izatea.

Joko-partidak amaitu ondoren, eta erabilia izaten ari ez den bitartean, desaktibatuta egonen da, soinu-zuko, ikusizko edo argizko kitzikagarririk ez dariola.

3. Hemezortzi hilabeteko egokitzapen-aldi bat ezartzen da, ostalaritzako establezimenduetan gaur egun instalatuta dauden makinei foru lege honen 18.4 artikuluan ezarritako sarbide-kontrol sistemak jar dakizkien.

4. Makina instalatuta dagoen ostalaritza-establezimenduen titularraren erantzukizuna da lege ezarritako jokoratze-debe-kuak betetzea eta horiek establezimenduko langileei betearaztea.

5. Horrelako makinak aipatu ostalaritza-establezimenduetan instalatzerakoan, ezin dira paratu terraza edo bide publikoetan, ez eta lokalaren kanpoaldean ere, ez eta ikastetxe-, unibertsitate-, osasungintza-, gizarte- edo gazteria-erakinen barneko eta kirol-gune-eta tabernetan edo kafetegietan”.

Hamahiru. 30. artikulua lehen paragrafoari zenbakia jartzen zaio eta 30. artikuluari apartatu berri bat eransten zaio. Hona testua:

“2. Joko-aretoetan edo apustu-lokaletan beren lana bezeroak artatuz egiten duten langileek prestakuntza jaso beharko dute enpresarengandik, adikzioei eta joko patologikoko esku-hartzeari buruzkoa”.

Hamalau. 32. artikulua 1. apartatua aldatzen da. Hona testua:

“1. Honako hauek debeku dute jokoa parte hartzea, jokoa aritzea eta berariazko joko-establezimendu bezala baimenduta dauden areto eta tokietan sartzea:

a) Adingabeek. Adingabeek sarbidea debeku dutela adierazi beharko da lokaleko sarreran eta web-orriaren atarian, argi eta ongi ikusteko moduan.

b) Epailearen erabakiaz horrela ezarria edo gaitasuna aldatzeko ebazpenean horrela deklaratu duten pertsonen, eta zarrastelek edo konkur-

tso-prozeduran errudun deklaratuak izan direnek, birgaitzen ez diren bitartean.

c) Horditasun, droga-intoxikazio edo erotasun sintomak agertzen dituen edozein pertsonak, edo armak eta halakotzat erabil daitezkeen objektuak daramatzala sartu nahi duenak.

d) Jokoratze Debekuen Erregistroan joko-uko egile diren pertsonak”.

Hamabost. 38. artikuluari letra berri bat gehitzen zaio. Hona testua:

“q) Nafarroako Foru Komunitatearen eremuko mota guztietako kirol-apustuen publizitatea jartzea kirolarien jantzietan, instalazioetan, babesletzan edo antzekoetan, edozein motatako kirol-lehiaketa, -jarduera edo -gertakarietan, betiere entitateak Nafarroan badu egoitza soziala eta kirol-lehiaketa, -jarduera edo -gertakaria toki eremukoa edo autonomia erkidegoaren eremukoa bada”.

Hamasei. 41. artikulua 3. apartatua aldatzen da. Hona testua:

“3. Joko eta apustuak antolatzen edo ustiatzen dituzten enpresek har litzaketan erantzukizunak ezertan galarazi gabe, adingabeek eta dena dela-koagatik halako jardueretarako sarbidea edo parte-hartzea debekatua duten pertsonak erantzukizuna hartuko dute foru lege honen 40. artikuluan arin gisa tipifikaturiko arau-hauste bat egiteagatik”.

Hamazazpi. 43. artikuluari apartatu berri bat eransten zaio. Hona testua:

“4. Adingabeei zehapen arinak ezarri ordez, ahal dela, neurri hezitzaileak ezarriko zaizkie, hala nola gizarte eta hezkuntza lanak edo komunitatearentzako neurriak”.

Hemezortzi. Xedapen gehigarri bakarraren titulua aldatzen da. Hona testua:

“Lehen xedapen gehigarria. Genero edo efektu estankatuak”.

Hemeretzi. Xedapen gehigarri berri bat erantsen zaio, honako testuarekin:

“Bigarren xedapen gehigarria. Dirulaguntza publikoak.

Dena delako joko-modalitatean jarduten duten enpresek osoki nahiz partzialki babesturiko edo haien publizitatea daukaten kirol-jarduerak ez dira dirulaguntza publikoak eskatzeko moduan egonen, eta halaber ezin izanen dute halako dirulaguntzarik lortu”.

Xedapen gehigarri bakarra. Fiskalitateari buruzko azterlana.

Nafarroako Gobernuak, Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren bidez, arau honek indarra hartu eta 8 hilabeteko epean, azterlana egingen du Nafarroako Foru Komunitatean jokoak duen fiskalitateari buruz.

Azken xedapenetako lehena. Erregelamenduzko garapena.

Foru lege honek indarra hartu eta urtebeteko epean, Nafarroako Gobernuak behar diren xedapenak emanen ditu Nafarroan apustuak erregelamendu bidez garatzeko.

Azken xedapenetako bigarrena. Erregelamenduzko garapena eguneratzea.

Foru lege honek indarra hartu eta urtebeteko epean, Nafarroako Gobernuak behar diren xedapenak emanen ditu Jokoari buruzko abenduaren 14ko 16/2006 Foru Legeko erregelamenduzko garapen indardunak eguneratze aldera.

Azken xedapenetako hirugarrena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru Legea, zeinaren bidez aldatzen baita 16/2019 Foru Legea, martxoaren 26koa, Eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimen errekonozimenduari eta erreparazioari buruzkoa.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2022ko ekainaren 23an egindako Osoko Bilkuran, honako foru lege hau onetsi zuen: “Foru Legea, zeinaren bidez aldatzen baita 16/2019 Foru Legea, martxoaren 26koa, Eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimen errekonozimenduari eta erreparazioari buruzkoa”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2022ko ekainaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru Legea, zeinaren bidez aldatzen baita 16/2019 Foru Legea, martxoaren 26koa, Eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimen errekonozimenduari eta erreparazioari buruzkoa

HITZAURREA

Martxoaren 26ko 16/2019 Foru Legeak arautzen du eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimei errekonozimendua eta erreparazioa emateko Nafarroako sistema. Zehazki, 12. artikuluan, biktimek osasungintzako arretarako nahiz kalte fisiko, psikologiko edo materialengatiko ordainak jasotzeko daukaten eskubidea zehazteari dagokionez, igorpena egiten du apirilaren 28ko 9/2010 Foru Legeak, Terrorismoaren biktimei laguntzekoak, xedatutakora. Igorpen horrek problema batzuk sortzen ditu aplikatua izateko.

Terrorismoaren biktimei laguntzeko apirilaren 28ko 9/2010 Foru Legeak erreparazio-neurrien multzo bat ezartzen du (kalte-ordainak, laguntzak), Estatuak eman litzakeen horien osagarri gisa. Halatan, Nafarroako kalte-ordainen eta laguntzen zenbatekoa izanen da Estatuako Administrazio Orokorrek ematen dituen kopuruen % 30ekoa. Alabaina, motibazio politikoko biktimei ez die Estatuak inoiz kalte-ordainik eman, eta horrek

ginderamatzake existitzen ez den estatu-laguntza bati osagarri halako bat jartzearen ezintasunera.

Baldin eta % 30aren laguntza osagarria motibazio politikoko egintzen biktimentzako laguntzen muga gisa aplikatuko balitz, horrek esan nahi luke legeztatu egiten dela tratu-desberdinkerriako egoera nabari bat: batetik leudeke terrorismoaren biktimak, zeinek Estatuaren kalte-ordaina gehi jada aipaturiko osagarri autonomikoa jasotzen baitute, eta bestetik, motibazio politikoko biktimak, zeinek kalte-ordain gisa % 30 baizik ez bailukete jasoko, jasan eta frogaturiko kalteengatik. Horrekin ez da tratu-berdintasunik bermatzen biktima-talde desberdinen artean (terrorismoaren biktimak eta motibazio politikoko biktimak), halatan kontraesan nabarmenean eroriz biktimen diskriminaziorik ezaren eta tratu mesedegarriaren printzipioarekiko, zeina martxoaren 26ko 16/2019 Foru Legearen 5.3 artikulua jasotzen baitu.

Terrorismoaren biktimei laguntzeko Foru Legean, kalte-ordaina izan dezaketen kalte psikiko dira baliaezintasun handia, ezintasun iraunkor absolutua eta ezintasun iraunkor osoa. Horrenbestez, terrorismoaren biktimentzako foru araudia hertsiki aplikatuz gero, motibazio politikoko biktimen kasuan ezin izanen zaie kalte-ordainik eman ezintasun iraunkor partzialari loturiko kalte psikiko edo psikologikoen kasuei, ez eta baliaezintasunik gabeko lesio iraunkorrei edo aldi baterako ezintasunari ere, are Estatuak kalte-ordain horiek terrorismoaren biktimentzat aurreikusi egiten baditu ere.

Bestetik, martxoaren 26ko 16/2019 Foru Legearen bigarren xedapen gehigarrian Nafarroako Gobernuak gaitzen da erregelamenduzko garapena egin dezan eta, zehazki, terrorismoaren biktimei buruzko legediak aurreikusitako kalte-ordainak eta laguntzak doitu eta egokitu ditzan legedi horren helburuetara. Erregelamenduzko garapenean biktimen kolektiboek (terrorismoarenek eta motibazio politikokoek) jasotako kalte-ordainak elkarrengana hurbiltzeko aurreikusten den doikuntza horrek eragozpen teknikoak ditu, begi-bistako arriskua izanik gehiegizko araupetze batean erortzea, mugatua baita erregelamendu bidezko doikuntza-ahalmen hori. Doitzeak ez du legea eraldatu edo mutatzeko modurik ematen; hori

dela-eta, erregelamendu bitartezko doikuntza horrek ezin izanen du kolektibo horien arteko tratu-desberdinkeria onbideratu.

Azken batean, bai 12. artikulua aurreikusitako igorpenak bai Eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimen errekonozimenduari eta erreparazioari buruzko martxoaren 26ko 16/2019 Foru Legearen bigarren xedapen gehigarrian aurreikusitako erregelamenduzko garapenak problema-multzo bat dakarte aplikatuak izaterakoan, foru lege mailako araugintzazko konponbidea behar dutenak.

Hori guztia dela-eta, aldaketa honek xede du Terrorismoaren biktimei laguntzeko Foru Legerako igorpena gainditzea, motibo politikoengatik indarkeria jasan duten pertsonen aldeko prestazio zehatzak ezartzea, biktima-kolektibo bereiztuen arteko babes-berdintasuna bermatzea (terrorismoaren biktimak/indarkeria politikoen biktimak) eta, azkenik, behar den segurtasun juridikoa ekartzea biktimei eta laguntzen xede diren pertsoneri.

Artikulu bakarra. Aldatzea 16/2019 Foru Legea, martxoaren 26koa, eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimen errekonozimenduari eta erreparazioari buruzkoa.

Bat. 2. artikulua bigarren paragrafoa aldatzen da. Testu hau izanen du:

“Baldin eta, pertsona baten giza eskubideen urraketaren zuzeneko ondorio gisa, haren heriotza gertatu bada, haren kausadunek eskubidea izanen dute biktima-aitorpena eskatzeko eta diruzko konpentsazioa jasotzeko, foru lege honen 12.5 artikuluan horretarako ezartzen diren erregelari jarraikiz”.

Bi. 9. artikuluko 1. apartatua aldatzea. Honako testua izanen du aurrerantzean:

“1. Eskabideak foru lege honen esparru subjektiboan aipatzen diren pertsonen sustatu eta aurkeztu ahalgo dituzte. Legitimazio aktiboa izanen dute, halaber, aipatutako esparrukoak izan ez arren, foru lege honen aplikazio eremuan sartzen diren egitateak zuzenean eta zorrozki ezagutu dituzten pertsonen edo entitateen. Eskabide horiek lau urte eta sei hilabeteko hasiera-epean aurkeztu ahalgo dira, arlo horretan eskudun den departamentuko kontseilariaren foru agindua, eskabide-aurkezpenaren epea irekitzen duena, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aurrera”.

Hiru. 11. artikuluko 3. apartatua aldatzen da. Honako testua izanen du aurrerantzean:

“3. Ebazpena hilabeteko epean jakinaraziko zaio interesdunari, eta, kasua bada, bidezko diren errekurtsoak aurkezteko aukera adieraziko zaio.

Prozedura ebatzi eta ebazpena jakinarazteko gehieneko epea hamasei hilabetekoa izanen da, salbu eta artikuluko 1. apartatuan oinarri harturik epea luzatua izan den kasuan”.

Lau. 12. artikulua aldatzen da. Testu hau izanen du:

“12 artikulua. Biktima deklaratzearen ondorioak.

1. Foru lege honen xedapenen arabera biktima deklaratuak diren pertsonen aitortuta edukiko dituzte, osasun arretaz gainera, kalte fisiko, psikologiko edo materialengatik ordain ekonomikoak.

Ordain ekonomiko horiek bateragarri dira gertakari berengatik beste erakunde batzuegandik jasotzera zilegituta egon litezkeeneko beste kopuruekin, baldin eta foru lege honen babesean aitortuak izan diren ordain ekonomikoak baino baxuagoak badira. Ondorioz, beste entitate batzuegandik jasotako edo haiek aitortutako kopuruak baxuagoak direnean Foru Komunitateko Administrazioak emandakoak baino, hartzaileak azken horrengandik jasoko du bi laguntza horien arteko aldea bakarrik.

2. Jasandako kalte fisiko edo psikologikoengatik ordain ekonomikoaren zenbatekoak honakoak izanen dira:

- a) Heriotzagatik: 250.000 euro.
- b) Baliazintasun handiagatik: 500.000 euro.
- c) Ezintasun iraunkor absolutuagatik: 180.000 euro.
- d) Ezintasun iraunkor osoagatik: 100.000 euro.
- e) Ezintasun iraunkor partzialagatik: 75.000 euro.

f) Aurreko apartatuetan aurreikusitako kalte-ordainen zenbatekoak handiagotu eginen dira kantitate finko batean, kasuko errenta-adierazle publikoaren 20 hilabete-kuotakoa, heriotza-unean edo lesioa eragin zuen indarkeriazko ekintzaren unean biktimarekiko mendekotasun ekonomikoa zeukaten ondorengo ahaideetako edo harreran hartutako adingabeetako bakoitzarengatik.

g) Baliazintasun gabeko lesio iraunkorrengatik: zenbatekoa zehaztuko da eskabidea aurkezteko unean indardun den sistema erabiliz, zeinaren bidez baloratzen baitira pertsonen zirkulazio-ezbe-

harretan eragindako kalte eta galerak, eta baremo gisa harturik lan-istriputik edo lanbide-gaixotasunetik eratorritako behin betiko eta baliaezintasunik gabeko lesio, mutilazio eta deformazioengatik kalte-ordainen zenbatekoei buruz gizarte-segurantzako legedia aplikatuzetik suertatzen den hori. Guztizko zenbatekoak ez du ezein kasutan gaintutuko ezintasun iraunkor partzialerako adierazitako zenbatekoa.

h) Aldi baterako ezintasunagatik: izanen da aldi baterako ezintasuneko egoeran aurkitzen deneko epeari dagokion eguneroko errenta-adierazle publikoaren bikoitza. Mugatzat izanen du hileko 18 kuota (Ondorio Askotarako Errenta-adierazle Publikoa/egun x 2, hileko 18 kuotako mugaraino). Ondorio horietarako, ulertuko da biktima aldi baterako ezintasun egoeran dagoela osasungintza-arreta jasotzen duen eta bere lanbidean jarduteko edo bere ohiko jardueretan aritzeko ezinduta dagoen bitartean.

i) Mendekotasun-egoeragatik, alorreko departamentu eskudunak biktimei edozein gradu eta mailatan aitortua, honako portzentajeetan gehituko dira Foru Komunitateko Administrazioak emandako kopuruak:

– 100eko 30eko igoera, III. gradua –mendekotasun handia, 1. eta 2. mailak– onartu zaien pertsonentzat.

– 100eko 20ko igoera, II. gradua –mendekotasun larria, 1. eta 2. mailak– onartu zaien pertsonentzat.

– 100eko 10eko igoera, I. gradua –mendekotasun moderatua, 1. eta 2. mailak– onartu zaien pertsonentzat.

Zenbateko horiek bateragarriak izanen dira biktimek jasotzeko eskubidea duten beste edozein zenbatekorekin, non eta ez diren kontzeptu berraren ondoriozkoak.

3. Nafarroako Foru komunitateko Administrazioak, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren bitartez, beharrezkoa gertatzen den osasungintza-arreta edo arreta psikologikoa emanen die biktima deklaratuak diren pertsonari, foru lege honetako xedapenei jarraikiz, ahal den heinean berreskuratze aldera kasuko gertakaria baino lehenagoko baldintzak. Hori ezinezkoa denean, eta beste zentro batzuetan eman beharrezkoa denean, administrazio horrek eskaturiko zerbitzu eta tratamendu bakoiztuen ondoriozko gastuak ordainduko dira.

Osasungintza-arretak barne hartuko du tratamendu medikoa, protesi-ezarpina edo horien aldizkako hobekuntzak, bai eta errehabilitazio-pre-

miaren ondoriozko gastuak ere, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak diagnostikaturikoak direnean.

Arreta psikologikoa jasotzen ahalko da, medikuak aurretiaz horretarako agindua emanik, indarkeriazko ekintzak eragindako edo agerian utzitako nahasmendu psikologikoen agerpenetik aurrera.

4. Kalte materialengatik ordainketek barne hartuko dituzte etxebizitzetan, gauzaki pertsonaletan, merkataritza- edo industria-establezimenduetan eta ibilgailuetan egin direnak. Kaltekonponketak barne hartuko ditu lehenagoko bizigarritasun- edo funtzionamendu-baldintzak berreskuratzeko beharrezkoak diren urratsak.

Kalte materialen ordainketek ordezkotza izatera izanen dute administrazio publikoek aitorturikoen edo aseguru-kontratuetatik eratorritakoen aldean, eta kontzeptu horiengatik jasotako kopuruan murriztuko dira.

5. Heriotzagatik kalte-ordainketarako eskubidearen titular izanen dira, erreferentziatzat heriotzaren gertaeguna harturik:

a) Hildako pertsonaren ezkontidea, legalki bananduta ez bazeuden, edo gutxienik heriotza-unearen aurreko bi urteetan zehar harekin antzeko afektibitate-harremanez elkarturik modu iraunkorrean bizi izandako pertsona, salbu eta ondorengotza amankomuna izan bazuten, ezen kasu horretan nahikoa izanen da elkarbizitza soila; eta hildakoaren seme-alabak.

b) Arestian aipatuetakorik ez egonez gero, hartzaile izanen dira, lehenagoko hurrenkeran eta hurrenkeran jarraian datozenak bazter utzirik, hildakoaren gurasoak, anai-arrebak, bilobak eta aitona-amonak.

c) Arestian aipatuetakorik ez egonez gero, elkarbizitzan partaide izandako pertsonaren seme-alabak, eta hildakoak familia-harrera iraunkorrean edo adopzioaurrekoan hartutako adingabeak, ekonomikoki haren mende baldin bazeuden.

6. Aurreko apartatuan aurreikusitako kasuetako batean elkarrekin suertatzen badira zenbait onuradun, kalte-ordainketari dagokion zenbatekoaren banaketa honela egingen da:

a) Kasua bada 5.a) apartatuan jasotzen dena, kopurua erdibanatu egingen da, erdi bat dagokiola legalki banandu gabeko ezkontideari edo elkarbizitza-partaideari, eta bestea seme-alabei. Azken erdi hori zati berdinetan banatuko da.

b) Kasua bada 5. b) apartatuan jasotzen dena, kopurua zati berdinetan banatuko da ahaidetasun-lotura bereko pertsonen artean.

c) Kasua bada 5.c) apartatuan jasotzen dena, kopurua zati berdinetan banatuko da batera suertatzen diren onuradunen artean.

7. Artikulu honen ondorioetarako, pertsona batek zenduarekiko mendekotasun ekonomikoa duela ulertuko da heriotza-unean horren kontura bizi bazen osoki nahiz partzialki eta ez zuen eskuratzen, urteko kontaktetan, une hartan indarrean zegoen errenta-adierazle publikoak urteko kontaktetan ere zeukan zenbatekoaren ehuneko 150 baino gehiagoko edozein izaeratako errenta edo diru-sarrerarik”.

Bost. 16. artikuluko 5. apartatua aldatzea. Honako testua izanen du aurrerantzean:

“5. Administrazio publikoko kide izan gabe Errekonozimendu eta Erreparaziorako Batzordeko kide diren pertsonak eskubidea izanen dute, beren eginkizunetan aritzeagatiko ordain gisa, Nafarroako Gobernuaren erabaki bidez ezartzen diren dietak eta lokomozio- edo bidaiatze-gastuengatiko sariak jasotzeko. Egun bakoitzeko ez da sortuko dieta bat baino gehiagorako eskubiderik”.

Sei. Bigarren xedapen gehigarria aldatzen da. Testu hau izanen du:

“Bigarren xedapen gehigarria. Kredituak gaitzea.

Nafarroako Gobernuak, bere eskumenen esparruan, xedatuko du foru lege honek ezarritako laguntzei aurre egin ahal izateko beharrezkoak diren kredituak gaitzea”.

Zazpi. Hirugarren xedapen gehigarria aldatzen da. Testu hau izanen du:

“Hirugarren xedapen gehigarria. Erregelamenduzko garapena.

Nafarroako Gobernuak beharrezkoak diren erregelamenduzko xedapenak jaulkiko ditu foru lege honetan jasotako aurreikuspenak garatu eta aplikatzeko”.

Azken xedapen bakarra. Foru legeak indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru Legea, Nafarroako errepideetarako erabilera-kanona arautzekoa.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2022ko ekainaren 23an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako errepideetarako erabilera-kanona arautzeko Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2022ko ekainaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru Legea, Nafarroako errepideetarako erabilera-kanona arautzekoa

HITZAURREA

Ekainaren 17ko 1999/62/EE Zuzentarauak, ibilgailu astunei bide-azpiegiturak erabiltzeagatik karga-tasak aplikatzekoak, adierazten duen bezala, lehiaren alorreko europar politikak asmozat dauka estatu kideetako garraio-enpresen arteko lehiako distortsioak ezabatzea, kobrantza-sistemak harmonizatuz eta azpiegituraren kostua garraiolarietara egokitzeko bide ekitatiboak ezarriz, mugak ezarriz guztizko pisu zamadun jakin bat gainditzen duten ibilgailu industrialetara zerga-sistema nazionalak egokitzeari, ezarri beharreko karga-tasak ingurumen- eta errepide-eraginaren arabera bereiziz, bide desberdinak erabiltzeagatik tasa-ezarpena onarturik, non eta tasak ez diren diskriminatzaileak, ez duten gehiegizko formalitateak erakartzen eta ez duten eragozpenik sortzen, eta erraztasunak ezarriz pagamendua edozein unetan eta ordainbitarteko desberdinen bidez egin ahal izateko.

Xedatzen du tarifak kasuko azpiegitura-erabileraren iraupenaren arabera beharko direla kalkulatu, eta ibilgailuek eragindako kostuei erreparatuta bereiziak izan.

Aipatu zuzentarauak eginiko araupetzearen xede dira, besteak beste, aipatzen dituen ibilgailuentzat ezarritako azpiegitura-erabileragatik tasak, 7. artikulutik aurrera arautzen dituenak. Karga-tasaren ezartze horrek baldintzatu egiten du Batzordeari eginiko aurretiazko kontsulta.

Zehazki, Europar Batasuneko doktrinak aitortzen du ibilgailu astunentzako azpiegitura-erabileragatik tasa egokia dela garraio-merkatuko lehiaren distortsioak ezabatzeko, batetik; eta, bestetik, ingurumena babesteko eta garraio-sareen garapen orekaturako funtsak lortzeko. Horrenbestez,

aipagai duguna azpiegitura jakin batzuk erabiltzetik eskuratzen den erabil-eskubide bat, zeinaren zenbatekoak zerikusia izan behar baitu kasuko bide-sarea eraiki, ustiatu eta garatzearen kostuekin. “Nork erabili, horrek pagatu” printzipioaren ildotik, tarifak bere egitekoa beteko du kostu horiek erabiltzaileei jasanaraziz, eta bide-kontserbazioaren eta -kudeaketaren kostuak berreskuratu eta berrinbertitzea ahalbidetuko du.

LORAFNA-Nafarroako Foru Eraentza Berreza-ri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoak ezartzen du Nafarroari dagokiola, bere foru araubidea dela-eta, ibilbidea osoki Nafarroako lurraldean daukaten errepide eta bideen gaineko eskumen eskusiboa.

Nafarroak etengabe egikaritu ditu bere eskumen historikoak bide eta errepideen eraikitze, finantzatze eta mantentzearen alorrean, eta historian zeharreko jardun hori jasota agertzen da Nafarroako Errepideei buruzko martxoaren 23ko 5/2007 Foru Legearen zioen azalpenean. Aipatu eskubide historikoek Espainiako Konstituzio indarduneko lehen xedapen gehigarriaren babesa dute.

Nafarroako Errepideei buruzko 5/2007 Foru Legeak esparru juridiko berekia antolatzen du, are bide-jabari publikoaren gaineko jarduketan eta ustiapenaren finantzaketarako, kalitatezko bidezbitzu publikoa bermatzeko baliabideak bideratuz, 25.1 e) artikuluan xedatuz errepide-erabilera-kanon bat ezarri ahal izatea.

Arau orokor gisa, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak zuzenean kudeatu eta ustiatuko du bide-jabari publikoa, ahalmena badauka ere sozietate publiko bat eratzeke, xedatzen izanen duena Nafarroako Errepide Sarean sartuta dau- den errepideen eraikitze, mantentze eta ustiapena kudeatzea, bai eta horien eremu funtzionalak eta zerbiztu-eremuak.

Esparru juridiko horretan kokatzen da arau berri hau.

1. artikulua. Kanona sortzea eta haren izaera juridikoa.

1. Errepide-erabileraren gaineko kanona Nafarroako Ogasun Publikoaren baliabide gisa sortzen da, aplikazio-xedatzen duena Nafarroako Edukiera Handiko Bideen Sareko zenbait azpiegituraren erabilera. Horrela bildutako dirua bideratuko da

foru lege honek jasotako helburuak betetzera ez beste ezertara.

2. Kanon hau azpiegitura-erabileragatiko tasa bat da, ibilgailu astunentzat, Salgai-garraioko ibilgailu astunei zenbait azpiegitura erabiltzeagatik karga-tasak aplikatzeko ekainaren 17ko 1999/62/EE Zuzentarauaren 2.1.8) artikuluan aurreikusitako definizioaren arabera, eta izaera publikoko ondare-prestaziotzat hartuko da, Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorraren hogeita hamargarren xedapen gehigarrian ezarritakoari jarraikiz.

3. Erabilera-kanonaren ordainarazpena eta kudeaketa Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak egingen ditu, dela berak zuzenean, dela berak xede horretarako eratzten duen sozietate publiko baten bitartez, eta kanon horren diru-bilketari erabiliko da bide-mantentze eta ustiapenerako ekintzak finantzatzeko, bai eta azpiegitura berriak eraiki eta horiei loturiko zerbitzuak ezartzeko ere, zeinak, kasua bada, Nafarroako Errepide Sareari atxikiko baitzaizkio. Kanona atxikia daukan bidea bera mantentzetik eratorritako beharrianak ase direlarik, zilegi izanen da diru-sarreraren parte bat bideratzea ingurumenaren babeserako neurrietara edo garraio-sareen sustapen orekaturako neurriak aztertu eta ezartzera.

4. Sozietate publiko bat eratuko balitz, horretara bideratuko dira bai borondatezko epean kudeaturiko kanona, bai epe exekutiboan lorturikoa.

2. artikulua. Kanona atxikia duten bideak eta bide-zatiak.

Erabileragatiko kanona atxikia daukaten bideak eta bide-zatiak hauek dira:

- a) A-1 Autobia, Iparraldeko Autobia: bide osoa.
- b) A-10 Autobia, Sakanako Autobia: bide osoa.
- c) A-15 Autobia, Leitzarango Autobia: bide osoa.
- d) A-68 Autobia, Ebroko Autobia: bide osoa.
- e) N-121-A prestazio handiko errepidea, Iruña-Bebobia: bide osoa.

3. artikulua. Sortzapena eta ordainketa.

1. Erabilera-kanona sortuko da kanon hori atxikita daukan bidera edo bide-zatira sartzeko unean eta ordainketa egingen da sortu eta hurrengo 60 egun naturalen barruan.

2. Erabilera-kanona ordaintzera behartuta daude kanon hori atxikita daukaten bideetatik zirkulatzen duten ibilgailu astunen titular diren pertsona fisiko edo juridikoak. Halako ibilgailutzat

joko dira motordun ibilgailuak edo ibilgailu artikulatuen multzoak, gehieneko masa baimendua 3,5 tona baino handiagoa izanda errepidezko salgai-garraioko baizik ez direnak edo horretarako baizik erabiltzen ez direnak.

Kanona ordaintzetik salbuetsita daude administrazio publikoaren ibilgailuak edo azpiegituraren kontserbatze- eta mantentze-lanen esleipen-hartzaile diren enpresenak, bai eta larrialdi eta istripuetakoak eta Europar Batasuneko araudiaren arabera salbuetsita daudenak ere.

3. Ibilgailuen detekzio, identifikazio eta kanon-egozpenerako, iragaitza askeko sistema ireki bat ezarriko da, ibilgailu-gerarazpenik gabekoa.

4. Kanona ordaintzeko, erabiltzaileek baliabide teknikoak eduki beharko dituzte, baldintza operatiβοetan erabilera ahalbidetuko dutenak; edo bestela halako informazioa eman beharko dute non modua emanen baitu matrikula-zenbakia ordainbide bati lotzeko, bide-administrazioak argitaratutako web informazioari jarraikiz.

Zehazki, honako ordainbide hauek onartzen dira:

a) TAG gailua.

b) Erregistro telematikoa, bide-administrazioak paratzen duen webgunearen nahiz gara daitezkeen beste sistema telematikoko batzuen bitartezkoa. Banku-txartela edo erregistro telematikoa etorkizunean onartzen dituen bestelako ordainbide batzuk zehaztuko dira.

4. artikulua. Kanonaren zenbatekoa.

1. Erabilera-kanonaren zenbatekoa zehaztu eta eguneratuko da aintzat hartuta Europar Batasuneko araudi indarduna eta, bereziki, ondoko irizpideak:

a) Errepidea erabiltzean eginiko ibilbidearen luzera.

b) Azpiegituraren eraikitze- eta narriatze-gastuak, ingurumeneko elementuengatiko gastuak barne.

c) Finantza-askitasuna, halakoa non, foru lege honetan adierazitako beste baliabide batzuekin batera, bertan aurreikusitako helburuak lortu ahal izanen baitira.

d) Erabiltzaileentzako tratu-berdintasuna, erabilera-mailaren arabera.

e) Diskriminazio eza, ez zuzenik, ez zeharkakorik.

2. Halaber, kanonaren zenbatekoa zehazteko ibilgailuen ondoko sailkapena hartuko da kontuan:

a) Astunak 1: gehieneko masa baimendua 3,5 tona baino handiagoa eta 12 tona edo txikiagoa duten ibilgailuak.

b) Astunak 2: gehieneko masa baimendua 12 tona baino handiagoa duten ibilgailuak.

5. artikulua. Kanona ez ordaintzea.

1. Erabilera-kanona horretarako ezarritako epean ez bada ordaintzen, kanona kudeatzen duen entitateak ordain-eskea aurkeztuko die interesdunari eta bide-administrazioari, sozietate publikoa izanez gero, eta kudeaketa-errekargu bat gehituko dio. Kudeaketa-errekargua zorretan utzitako kanonaren ehuneko bat izanen da, eta honela kalkulatu da:

a) Ordaintzeko epea amaitu eta hurrengo hila-betean, % 5eko errekargua ezarriko da.

b) Lehenengo hilabetea amaitzen denetik ordaintzeko epea amaitu eta hiru hilabete bete arte, % 10eko errekargua ezarriko da.

c) Ordaintzeko epea amaitu eta hiru hilabete betetzen direnetik, % 20ko errekargua ezarriko da.

Desadostasuna egonez gero, interesdunak aurkako jarrera bide-administratioari aurkeztuko dio, eta administratio horrek ebatziko du auzia.

2. Aurkako jarrerarik aurkeztu ez eta erabilera-kanona eta errekargua ez badira ordaintzen interesdunari jakinarazpena egin eta bi hilabeteko epearen barrenean, kanonaren ordainarazpenaz arduratzen den balizko kudeatze-entitateak salaketa aurkeztuko dio bide-administratioari, zehapen-espeditentea has dezan –edota kanonaren ardura duen administratioak ofizioz hasiko du– eta ordainkizun den zorra gehi ordaindu gabeko kudeatze-errekargua eska ditzan bidezkoak diren diru-bilketako prozedurak erabiliz, premiamendu-bidea barne.

3. Frogabide gisa, zilegi izanen da edozein sistema edo bitarteko tekniko, mekaniko edo irudigintzakoa erabiltzea, azpiegituran paratutakoa, ibilgailuak argi eta garbi identifikatuko dituena. Irudi hori frogabidetzat hartuko da zehapen-prozeduran.

4. Kanonaren kudeaketa eta likidazioaren inguruan bide-administratioak jaulkitako ebazpenen aurka, interesdunek administratio-errekurtsoa aurkeztu ahalko dute, administratio-prozedura erki-dearen arauetara jarraikiz.

Diru-bilketako egintzak Nafarroako tributu-araudi orokorrari jarraikiz aurkatu ahalko dira.

6. artikulua. Datu pertsonalen tratamendua.

1. Erabilera-kanonaren kudeaketan datu pertsonalen tratamendua egingen da.

2. Tratamenduaren xedea da kanona ordaintzera beharturiko ibilgailuak hautatu eta identifikatzea; eta, zehazki, kanona kobratzeko, fakturak jaulkitzeko eta ordaindugabeak kudeatzeko prozesuak eta arau-haustearen ondorioak exekutatzeko; egin den kudeaketarekin bat ez etortzeagatik, desadostasunagatik edo errakuntzagatik erreklamazioak tramitatu eta ebaztea, bai eta errepidea darabilten ibilgailu salbuesiak kanpo uztea ere.

Datu pertsonal beharrezkoak dira detekzio-sistemaren atariak zeharkatzen dituen ibilgailuaren matrikularen zenbakia; atxikitako ordainbidea; igaraldiaren eguna eta ordua, eta ibilgailuaren titular den pertsonaren identifikazioa; kudeaketarako eta erabilera-kanonaren ordainketarako sistemako alta edo erregistratzea; halaber, informazioaren titular diren pertsonak eskatzen dituzten fakturak jaulkitzeko beharrezkoak diren datuak.

Kasua bada, zilegi izanen da datu pertsonalez osaturik ez dagoen informazio gehigarria biltzea, hala nola matrikulazio-herrialdea, ibilgailuaren marka eta modeloa, horren kategoria eta fitxa teknikoa.

3. Datuak ez dira erabiliko aurreikusitakoez bestelako helburuetarako, eta ez zaizkie hirugarrenei komunikatuko ez eta eskuragarri jarriko ere, salbu eta zuzenbidez bete beharrekota den arau bati jarraikiz edo zerbitzuarekin zerikusia duten zereginetarako.

Azpiegituraren erabilerrari buruzko estatistikak egiteko, ezabatu egingen da jada adierazitako helburuetarako bildu den edozein informazio pertsonal.

4. Datu pertsonalak gordeko dira kanon-kobratza egiteko behar-beharrezkoa den denboraz baino ez, eta prebentzio gisa, ordain-betebeharra sortzen den egunetik aurrerako urtebetez, egon litezkeen erreklamazioei erantzutearren. Une horretatik aurrera, blokeo-egoeran egonen dira, zuzenbidez zilegi diren akzio administratibo edo judizialen preskripzio-epeak diraueino.

Ordainketa-betebeharririk gabeko ibilgailuei buruzko datuak aldi baterako tratatuak izanen dira, ordain-betebeharririk ez dagoela ondorioztatzeko behar-beharrezkoa den epeak diraueino baidir ez.

5. Artikulu honetan deskribaturiko tratamenduen arduraduna errepide-alorrean eskudun den Nafarroako Gobernu departamentua da, ezer-

tan galarazi gabe datu-tratamenduaren arduradun izatea horretarako eratzten duen sozietate publikoa, zeinari baitagokio botere publikoen egikaritzea, apirilaren 27ko 2016/679/EB Datu Babesari buruzko Europar Erregelamenduko 6.1 e) artikuluan aipatua.

Lehen xedapen gehigarria. Nafarroako Gobernuari gaikuntza ematea.

Kanonari loturiko Nafarroako errepide sareko bide eta zatiak eta kanonaren zenbatekoa aurrerago zehaztea galarazi gabe, Nafarroako Gobernua gaitzen da kanona kobratzen hasteko data finkatzeko, zeina ezin izanen baita izan 2023ko abenduaren 31 baino geroagokoa.

Bigarren xedapen gehigarria. Nafarroako Errepideei buruzko martxoaren 23ko 5/2007 Foru Legea aldatzea.

Aldatu egiten da Nafarroako Errepideei buruzko martxoaren 23ko 5/2007 Foru Legearen 73 artikulua 1. apartatua, c) letra berri bat gehituz. Hona testua:

“c) Ez ordaintzea zenbait bide-azpiegituraren erabilera-kanona edo kudeaketa-errekargua”.

Azken xedapena. Foru legeak indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

D saila:
HITZARMENAK

Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren aldaketa.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2022ko ekainaren 23an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren aldaketa.

Iruñean, 2022ko ekainaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da aurikula-fibrilazio ez balbularra duten pazienteei berma diezaien eragin zuzeneko ahotiko antikoagulatzaileak eskuratzea, Europako eta Espainiako praktika klinikoko gidetan gomendatzen denari jarraikiz.

OSASUN BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak, 2022ko ekainaren 29an egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: "Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da aurikula-fibrilazio ez balbularra duten pazienteei berma diezaien eragin zuzeneko ahotiko antikoagulatzaileak eskuratzea, Europako eta Espainiako praktika klinikoko gidetan gomendatzen denari jarraikiz".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Aurikula-fibrilazio ez balbularra duten pazienteei bermatzea eragin zuzeneko ahotiko antikoagulatzaileak eskuratzea, Europako eta Espainiako praktika klinikoko giden gomendioekin bat.

2. Eragin zuzeneko ahotiko antikoagulatzaileen bidezko ahotiko tratamendu antikoagulatzailearen hasiera malgutzea, aurikula-fibrilazio ez balbularra duten pazienteek iktusa eta/edo odolgalera handiagoa pairatzeko arrisku handia erakusten dutenean, eta/edo K bitamina-antagonis-

ten bidez antikoagulazioa lortzeko aukera gutxi dutenean.

3. Hiru hilabetera jaistea K bitamina-antagonistetatik eragin zuzeneko ahotiko antikoagulatzaileetarako aldaketa baimentzeko epe K bitamina-antagonisten bidez antikoagulazioaren kontrol txarra duten pazienteekin.

4. Eragin zuzeneko ahotiko antikoagulatzaileek gaur egun behar duten ikuskapen-bisatua sinplifikatzea, geroagoko berrikusketa duen bisatu automatikora iraganez.

5. Osasun arloko profesionalendako alerta-sistema informatizatu bat ezartzea, garaiz identifikatu ahal izateko gaizki antikoagulatuta dauden pazienteak eta tratamendua aldatzeko neurriak aldatzeko.

6. Kalitate-auditoriak gehitzea iktusaren prebentzioan eta antikoagulazioaren kontrolean.

7. Antikoagulatutako pazienteen behatoki bat sortzea, bizitza errealeko datuak bildu ahal izateko".

Iruñean, 2022ko ekainaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Erabakia. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da preserbatiboa eta barrerako beste metodo batzuk erabiltzearen gaineko sentsibilizazio kanpainak egin ditzan, sexu-transmisiozko gaixotasunak murrizte aldera.

OSASUN BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak, 2022ko ekainaren 29an egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da preserbatiboa eta barrerako beste metodo batzuk erabiltzearen gaineko sentsibilizazio kanpainak egin ditzan, sexu-transmisiozko gaixotasunak murrizte aldera”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Osasun Departamentua premiatzen du:

1. Preserbatiboa eta barrerako beste metodo batzuk erabiltzearen gaineko sentsibilizazio kanpainak egin ditzan, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Gazteriaren Institutuarekin batera, GIBaren eta sexu-transmisiozko beste infekzioen eragina murrizte aldera.

2. GIBaren eta sexu-transmisiozko beste infekzioen diagnostiko goiztiarra sustatu dezan Oinarriko Osasun Laguntzan.

3. Ukitutako pertsonendako arreta integrala eta haien bizi-kalitatea hobetu ditzan.

4. Erantzun sozial bat bultzatu dezan, eraikigarria eta inklusiboa, estigmaren zein diskriminazioaren prebentziorako.

5. Behaketa eta ikerketa sustatu ditzan, GIBaren eta sexu-transmisiozko beste infekzioen prebentzio eta kontrolerako.

6.- Ikastetxeetan hezkuntza afektibo-sexualaren edukien tratamendua sustatu eta areagotu dezan”.

Iruñean, 2022ko ekainaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da modu argi eta irmoan adieraz dezan Nafarroako Pirinioak xede alderdikarietarako erabiltzearen aurka dagoela.

LEHENDAKARITZAKO, BERDINTASUNEKO, FUNTZIO PUBLIKOKO ETA BARNEKO BATZORDEAK EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Lehendakariak, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Batzordeak, 2022ko ekainaren 29an egindako bilkuran, mozio bat ezetsi du, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita modu argi eta irmoan adieraz dezan Nafarroako Pirinioak xede alderdikarietarako erabiltzearen aurka dagoela.

Mozioa Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak aurkeztu zuen eta 2022ko ekainaren 17ko 80. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko ekainaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Deialdia, Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko auditoreen bi lanpostu huts oposizio-lehiaketa bidez betetzeko.

Gainditu dutenen behin betiko zerrenda eta izendapen proposamena

Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko auditoreen bi lanpostu huts oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdiko oposizioaldia bukatuta (2021eko 147. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, ekainaren 24koa), kalifikazio epaimahaiak honako erabaki hauek hartu ditu:

Lehenengoa. Deialdi horren 7. oinarrian ezarritakoarekin bat etorriz, gainditu dutenen behin betiko zerrenda hau onestea:

1. Jose Javier García Logroño..... 55,94 puntu.

Bigarrena. Deialdiaren 7.2 oinarrian ezarritakoa betez, oposizioa gainditu duen izangai bakarra, José Javier García Logroño jauna, auditore

lanposturako izendatzeko proposamena igortzen zaio Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariari.

Hirugarrena. Halaber, proposatzen da deitutako bi lanpostu hutsetako bat bete gabe gelditu dela deklaratzeari, oposizioa gainditu duen beste izangairik ez dagoelako.

Proposamen hori Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da.

Iruñean, 2022ko ekainaren 15ean

Epaimahaiko burua, Karen Moreno Orduña

